



Salbador Zapiain  
"Ataño"

# Lotsaren iges





EUSKALIZANDIA


Atalotze Garaizua, S.L.

9328  
GAB-128/82

# Lotsaren iges

---

Auspoa Liburutegia  
224



EUSKALTZAINDIA

Atabake Ondoizkan...

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Salbador Zapiain

**“Ataño”**

---

# Lotsaren iges

---

Auspoa Liburutegia  
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-16-X

Legezko Gordailu: S.S. 124/95

## Jostunak

**U**RTEAK ez digute barkatzen. Aurrerapenak ain gutxi. Gu oartzen asi giñan ezkeroko eguna bitarte, zenbat erriaren ospakizun eder ta maitagarri ez ditugu galtzera utzi?

Garai bateko Elizaren jaiak, andik ateratzen ziran arrigarrizko ibildeunak, irugarrendarrak, luistarrak, Mariaren Alabak eta beste oien antzeko asko, jairik zoragarrienak, guri ainbeste atzera-aurrera egin eraziak, sinisten degunontzat benetan eraskorrak. oiek denak igaro ziran eta zoritxarrez ez ditugu geiago ikusiko. Gaurko gaztedia ez dijoa bide ortatik.

Guk, ori dana bizi ta ikusi genduenok, utsun ori nabaitzen degu. Gaurko martxa, meza entzun ta kito. Ori ere egunetik egunera gutxitzen.

Oiek Elizaren jaiak ziran. Sinismena galdu degun ontan, alperrikakoak, ordea, eta kendu egin ditu Elizak.

Erriaren jairik sonatuenetako bat Santa Lutxi eguna zan, jostunen jaia alegia, benetan errikoia. Neretzat eta kaleko gaztediarentzat zoragarria benetan. Baiña egun eder ori ere joan zaigu, geiago ez etortzeko.

Nor zan Santa Lutxi ori? Martiri bat eta gure bistaren babesle bezela Elizak aukeratua. Bista ona izan edo txarra, ori degu bitarteko, eta ori dago jostunen zaindari bezela berezia. Jostunak bista ona bear dute daukaten lanerako. Nekegarria da benetan, eta bista auldu edo galtzeko arraixkoa.

Gure gaztetan, jairik maiteneetako bat zan Santa Lutxi eguna. Urteak zuen zalapartatsu ta errikoiena, gaiñera.

Emakumezkoak, batez ere neska gazteak, oso-osorik goizetik arratseraiño egun ori berena zuten. Baiña aurrerapenak moztu du alako jai ixkanbillatsua, eta penagarria da benetan.

Gaztediaren benetako jai, neskentzat ezik, mutillentzat ere. Esan degunez, urtean zuten jairik alaiena.

Txuxen aitortzezkeroz, jostunak jarria zan; baiña mutillak etziran atzera geratuko, Jakiña, neskak ori nai zuten. Galtzadunik gabe jai orrek etzeukan piper eta gatzik. Baiña auek, alare, erne ibili bearra zeukaten. Bat askoren artean arrapatzen bazuten, galtzak kendu ez besteak egingo zizkioten. Jai orrek indar aundia zeukan garaian ezagutu nuen nik.

Josteko tresnak, aro baten antzekoa, eskuan artuz, neska gazte sailla, baserritar eta kaletarrak, goizero jostundegira joango ziran. Serio asko eta betizu batzuen antzera banaka zoazenean. Baiña alkarrengana biltzen ziranean, askatzen zitzairen mingaiña. Biotza ere bai atsegindu.

Jostundegi oiek benetako euskaltegiak ziran. Iñongo abesti eta bertso berri edo zaarrak, oietatik zabaltzen ziran Euskal-Errira.

Don Manuel Lekuonak zionez, jostundegira zebillen bere arreba batek eraman zion Joan Krutz Zapiraiñek idatzitako Santa Jenobebaren bizitza.



Santa Lutxi etorri baiño lenagotik asten ziran egun ortarako dirua aurreratzen. Etzuten jai ortan lotsagarri geratzerik nai izaten.

Izan ere, orduan neska gazteak oso gurasoen menpeko bizitzen ziran. Ura geiegia izango zan; gaurkoa ere bai, ordea.

Orduan nesketako bat ikusi bear galtzekin eta zigarroa erretzen! Apaizak eskomulgatuko zuen. Baita elizatik bota ere.

Urte guzian eziñean ibiliko baziran ere, egun ori osorik berena zuten. Oparo eta aundikiro igaro nai izaten zuten goizetik arratseraiño.

Meza, aldez aurretik enkargatua, askotan beiñepein bere itzaldi ta guzi, bai txintxo asko ordaindu ere. Denak joango ziran entzutera, eta Jauna artu ere bai. Goizean au entzun artean, etzan zalapartarik asiko errian.

Nik gure komentu xarrean entzun nuen emengo jostunak ateratako azken meza. Ori bakarra enkargatu zuten; baiña gure organistak, jai orri ospe geiago ematearren, mezetan organoa jo zuen.

Uste dezu etziotela eskertu? Buru egiten zue-nak, eskerrak emanaz, bost duroko eder bat luzatu zion, eta orduan duroa dirua zan. Olakoak ziran gure jostunak.

Andik saillean ateratzen ziranean, kaleko ixkanbillak asiera emango zuen. Ori, beren erretira arte, azitzen-azitzen joango zana.

Soiñu-jotzaillea gizonezkoa izango zuten noski. Uste det oraindik emakumeak etzutela zillegi. Gaur egunean, oiek gizonezkoak bezin onak ditugu, eta aukeran gaiñera. Baiña orduan neskak ortatik baztertuak izango ziran.

Jana jarri, josi eta fameliko martxa eraman besterik etzitzaien erakutsiko. Etxe barreneko gorabeera eraman; ortarakoxe zan orduan emakumea.

Urte gutxitan nolako aldaketa etorri zaigun! Baita bear ere. Gaur neska gazterik geienak galtze-kin dabilzala somatuko dituzu; eta zigarro erretze-ko bizio ortan ere gizonezkoekin berdindu dirala uste det.

Beren egoarteko ixkanbil guzien artean, bazkal ordua iritxiko zitzaien, lendik enkargatua. Non, noiz, nolakoa eta zenbatean, ari guziak ondo lotuak. Etzuten uste gabekorik nai.

Soiñu-jotzailleak etzuen egun santu guzian ezeren paltarik edukiko. Ederki zainduko zuen maixtrak.

Ez degu esan bearrik: alako gazte-sailla dabillen lekuan, emakumezkoak gaiñera, ez dira gizonezko-ak baiño ixillagoak izango. Ango ixkanbillak neu-rriak autsiko zituen. Beti goraka joango zan, elkarri ezin entzunik jartzeraiño. Azkenean, barrunbe artan nork iraun?

Iñongo abesti, bertso zaar eta berri zeñiek kan- taturik etzan paltako.

Bukaeran, kapetxo bana artu, kopaxka banare-kin noski. Alare, au askok utzi egingo zuten. Purua... ezta usai egiteko ere. Olako bat erretzen ikusi bear! Urkamendira eramango zuten!

Aiek, batzuek katu erdian, musu gorri bazkari- tik ateratzen ziranean, ango zarata eta ezin egona! Baiña etzan oraindik bere elburura iritxi. Ortarako mutillak palta ziran. Aiek lanetik etortzean, Erren- teriko karririk goxoak jartzen ziran.

Ango karraxi, zimiko, ango neska gazteei zirri egiñaz. Dantzan asiko ziran, baiña lotuan ez. Gaur-ko baltserik etzan zillegi. Sar zedilla mutil bakar bat aien tartera. Denen artean larrutuko zuten.

Emakumeak elkar artu ezkerro, indar aundia zeu- katen. Mutilletan indar gutxi ikusi ezkerro, arrotzen ziran, eta edozein astakeri egiteko prest. Ederki era- kusten digu ori, ondoren datorren gertakari onek.

Orduan ere estropadak jokutzen ziran, eta gaur baiño garrantzi aundiagoa zuten noski. Erria erriaren aurka, eta ortatik elkarrekiko erra gaiztoak sortu ere. Gizonezkoak ere baziran zerbait. Auek alegiñak egiten zituzten irabazle ateratzeko. Etsaiak ere amaren semeak izaki, ordea; eta askotan, erriko jakintsuen iritziaren kontra, ustez eskaxagoak ziranak geratu ziran gailen, ez geiagokak ziralako, ziotenez, suerte ohea eduki zutelako baizik.

Galtzailleak egin zuten betiko beren marka. Baiña besteak indartsuagoak baziran, etzeukaten aitortu ta umildu bearra besterik. Urrengoan, ordaiñak emateko, arrokeriak utzi ta obeto preparamak etorri.

Orduan, gizonak baiño, emakumeak erori eta suminduagoak geratzen ziran.

Nik Donostiko Kontxan ikusi nuen estropada batean, bertakoak jotzen zituzten irabazle bezela, baiña sanpedrotarrak atera txapeldun.

Donostiko emakume arrantzaleak sumindu ta kixkaliak zebiltzan. Lenengo, beren seme ta senarren aurka: etzutela galtzekin ibiltzerik merezi, auzoko bizarririk gabeko ume aiei ez irabaztezkeroz. Urrengoan emakumeak joango zirala, ta baietz marka ohea egin.

Diru asko jokatu nonbait; eta ustez seguru zeudenak, galdu.

Arratsalde artan, bada, zaldun dotore bat, kape lu, korbata eta bastoi, an azaldu zan Donostiko kaian. Ez dakit donostiarra zan edo ez, berak baietz aitortu bazuen ere. Beraizik ango emakume arrantzaleak zirikatzen egurastuz etorria, leku onean sartu zan gaixoa!

Emakume aien artean ia etzebillen beste elkarriketarik, estropadak gora eta estropadak beera,

gertatu zana ezin ulerturik. Agurtu ere gabe eraso zien gure zaldunak:

— Zer dezute? Zuen senarrak galdu dutelako negarrez al daude emakumeak?

Aiek erreak zeuden eta etzioten edozeiñi adarra jotzen utziko.

— Zer dezu? —galdetu zioten, aldamenara joanta, lau edo bost emakume gaztek, luze ainbat zabal ziranak.

Zaldunak etzuen uste aiek ezeren txarrik egingo ziotenik; itza eta putza ariko zirala, oitu bezela.

Auzoko mutillak irabaztunak, bertakoak etzute-la batere balio esan etzien, bada?

Suerte txarra izan zutela bertakoak; bestela, aurtengo bandera ere Donostian egongo zala onuzkero, oiuka zioten bertako emakume arrantzaleak.

Kaiako gazteak zurruta, zigarro eta beste zikin-keri askorekin erreak zeudela. Erteeran, bai, ondo asi zirala; gero, porrot eginta, bereala berotu eta itota geratu, eziñean. Sanpedrotarrak, berriz, aragi gutxikoak, baiña zaiña ta giar utsak, aurea artu donostiarrei.

— Auek ez dute beste banderarik ekarriko, artutako bizio txarrak ez badituzte uzten. Baserriko gazteen laguntzarekin gaiñera.

— Mutillak ez badaukate indarrik, aien ama ta arrebak bai, ordea!

Igerri zion zaldunak leku txarrean sartu zala; eta, andik igesi egin nairik, atzeraka-atzeraka asi zan.

— Orain ikusiko dezu donostiarrak indarrik badaukagun edo ez!

— Barkatu, barkatu! Broma bat besterik ez da ori! Ni ere donostiarra naiz!

— Elduko al zionagu?

— Bai orixe, bi aldiz pentsatzen egon gabe gaiñera!

— Barkatu, barkatu! —zion berriro, atzeraka-atzeraka.

— Bai, baiña alperrik. Beranduegi damutu zaizu. Busti eder bat artu gabe etzera joango. Ea, Donostiko emakume arrantzaleak izanagatik, guri adarra jotzeko gogoak kentzen dizkizugun betiko.

Lauren arte, bik eskuetatik eta beste bik oñetatik, “bat, bi, iru, lau!” eta, *rau!*, aidean urera bota zuten. Berarekin batera joan ziran kapelu ta bastoia. Dotore jantzia etorri bazan ere, etzioten barkatu. Busti aldi ederra artu zuen beiñepein.

Eskerrak igari bazekien. Alare, bota zutenak lagundu zioten ateratzen, bi besoetatik artuta. Baita kapelu ta bastoia ere, emakumeak atera zizkioten.

— Ez dezu berriz esango Donostiko emakume arrantzaleak indarrrik ez daukagunik. Urrengorako eskarmentatu!

Burutik oiñetaraiño bustia, ur gaziz gaiñera, tantaka zeriola atera zuten. Alare, etzan geiegi asarretu. Alperrik zala bai-baizekien. Berak zituen erruak gaiñera. Eta, beste busti aldiren bat artu baiño len, onela esan zien:

— Alajainkia! Edozein sartzen den zuen aurrera!

— Gu asarre gaudenean, guri adarra jotzera ez etorri beiñepein!

— Ni Donostiko udaletxeko injenieroa naiz, eta salatu egingo zaituztet.

— Berdin-berdin zaigu. Zuk bialtzen dizkiguzunak ere zure bidea eramango dute. Au zabaltzen bada, zure bizkar ez dute Donostiko arrantzaleak parra gaizki egingo. Urrengorako ikasi!

Txuxenean etxera joan zan, bere traje eder ura uretan pasatzeko. Bestela, ur gaziak erreko zion.

Etzeraman bere emazteari egia esateko asmorik. Gertatu zan bezela ez beiñepein.

Onek, arriturik, ala galdetu omen zion, gertatua ezin ulerturik:

— Itxasora erortzeko, nola zenbiltzan, bada?

— Egia jakin bai badezu, bota egin naute.

— Eta ez dituzu salatu bear?

— Zertarako? Nik ditut erru guziak; eta beldurrak nago, gaiñera, berak zabaldu ta berri parregarri au ez ote dan Gipuzkoa aldean jakingo.

— Bai. Askok esango luteke: “Ai zer nolako injenieroa daukaten Donostian!”

— Egia esango dizut, baiña etzazu parrik egin. Badakizu donostiarrak estropada galdu egin dutela —zion gizonak.

— Mutil gazte oberik ez badaramate, bai berriz ere —emazteak.

— Orixe, bada. Kaiara joan naiz emakumeak zirikatzerara. Goxoak daude! Lauren artean artu ta aidean itxasora bota naute.

Emaztea algara gozoan asi zan.

— Ez al zenekien arrantzaleen berri?

— Bai; baiña ez nuen uste emakumeak orren gaiztoak ziñatenik.

Berdin gertatzen zan jostundegietan ere. Zer egin etzekiten mutil alperrak, ara urbiltzen ziranean, berenak eta bost entzun gabe etzituzten utziko.

Batasunean daukate indarra. Nork ez du entzun iru aizpa total aien ipuia?

Iru aizpa jostera joaten ziran, eta iruak totalak. Amak ixilik egoteko aolkua ematen zien; bestela, totalak zirala ezagutuko zituztela. Baiña berritxu xamarrak izaki.

Mutil anka oker bat urbiltzen omen zan aiekin itzegitera. Baiña neskak ezin beti ixilik egon. Bein zaarrenari aria eten zitzaion, ta:

— Ola, tiltariya tilteken —omen zion.

— Toopilloa atela iyon —bigarrenak.

— Ni, amak esan didan bezela, itil-itilik negon —irugarrenak.

— Zuek irurak itz totalak zerate —anka baldarrak.

— I, beliz, antotela —irurak batera bizi asko.

Garai batean, jostunak ixkanbil ikaragarriak ateratzen zituzten karriketan, beren egun aipatu ortan. Kaleko jabe egiten ziran; baiña, mutillak lanetik etortzean, aldaketa gogorra egiten zitzaion jaiari. Auek tartean naastean, orduan asten ziran benetako jaiak.

*Txintxua* bertsolariak bertso politak baditu auei jarriak. Zoritxarrez, ez dauzkat gogoan.

Xenpelarrek ere bai, *Albaka batengatik* izenarekin. Usai gozoko belar bat omen zan au, orduan asko ipintzen zana noski.

Jostunen egun batean, bada, mutillen batzuk autsi egin zioten kolkoan zeraman belar ori. Neskak, berriz, salatu eta iru mutilli pezeta bana kendu zieten multa, orregatik. Ordurako etzan gutxi.

Albaka batengatik  
justiziangana,  
nork maitatu bear du  
orrelako dama?  
Aita kastellanoa,  
emengoa ama;  
azal ederra dezu  
Jainkoak emana,  
kopeteko barnizak  
bista badarama.

Preziso bear zendun  
albaka kolkuan,  
azal ederrago du  
zenbaitek orpuan;  
beti irabaztea  
zailla da jokuan,  
pasatzeko modurik  
badezu barkuan,  
Txinako beltzetara  
obe dezu juan.

Txikitatik ikasiak neuzkan *Auspoa*-tik artutako bertso auek, eta neska karabinero baten alaba omen zala esaten ziguten.

Jostunen jaia, bada, arratsaldean izaten zuen bukaerarik zoragarriena, neska-mutillak elkarrengana biltzen ziranean.

Illuna baiño lentxeago etxeraiño laguntzeko etzuten aldamenekoen paltarik izaten.

Nik olakoxea ezagutu det Santa Lutxi eguna, eta neska-mutillak jai ori etortzeko zorutzen egoten ziran.

Jostundegira joaten zan, bada, nobela txiki onen aintzindaria.

Amabost urte bete berriak, bakarrik jexten zan bere baserri aldetik. Baiña bide erdira baiño lenago lagun maite bat bazeukan. Etxe atarian itxogiten zion beerakoan. Gorakoan ere elkarrekin, lagunaren etxeraiño. Andik bide luze xamarrean, bere baserriraiño, bakarrik.

Laguna, emezortzi bat urtekoa. Joakina zuen izena. Besteak, berriz, Martina. Oso elkar maiteak ziran. Txintxo asko itxogingo zion lagunak lagunari.



## Sarea

**G**URE Martina etxeko alabarik gazteena zan. Amak geiena maite zuena ere bai. Txiki-txikitatik agertu zion maitasun ori. Soñekorik dotorenak ari egiten zizkion; eta, iñora joaten bazan, berekin eramango zuen.

Zergatik bereiztasun ori? Au jaio ta bereala geratu zan ama alargun. Baziteken orregatik izatea. Aurrekotik bederatzi urte zeuden Martina jaiotzera. Ori guzia gogoan edukiko zuen.

Zaarragoak geienak ondotik joan zitzaizkion, seme zaarrena ezik. Au maiorazko bezela etxera ezkondu zan. Seme txikiak ere bazituen. Baiña alaba au oraindik ondoan geratu zitzaion. Txeetasun oiek guziakgatik, bere biotzekoa Martina zuen. Bai ondo erantzun ere. Amaren begiak alaba ikusten bazuten, alabarenak, berriz, ama.

Onentzat beste doai bat ere bai omen zuela: besteak baiño ederragoa eta amaren antzekoa. Arrotzeko bidea beretzat.

Anairik zaarrena etxera ezkondu zanean, eta erraiña etorri, amak alperrik zeukan Martina etxean; eta, ala edukitzezkeroz, etzion gazteari kalte

besterik egingo. Orregatik, oraindik gaztetxoak, josten ikastera bialti zuen, etxeko martxarik geiena koiñatak zeraman ta. Pake-pakean bizi ziran, bada, baserrian.

Jostundegira asi zan, bada, bakarrik. Baiña urrengo baserriko neskak, bera baiño zaarxeagoak, lagunduko zion. Ari eskerrak, bide luzerako bazuen laguna, urte pareren bat lenagotik asia.

Ordurako, ama asi zitzaion aolkuak ematen:

— Aizan, Martina: ondotoxoz zaarragoko lagunekin abillen, eta erne begiak!

— Bai, ama. Ni Joakinarekin joan ta etortzen naiz.

— Ezagutzen diñat. Lagun ona den ori. Baiña erne ibiltzeko agintzen diñat. Oiek geiegi zekiten. Iges egin zan dantza lotutik. Gorputz ta animak zikintzen ditun deabruzko oitura den ori. Zutik ezin egon diran mozkor batzuk bezela neska-mutillak elkarri ondo lotuta ikuste utsak nazka ematen zidan.

— Eta zer da ori?

Neska aziak ere, orduan beiñepein, asko ezjakiñean biziko ziran oraindik, eta baserriko neska gazte batek entzun ere etzuen egingo noski.

— Len ere esan diñat: neska-mutillak elkarri elduta mozkor batzuk bezela atzera-aurreraka ibiltzea, ori den dantza lotua.

Martinak etzuen ulertzen orrekin zer esan nai zion. Etzekien alako dantzarik bazanik ere. Esnatu erazi besterik etzuen egiten.

Ama omen zan erri artako dantzaren etsairik amorratuena. Bikarioa bera baiño ere gogorragoa noski. Au ere benetan zorrotza omen zan, eta gazte asko auzoko apaizen batengana joaten ziran aitortzera.

Martinak, jostera zijoanean, Joakinari galdetzen zion, amak ematen zizkion aolku aiek zer esan nai zuten.

Joakinak, berriz, bere ama balitz bezela, zekien guzia erakutsi ere. Bera gaztegia zan ortarako, arazo oien berri jakiteko alegia. Alare, poliki-poliki bazijoan begiak zabaltzen.

— Ez den erri ontan dantza loturik egiten. Ire ama, berriz, orren etsai ikaragarria omen den; dantzarena. Arrapatzen dituzten guziak desterratu-ko lizkiken pozik Afrikako beltzetara. Ni ez naun ibili, eta etzeukanat gogorik. Ik ere galdu besterik ez den egingo.

Zer ote zan, bada, ori? Jakin-naia ernetzen ari zitzaion. Alare, pozik eta atsegiñez entzuten zituen lagunaren irakaspenak; arek txarra zala esaten bazion, iñondik ere ala izango zala.

— Ez gero jostundegitik etxerakoan jolasean ibili! —aginduko zion amak.

— Zer txarririk ote dauka bidean jolasten ibiltzeak?

Bere lagunak, alegia? Ezin ulertu zituen amaren aolkuak. Bera bere amak orren estu artzen ote zuen? Etzekien zer arraixko zeukan bidean lagunekin jolastea. Alegiñak egiten zituen amaren aginduak betetzen; baiña ez ulertzen zituelako.

Martina, bada, gaztea bazan ere, neskatx egiña zegoen. Oso alaia ta gorputz ederrekoa, gaiñera. Amabost urte bete berriak zituen arren, ordurako bazuen bide oietan nork begiratua.

Bere josteko tresna eskuan jetxiko zan egunero, egunik utsegin gabe, arin asko, Joakinarekin batera, jostundegira.

Urte-pareren bat zeramakien eguneroko gorabeera ortan, eta norbaitek ezagutzen zituen beraren ibillerak, oso asmo onarekin ez noski.

Agure zaar bat —neskak beiñepein ala zion— etxerakoan, Joakina utzi ta bakarrik geratzean, beti topo egiten zuen, neska gora ta bestea beera. Baiña etzan Martinaren ezaguna. Arritzekoa al zan, gaiñe-

ra, amak bere magaletik ateratzen etzion uzten ta? Goxo-goxo itzegiñez, aurrean jarriko zitzaion, neska geratu eraziz.

Lenengo egunean galdera asko egin zizkion. Ezagutu nai zituen beraren ibillerak, eta familiko oiturrak ere bai, txabola txiki ura norena zan eta olako kontuak, neskari lizun begiratuaz.

— Atrebientzia da, baiña nongoa zera? Ia arratsaldero emen ikusten zaitut, bakar-bakarrik eta josteko tresna eskuan, pake-pakean mendi aldera zatozela.

— Ni Arkiri baserrikoa naiz, Goizero jostundegira jetxi ta eguerdian etxera bazkaltzera. Arratsaldetan berriro jetxi ta igo —erantzun zion neskak.

— Ez dakit ondo emengo berri, ez naiz emengoa ta.

Norbaiti zer pentsatua emango zion agurearen erantzun orrek; baiña Martina oraindik lotan zegoen. Etzuen aintzakotz artu ere. Orduan eskuarekin erakutsi zion:

— Ketan ari dan baserri txuri uraxe.

Agurea igesbideak billatzen ari zan noski.

— Bakarrik ibiltzen al zera?

— Zertarako det laguna? Ederki badakit aspaldi ontan emengo berri. Alare, beeko baserri ori ezkeror, badet laguna beerakoan, eta gorakoan ere bai.

— Bide zakar ta bakartiak dira auek, neska gazteak orrela ibiltzeko.

— Gizonak aiña ez al gera, bada, emakumeak? Nere amak, igande ta jaiero, irurogei ta bost urtetik gorakoak, egiten badu, nik daukadan sasoiarekin nola ez det egingo?

— Bai; ama lasai ibili liteke. Ez, ordea, zu.

— Zergatik ez ni?

Neskaren galderari erantzun bearrean, igesbide-tik joan zan:

— Zenbat urte dituzu?

— Amabost bete berriak.

— Nik uste baiño gazteagoa zera.

— Illebete bat geiago.

— Ez daukazu adin txarra. Apirilleko usai gozozko lorea zaitugu zu oraindik. Kontuz erlemandoekin!

— Erlemandoak inoxenteak dira. Ez dute kozkarik egiten. Eztirik ain gutxi. Jan bakarra. Alperrak diralako, il egiten dituzte.

— Bai. Amabost urteko neska azia, ia oraindik zeran baiño gazteagoa dirudizu ta.

— Bai; nere ama ere emakume aundia da.

— Ori da: nolako enborra, alako ezpala.

Inoxente-inoxente erantzuten zien gizonaren maleziko galderei, ezeren antzik eman gabe. Izan ere, zergatik gaizki pentsatu bear zuen? Bestea, maleziz zer atera eraziko ari zitzaiona, txarkeriren bat egiteko bideak errezten ari zan.

Agureak laster antzeman zion neskatx ura inoxente zegoela oraindik. Alako begiratu gaizto bat egin zion, berekiko pentsatuz: “Begiratzaille-paltarik ez den izango”.

Eta erri aldera jetxi zan, komeni zitzaionaren berri ikasi zuenean.

Egun batzuetan ikusten zuen Martinak gizon ori, an barrena zebillela; eta, ari iges egiteagatik, arekin denbora galtzen zuelako, beste bidetik joaten zan askotan.

Bere lagun Joakinari kontatu zion zer gertatu zitzaion. Au, Martina baiño elduxeagoa eta, jakiña, arazo oietan esnatuagoa, beldurtu egin zan; eta berak etxeraiño lagunduko ote zion ere bai pentsatu. Baiña, beerakoan, berak ere bakarrik etorri bearra zeukan, eta Martina bezelaxe saldua geratzen zan, ta benetako arraixkoan.

Egun batzuetan etzuen iñon ikusi. Baiña gure agureak etzeukan Martina aztuta. Baserrirako bide erdian txabola batean ezkutatzen zan, egokiera zai.

Arratsalde lainotsu eta euritsu batean, txabola pare artan zala, eraso zion euriari; eta, ezeren arraixkurik ez balego bezela, gure Martina, lasai-lasai, atertu bitartean an sartu zan.

Oiu, negar ta karraxi batzuk atera ziran barrun artatik; baiña iñork etzituen entzun. Iñor etzebillen bide aietan.

Sartzen iñork ikusi etzuena, agurea alegia, atera zan andik larri asko igesi, baiña berea egin da gero.

Denbora puska baterako galdu zan inguru aieta-tik, neska gaixo ura ondatua eta negarrez utzi ta gero. Izutua eta lotsatua aldegin zuen andik Martina gaixoak etxera. Oraindik lotan bazegoen ere, esnatu erazi zuen erlemandoak.

## Atsekabetan

**A**RRATSA zalantza gaiztoan igaro zuen, lo pulamenturik egin gabe. Zer gertatuko ote zitzaion?

Egunsentian, Martina, jeiki zanean, etzan lengoa. Triste zegoen, etorkizunaren beldurrak. Agian ortan geratzea ere bazitekela, bai. Beiñepein, beti ere itxaropena.

Urrengo goizean, oso eroria arkitu zuen, eta negarrez aritutako itxuran, bere lagun Joakina maiteak.

— Zer den? —galdetu zion lagunak—. I gaixo agon. Esan akidan dana.

Onek, erantzun bearrean, negarrari eman zion. Larritu zan Joakina ere.

— Ez neri egirik gorde, Martina. Zer den? —galdetu zion berriro, goxo-goxo artuz.

Onek, ordea, benetan lotsatua, negar egiten zuen. “Orra beldur genduena!” txarrena pentsatu zuen Joakinak.

— Agure orrek zerbait egin al din?

Buruarekin keiñu egiñaz, baietz esan zion.

— Baiña, Martina: nola deskuidatu aiz?

— Etxerakoan euria asi ziñan, eta ni txabolara sartu niñunan, euri-erasoa pasa arte. Agurea, berriz, barruan zegonan. Indarrez ni baiño askoz geiagoa nola baizan, nai zuena egin ziñan nerekin.

— Urdea aleena! Ezagutzen al den?

— Ezagutuko ez diñat, bada, ia egunero ikusten niñan bidean ta?

— Indarrezko lana den orduan?

— Ori den egia. Baiña sinistuko al zidaten?

— Ai, Martina, Martina! Ederra egin diton. Garbi zan arpegi ori, eta al degun lenena goazeman jostundegira. Amari esan al dion?

— Edozein ausartzen den! Ni ez beñepain. Beti bere dantza lotuaren aurka asmalak esaten or ari den; ta, alaba artara ikusiko balu, etxetik bialiko lukela, amaika aldiz esan zidan ori.

— Oraindik ez iñori esan. Agian ez den ezer gertatuko.

— Jainkoak entzungo al din ori! Ez, Joakina, ez. Ezin kontari asiko naun. Bestela ere, ori jakitean, nork zabaldua obeto izango diñat.

— Agure ori, emen azaltzen bada, garbitu bear diñagu!

— Alare, orrekin nere etorkizunik ez den zuzenduko. Agure ori ere ez diñagu geiago inguru auetan ikusiko.

— Lasaitu adin, Martina. Etzeukanagu kontu kontari ari bearrik. Bai edo ez, ori bere garaian azalduko den —eta txuxenean jostundegira joan ziran.

Egunak bazijoazen, ezer ere nabaitu gabe. Baita itxaropen pixar bat artzen asi ere. Baiña illebetetik gora pasa zanean, neskak laster antzeman zion zer-bait len etzeukana nabaitzen zuela.



Jostundegirakoan bere lagunari kontatu zion. Onek, malkoak zerizkiola, bai erantzun ere:

— Erruki aunat benetan, Martina. Oraintxe inpernu bera etorriko den iretzat. Inork ez din sinistuko indarkerizkoa izan danik, eta larrutuko auten.

— Beeko ibai ortara botako diñat nere burua, bai, ta orduan nai duten ainbeste maxiatu nazatela. Nik ez diñat entzungo.

— Martina, etzan orrelakorik burutik pasa ere. Kobarde bat izango intzaken.

— Amaren gora-beeran zegon guzia —zion Martinak, naigabetua.

— Aren beldurrak agon orduan?

— Jakiten dueneko, etxetik botako nion; eta nora joan bear diñat nik orduan?

— Arek lenengo ulertu bear liken ori.

— Ez den nik bezela ezagutzen.

— Ez al aun, bada, amak maite?

— Bai; itxuraz geiegi. Orregatik, ordain gaiztoa eman diodala ta isekatzat artuko din. Orduan nora-ko negon ni?

— Gaizki esakak, lotsak, jazarmenak badatoz ere, ik adoretzu artu itzin. Emaien korajetsu aurpegia. Azkenean, berak makurtuko ditun.

— Ez den erreza izango. Antzematen diotenean, denak marmarrean asiko ditun, eta etxean ezkutatzerik ez. Salbatuko banaun, besteren eskutik eskura ibili bear.

— Amari beldur ikaragarria dion orratik.

— Itzegiten duen bezela pentsatzen badu, naiago liken ni illa ikusi, nagoen bezela baiño. "Pekatuaren frutua" askotan entzun zionat.

— Martina gaixoa, erruki aunat.

Atsekabe gaiztoa zeraman, bada, bere biotzean, Oraindik etzan iñor oartu. Baiña laster izango ziran kontuak.

Jostundegian oartzen asi ziran noski, zaarrenak beñepein: Martinak bazuela zerbait. Baiña aurrean etzuten ortaz itzegingo. Oraindik etziran ausartzen. Au tartean etzanean, etzeukaten beste elkarrizketarik.

Martinak ere, naigabetua, igertzen zion denen ikusmira zala; zorrotz eta zearka begiratzen ziotela. Egia ote zan batzuek ziotena? Eta, berak begiak jasotzerakoan, besteak jexten zituztela. Lotsak lertzen zion biotza, eta denen aurretik igarotzeko beldurrak zebillen. Naiago zukean ar-zulo batean bakarrik bizi, orduan aien aurrean baiño.

Gaixo bati bezela gertatzen zitzaion ari ere. Sendagilleak etsia eman dio: minbiziak gogor lotua daukala; egun gutxiko bizia gelditzen zaiola, bein ta berriz.

Baiña gaixoari ez. Gaixoak ez ditu itzak entzuten. Baiña antzematen dio beragatik ari dirala misteriozko elkarrizketa orretan. Nai ta nai ez, amorragarria izan bear du orrek, gaixo dagoen batentzat.

— Zergatik ez didazute esaten, txarra edo ona, bein betiko neri egia? Ez ibili orrela!

Datorren guziari arpegira begiratuko dio, arek antzemango balio bezela; baiña galdetzea ez da ausartzen.

Martina ere olaxe zegoen. Alare, onek bazekien zer zeukan denen esamesen gaia; eta oso erruki gutxirekin itzegingo zuten. Bera, gaixoa, berriz, errugabea izaki.

Beragatik gaizki esaka ari ziran oietako edozeiñi egingo zion mutil zaarrak lan bera, bere lekuan arrapatu balu. Agure aundia ta beldurgarria zan ura.

Etxean laster oartu zan koiñata.

— Ai nolako ixkanbillak dauzkagun aurki etxean!  
—esan zion senarrari.

— Zergatik diozu ori?

— Martina aur egiteko dago ta...

— Ez da egia izango!

— Zoritxarrez, bere ezaugarriak ala diote.

— Oartzen danean, ez da atsegin izango amarekin.

— Maitasuna bear du eta guk lagunduko diogu.

Jostunen irakaslea ere oartu zan, edo esan zioten; eta onek bere lagun maite Joakinari galdetu zion:

— Martina, zure lagun ori, ez al dago aurdun?

— Bai, zoritxarrez.

— Orren gazterik? Txakurrak bezela al zabiltzate bide oietan? Zer esan bear dute?

— Neri ez dit ezer ere gordetzen —erantzun zion Joakinak; eta Martinari gertatu zitzaion guzia kontatu zion.

— Nazkagarria aleena! Ez den ura ain agurea. Bein baiño geiagotan ikusi diñat ori bidean, gora ta beera, gizon sasoiko aundi bat. Ez diñat ezaguna. Ez den inguru auetakoa ere izango.

— Ez da, ordea, ori geiago emen azalduko.

— Obe din. Bestela, gurekin ez uken atsegin izango.

— Lotsa guzien gaiñetik, amak ematen dio beldur ikaragarria.

— Arek ondoena ulertu bear liken ori. Baiña atso talde bat zegon elkar artuta. Agindu ori beste pekatu-rik ez den oientzat. Bikarioari berari ere aurka egin izan zioten bein baiño geiagotan. Orain okerra etxera etorri zaion. Ikusiko diñagu nola konpontzen duen.

— Neskak ala dio: etxetik biali egingo duela noski.

— Esaten dutena betetzezkeroz, nai ta nai ez, bere lagunak beartuko ditzen ta. Emendik ere ala egin bear-ko diñagu, bada. Bere amarekin itzegingo al uken?

— Ez orixe. Bestela, ikaragarriak esango lizkidake neri ere.

— Nolako emakumea den, bada, ori? Jan egingo ote gaitzin? Orduan neroni joango naun. Erorrek igerriko dion orrela ezin gentzakela jarraitu.

Martinak ikasi du laster lanetik bialiko dutela; amak onuzkero igerri diola; eta orri danari, dagoen bezela eta amabost urterekin, arpegi eman bear.

Illunabarrean, len bein ere ez bezela, lagunaren baserri aurrean eta etxerakoan, negarrez besarkada bero bat eman zion Joakinak, eta agurtu zuen Martina:

— Agur, ez badegu geiago elkar ikusterik izaten ere.

— Zergatik dion ori? —galdetu zion onek urduri.

— Gaur arratsaldean gure maixtrak itzegingo ziñan ire amarekin, eta geiago ez bialtzeko jostera eskatuko zionen.

— Baniñan orren beldurra. Bestela, neroni geratuko niñunan. Goxoa egongo den orain nere ama. Obeko niken, etxera joan baiño, nere burua ibaira botako banu, eta kito. Nai dutena egin dezatela orduan nerekin.

— Olakorik ez pentsatu ere gero, Martina. Itz oiekin benetako beldurra ematen didan. Ez ditun txorakerizkoak.

— Amak bialtzen banau, nora joan bear diñat?

— Oraindik ez aun biali; eta, ala egingo balu, ire fameliko geienak aldekoak arkituko ditun.

Bi lagunak, bada, negarrez egin zuten azken agurra.

## Errukia noizko?

**O**RAINDIK ere zenbait fameli ondradutarako badu bere lotsa. Al duten bezela gordetzen saiatzen dira. Beste batzuentzat, berriz, batere ez. Gazteen artean ondratzat, aunditzat alegia, artzen dute, askatasun ezaugarri bezela. Txakurren mailaraiño jetxi baigera, eta aldaketa nazkagarri au oso urte gutxitan.

Ezkondu gabeko etxeko alabaren bat aurdun dagoela jakiteak, ez dio zenbaiti batere lotsarik ematen.

— Askatasuna nai bazuten, orra or bere ondorenak! Or konpon ditezela! —diote—. Berak aterako dituzte kontuak!

Guraso batzuei entzun diet au esaten:

— Ori nai ziteken. Katuak ederki azitzen dizkin umeak. Orrek ere azi dezala berea. Aitak lagunduko dio, ta kito —ortan gurasoak zer ikusirik ez balute bezela.

Ori, jaiotzen diranekin. Okerragoko bideak artu dituzte orain.

Beste askorentzat oraindik ere badu bere lotsa-kizuna, Jaunari eskerrak. Geienak, al badute, oker ori ixilik zuzentzen saiatuko dira.

Garai batean, ordea, zeru-lurrak elkar jo balute bezela galtzen zan etxeko pakea, "Or konpon adin!" esanta etxetik bialtzeraiño.

Emakumeak, bada, laster antzeman zioten Martinari. Bai, erruki aundi gabe, gaizki esaka beraren izena zikindu ere:

— Arkiriko etxeko alaba gazteena aurdun omen zegon.

— Ez den, bada, ezkondua.

— Agon ixilik, oraindik umea den ta.

— Bai, nai badu. Nabarmen zegoen. Lenengo, etxeko koiñatak ezagutu omen ziñan. Gero, bere lagun jostunak. Amak oraindik bai ote daki?

— Martina den noski baserri ortako alabarik gazteena. Besteak aspaldi ontan ezkonduak ditun noski.

— Neskatx ederra den, baiña kaxkarin samarra.

— Errian dan neskatxik dotoreena baden ori. Oraindik oso gaztea. Amabost urte bai ote ditu gero orrek?

— Baditu ere, oiek. Jostunak kontatu zidatenen, baiña atzo nere begiekin ikusi niñan, eta etzegon zalantzik.

— Oraindik ez omen zekin bere amak. Lauso samarra. Izan ere, ezta etxe artan olakorik gerta zitekenik pentsatu ere. Seme-alaba guziak aingerutzat zeuzkan. Berari entzun izan zionat, gaztetan seme-alabak ondo azitzeak ondoren onak ekartzen dituela; langille ta garbiak atera zitzaizkiola guziak. Jakitean izango ditun ixkanbillak.

— Ez naun batere arritzen. Dantza lotu zikin ortan asi zaizkigun gure erri ontan ere, elkarri eldu ta atzeraka-aurreraka, bi mozkor narrats bezela.

— Gure bikario jaunak gaur arte eutsi zion erri  
xaar oni garbi; baiña noizbait gaillendu zaizkion.  
Amaika abisu eman din, baiña alperrik.

— Gaur egunean etzeukanagu ezer egiterik,  
ezta gurasoak ere, auzoan uzten badute dantza  
zikin ori eta errian ez. Ara zijoazin denak, eta  
askoz okerrago. Eta, jakiña, errian bertan utzi  
bearra.

— Amak jakiten duenean, bada, botako din  
etxetik norabait; eta, illebeta batzuen buruan, nes-  
katx lirain-lirain egiña, ezer gertatu ez balitz bezela,  
neskame joan zala esanaz, seme edo alaba Fraiso-  
ron utzita, emen azalduko zaigun.

— Bat ere gabeko senar-emazteak izaten ditun.  
Aientzat ez den gaizki etorriko.

Auek ziran, bada, gutxi gora-beera, erriko  
maxiaketak, jostundegiko maixtra amari jakin araz-  
tera joan zanean.

Ama emakume ederra zan, aspaldian alargun,  
baiña atzeratua, Moisesen garaietako iritziari lotua.

Etzan seigarrena beste pekaturik arentzat.  
Orren usaiak ere nazkatzen zuena. Ez, ordea,  
errukirik. Eta, ebanjelioan irakurtzen degunez,  
pekatu ortan eroritakoekin erruki geiago eduki  
zuen Jesusek, agintari arro eta injustiziz betetako  
eta jende xumearen bizkar aberasten ari ziranekin  
baiño. Auek ezin zituen irentsi. Benetan madari-  
katu zituen, eta aren zemairik gaiztoenak oientzat  
izan ziran.

Gaur egunean, zenbat olako bizi ote da eten  
gabeko injustizian, damutu ta bide ori uzteko  
asmorik gabe, gizon ondradu baten izenpean egu-  
neroko lapurretan, eta modu ona daukalako zikin-  
kerietan? Bitartean, gixarajo baten erorikada eta  
indarrean beartua, ezin irentsi:

— Jesus! Beltza egin din orrek. Alde fameli ontatik, etxeko lotsakizuna zera ta!

Zikinkeriz aseta daudenak arengatik gaizki esaka.

Martina etzan aberatsa ta lapurra. Erori bazan ere, etzuten erruki aundirik eduki arekin, laster ikusiko degun bezela.



## Amaren arrokeria

**E**TXEKO lanetan arkitu zuen, bada, maixtrak doña Joana, errian deitzen zioten bezela. Emakume etxekoia zan benetan.

Semea eta erraiña baratza-lanetan ari ziran, bitartean.

Doña Joanak urte batzuk bazituen. Oraindik, bere adiñerako, gordin zegoen.

Illoba txikiak ere bazeuzkan aldamenean; eta, erraiña lanetik etorri arte, bere kargu geratzen ziran.

— Arratsalde on, doña Joana —agurtu zuen maixtrak.

— Baita zuri ere, doña Mertzedes. Zer zabilta zu emen?

— Zuri abisu txiki bat ematera nator.

— Nere alabaren gora-beeraren berri, alegia.

— Badakizu orduan?

— Nik ez dakit besterik: erri ontan dan neskatxik ederrena, txintxoena eta garbietetako bat bera dala.

— Ez ditut erri ontako denak ezagutzen, eta jostera dabilzanetan ederrexkoena bera izango dala ez dizut ukatuko. Baiña garbiena...

— Zer du nere alabak? Berri txarrekin al zatoz?

— Esan dizut, bada: garbiena... Oraindik ez al diozu antzik eman? Erri guzian ez da besterik entzuten. Arritzen naiz zu ez oartzea.

— Zertan ez antzeman?

— Zure alabaren egoerari.

— Nere alabak zer txarrik dauka?

— Aur egiteko dagoela, eta aurreratu samarra, gaiñera.

— Baiña zer diozu, doña Mertzedes? Neri adarra jotzera al zatoz?

— Naiago nuke ala banetor. Ez dira ñori adarra jotzeko kontuak auek. Berri onak ematea atsegin izaten zait. Baiña oraingo au, zoritxarrez, danontzako da tristea ta negargarria.

Malkoak zerizkiola, ala erantzun zion doña Joanak:

— Nola liteke ori, aingerutxo bat da nere alaba ta?

— Nik ez diot ezer ere kentzen. Baiña egia esaten dizut: Martina nabarmen-nabarmen dago, eta arritzen naiz zu ez oartua.

— Zer zabilzate orduan or, leku segurura bialtzen nuela uste nuen ta?

— Jostundegian ez dabil erlemendorik. An zainduko ditut. Andik kanpora ez daukat zer ikusirik.

— Nik ori maite nuen bezela ta ziri ederra sartu dit!  
Eta malkoak zerizkion.

— Bai; badakit, gazteena zalako ere, asko maite zenuela. Bera, berriz, ain apal, eder eta xumea da gaixoa.

— Au geiegia da neretzat.

— Eta zer egin bear diozu?

— Berarekin itzegitean pentsatuko det.

— Arek, gaixoak, orain bear du maitasuna ta laguntza.

— Etxea umez betea daukagu eta ez dakit nola konpondu.

— Ez dezu noski gaizki artuko ori: jostundegitik bialtzea. Lotsatua ta atsekabetua dabil bera. Lagun askok par egiten diote.

— Ulertzen dizut, doña Mertzedes. Baiña nik ere naigabez baiña biali egin bearko det. Nere etxe au olako batek ez du zikinduko. Ez nuen uste alabatxo onek ori egingo zidanik. Ederki uzten gaitu!

— Oraindik gaztetxoa da ta ar zazu zure ondoan. Bestela, bere burua galduko du.

— Pekatu egiterakoan etzuen olakorik pentsatu. Jakiña, dantza lotu zikin ortan asi dira, ta gero ondorenak. Txetasunik ez al dakizu?

— Zerbait esan didate, baiña bere burua garbitzeko edo ez dakit: indarkerizko lana omen dala.

— Bai. Txorakeriak! Bera bakarrik arrapatu dute orduan?

— Neri esan didatenez, bai, doña Joana. Gorakoran, euri igesi, beeko txabol ortara sartu omen zan, eta an zegoela gora-beera emen zebillen gizon bat.

— Eskerrik asko, doña Mertzedes. Geratzen zaizkidan urtetarako lotsa erazi gaitu ainbeste maite detan alabatxo orrek. Baiña, ni il arte, ez da etxe ontan biziko au, denak beatzez apuntatuko luteke ta.

— Dagoen egoeran eta gaztetxoa, nora joan bear du orrek, gaixoak?

— Bai; samiña da. Lergarri nere biotzerako. Baiña gaizbide litzake ori errirako ta etxerako. Dijoala nai duen lekura. Ni atso gogorra ta ankapean edukizalea omen naizela askotan entzun diet nere seme-alabei. Auzokoei ere bai. Orra or ondorenak. Orain berak zuzendu dezatela.

— Zuk erabaki bear dezun arazoa da ori, eta agur, doña Joana. Eta barkatu berri kaskar au eman bearra.

— Ez da zure errua, eta benetan eskertzen dizut, doña Mertzedes.

Onekin izketan ari zan arte, nola edo ala malkoei eutsi zien. Baiña ura joan zanean, samin negar egin zuen. Alaba galdu zitzaion. Etxeko pakea ere bai.

Urteak ziran etzala inguru aietan olakorik gertatu, eta lenengo bere etxean.

Burruka gogorra eduki zuen maitasuna edo bere seta zer ote zan lenengo. Ebanjelioa irakurtzea aski zuen zalantzatik ateratzeko: errukia ta maitasuna dala aurrena.

Baiña arrokeria ta etxeko ondra gailendu ziran. Zer esan bear zuten, bere alabari amor ematen bazion? Baiña bere biotza negarrez zeukala, eta egoera ortatik Martina salbatuko zutela, bere seme-alaben itxaropena ere bai.

— Errian zan neskatxik ederrena, eta umea oraindik! Biotza lertuko bazait ere, ez den Martina etxe ontan biziko. Orren gazterik asiera eman diorean, nork atzeratu erazi bear din ori?

Lasaitu zanean, bere lanari jarraitu zion.

## Purrustadak

**J**OAKINAK musu emanta agurtu zuenean, ikasi zuen Martinak jostundegiko maixtra beren etxean izana zala, eta amarekin itzegin zuen une berean lantegitik bota zutela.

Laguna agurtu ta bakarrik geratu zanean, amai-ka zirikaldi gaizto eduki zuen gaixoak:

— Nor joaten da orain etxera? Gogoak ematen dit beeko ibaira joan ta nere burua ara botatzea. Nik zer kulpa daukat ortan? Alare, inork ez dit sinistuko. Agian ezta Joakinak berak ere. Berai olako bat gertatu ezkerro, sinistea naiko luteke, bada.

Beldur zan ikaragarriak esango zizkiotela, eta okerrena: etxetik biali. Ai etorkizuna tristea berea!

Daldaraka ta lotsatua joan zan noizbait ere etxera. Amarekin atean topo egin zuen. Arpegi goxoa zeukan!

— Jainkoak arratsalde on, ama —agurtu zuen, arpegira begiratzeko beldurrak.

— Baita iri ere, deabru alen ori! —erantzun zion, zorrotz arpegira begiratu.

Alabak etzion erantzun.

— Ainbeste maite aunan ama bati emateko ordaiña ori al den?

Ixil-ixilik geratu zan Martina.

— Guregatik zer esan bear diten orain beeko erri ortan? Dantza lotuaren kontra izugarriak esan dizkiñat, ta etxera etorri ordaiñak. Neregatik ala esango ditek: “Besteak zuzendu nairik gau ta egun predikatzen jardun dek, eta etxean agertu pekataria. Obe zin etxea zaindu balu”.

Alabak etzion begirik jaso. Ez erantzun ere.

— Urteak ditun erri ontan ez dala olakorik gertatu. Ik ere amabost urterekin ekarri digun lotsa au etxera. Dantza zikin ortan ibiltzen zerate, ta azkeanean saria.

— Ni, ama, ez naiz egundo dantzan ibili.

Amak ondo zekien alaba etzala dantza-lekuetan ibiltzen. Baiña bere aotik entzun nai zuen eta ala galdetu zion:

— Egia al den iregatik esaten duten ori edo gezurretan ari ditun? Ezin diñat sinistu, zuen maixtrak ala esan badit ere.

— Zoritxarrez, dena egia da, ama.

— Aitortzeko ere ez den lotsik.

— Zer esan nai zenduke, bada? Nik egia diot.

— Bazekiñat, bai. Ez niñan sinistu nai. Baiña ortaraiño nola deskuidatu aiz?

— Zer egitea nai zenduen, bada, nik, gizon zakar batek indarrean beartu niñun ta?

— Indarrezko lana den orduan?

Apal-apal ta malkotsu, dena kontatu zion alabak, bukaera on bat izango zuelakoan.

— Noiztik zabiltzate biak txakurrak bezela?

— Ama, zer esan nai didazu orrekin?

— Noiztik asi ziñaten elkarrengana biltzen, eta pekatuarengatik zenbat kobratzen uan. Ez baldiñat sinisten. Ikasitako lezioa dakarren. I noiz txabolan

sartuko zai egongo dan txoririk ez den munduan. Arek ondo zekiñan noiz joango intzanen.

— Nik, ama, gertatu bezela, dena egia esan dizut. Or ez da txakurrik ibili.

— Naiago iñudan illa ikusi, orrela zikindua baiño. Biotza lertzen zaidan. Nere urteetarako illuna ixuri didan. Baiña Martina nere alaba maite orrek aldegin zan emendik! Lotsa gorria ekarri digun etxera. Ez aunat begien aurrean ikusi nai. Pentsatuko diñat gero nolako erabakia artu.

— Ondo dago. Illa ikusi nai banazu, laster izango dezu aukera. Kulparik ez duen alaba bati erruki geiago ez izatezkeroz, eta lotsa gorrian nagoela etxetik bialtzen banazu, zure azkeneko naija laster beteko det.

Baiña amak etzion sinistu, eta ala erantzun zion:

— Bai; laster aunagu berriz ere emen.

Eta negarrez asi zan ama. Ama negarrez ikusi zuenean, bere maitasunak lertu zion biotza Martinari, eta amaren besoetara erori zan, oni lepotik eldu ta musuka ziola:

— Ama, nai dezuna egin, baiña neregatik ez negarrik. Barkatu pekatu ori, baiña ez da noski pekatu ere.

Ain itxutua zegoen ama bere ondrarekin, berak nai zuenaren kontra, baiña aurrean biali zuen, esanaz:

— Etxe ontan etzegon iretzat lekurik!

Ori entzun zuenean, lasterka batean atera zan Martina.

Amarentzat, munduan zan pekatu rik txarrena ura zan, eta etzuen etxean artuko alakorik. Berak etxeko maiteena ura izanagatik, bere biotzaren kontra, baiña fameliko ondra zan lenengo.

## Anaiaren lasterkadak

**E**RRAIÑAK entzun zuen elkarrizketa ori guzia: eta koiñata bere burua galduko zuela esanta atera zala etxetik bere senarrari esan zion.

— Salta zaitzea, Joan Joxe! Bestela, gure etxean ikaragarria gertatu bear du, orain arteko guziak ixil eraziko duena! Gure koiñata gaixoa, gertatu zaion orrekin lotsatua, bere burua ibaira botatzera dijoa!

Bera itza ta putza ari zan; baiña ordurako bazi-joan lasterka Joan Joxe bere arrebaren atzetik.

Etzuen berealakoan ikusi, arrapatuko etzuela etsitzeraiño. Baiña alako bide krutze batean somatu zuen, eta andik urruti zegoen oraindik ibaia. Ara orduko arrapatuko zuela noski.

Arrebak etzuen atzera begiratzen. Bere asmo gaiztoak lotua zijoan itxura artu zion anaiak; itxu artan ibaira jauziko zala ura.

Etzion deitu nai izan, agian okerrago izango zala ta.

Ler egin zuen bidean. Baiña, bere zorionerako, ibaira baiño metro batzuk lenago eldu zion zarpetatik.

Atzera begiratu zuen Martinak, eta anaiaren begiekin topo egin zuten bereak.



— Erotu al aiz? —oiu egin zion—. Noiznai baoken karreretara!

Nekatua zegoen; eta, anaiaren atzaparretatik etzuela iges egingo igjerri zionean, bertan exeri zan Martina.

Baita anaia ere bere ondoan; eta, esku bat arre-baren sorbalda gainean jarriz, gutxienez ogei urtez zaarragoa bazan au, eta musu bat emanaz:

— Zer arraie abillen? —galdetu zion—. Ler egin diñat, i ezin arrapaturik.

— Amak biali egin nau. Illa ikusi naiago niñukela, negoen bezela baiño; ta ni nere burua ibaira botatzera nentorren.

— Alajainkia! Ortaraiño erotu al aiz?

— Joan Joxe, zu ez baziña etorri, onuzkero itoa nengoen. Nik ez det kulparik, eta neregatik gaizki esaka ari dira denetan. Okerrena ama. Ez dit sinisten. Etxeari sekulako izen gaiztoa jarri omen diot. Non bizi bear det nik, orrela nagoela? Ainbeste maite det ama. Bizia ere emango nuke beragatik; eta berak, lagundu bearrean, aurrean biali. Ori ez da ama; ori artza da, Joan Joxe. Izen txarra ekarri badet ere, neretzat. Ez amarentzat. Etxearentzat ere ez.

— Lasaitu adin. Borondate onarekin arazo auek guziak baditen beren askabidea. Ire berri banekiken, emazteak esanta. Oiek bereala antzematen zioten. Baiña orain ik dionena egia den. Oso gaizki portatu zaizkin lagunak. Alare, okerrena ama. Judeako legeetan bizi den oraindik, eta erri ontako dantza lotuaren aurkako elkartean sartua zegon. Etxean gertatu ori ta, jakiña, etxetik asi bear justizia egiten. Amak asko supritzen din, baiña bere egitekhoa ori dala iruditzen zitzaion. Bere atsolorreko lagunak ere zirikatuko ditzen ortara. Ez akion, bada gorroto geiegirik artu amari. Alare, ire burua itotzeko arrazoirik ez den sekula izango. Borondate ona-

rekin geienak baditen beren ertenbidea; onek ere bai, eta guk ere onez-onean bide zuzenetik eraman bear diñagu.

— Zuk jakingo dezu konpondu liteken neri gertatua.

— Edozein emakumeri gerta litzaioken lana den ori; eta, justizia eskatzen asi ezkerero, amaren erantzunkizuna iri laguntzea den, etxean artuaz. Baiña ez liken pakean utziko, eta biak erruz suprituko zenuteke. Orregatik, Paula aizparen etxean biziko aiz aurra jaio arte. Berak eskatu zidaken. Etxean baiño naiago al den?

— Bai orixe.

— Ara eramango aunat. Baiña ere burua iltzeko zirikaldi ori, ezta pentsatu ere.

— Eskerrik asko, Joan Joxe. Ama bezelako musularia etzera zu, baiña bai maitalea. Ni itxu-itxuan ni Joan; eta, ez baninduzun bidean arrapatu, onuzkerero nere atsekabeak bukatu ziran, nik ez daukat errurik eta.

— Ai, arrebatxo! Zer esaten ari aiz? Sinismena galdu al den, bada? Bi eriotz batera eginta, nola azaldu bear unan Jaunaren aurrera?

Neskak burua makurtu zuen, eta izuak dardaratu erazi zion gorputz guzia.

— Orixen da, Joan Joxe, pentsatu ere ez detana. Zuk arrapatu ez baninduzun, egingo nuen, bada, nere onetatik aterea nengoen ta.

— Jaunari eskerrak nere emazteak entzun duela zuen elkarrizketa. Arek abisatuta, lasterka etorri naun; eta, zorionez, garaiz arrapatu. Ori egin bannen, badakin, lengoz gaiñera, nola utziko itunen maite auten auek?

— Ez det pentsatu nai. Baiña nik orduan ez nuen atzera egingo.

— Goazeman. Amaren ezezkoaren beldurra baniñan, eta geronekoan Paularekin ortaz itzezin ta jakiñaren gaiñean jarri. Barkatuko didan noski.

— Bai, Joan Joxe, nere onagatik egiña dala badakit eta.

— Berri txar orrek negar egin erazi zionan ari ere. Baiña etxe artan, zaarrenetik asi ta gazteeneraiño, beso zabalik artuko iñutela esan zidatenen, aurra jaio arte beiñepein. Orduan zeukanagu berriro pentsatu bearra, an ere fameli aundia zegon ta. Alare, i lasaiago arkituko aiz.

— Nik beiñepein naiago det askoz, amarekin baiño.

— Utzion amari pakean. Egunen batean amor emango din. Baiña etzionagu arazo oni zabalkunde aundiegirik eman bear. Paulak biotz-biotzez artuko au, eta goazeman ara.

— Ibillera lotsagarriak dira auek neretzat. Alare, esan dizut: naiago det aizparen etxera joan, amak ez lidake pakean utziko ta.

— Eskerrik asko, Martina. Orduan oraingoz dena zuzendua zegon. I lasai bizi adi. Ni konponduko naun ire aizparekin.

Anaiak lagundu zion Paularen etxeraiño, eta besarkada batean lotu zitzaizkion, erdi negarrez, zaarrenetik gazteeneraiño.

— Ondo bizi adin, eta egon lasai emen —esan zion aizpak.

— Ez ezertan ibili. Neronek ekarriko dizkiñat bear ditunanak —esan zion anaiak.

## Doña Joana

**A**MA lasaitu zan, itxuraz beiñepein, eta konten geratu, alaba erritik ezkutatu zutenean. Amabost urte bete berriak eta oraindik olakorik!... Bere aolkuak ez dute ondoren onik ekarri.

Len bi ama zeuden etxean, eta etzuen irugarrenik artuko, alaba oraindik bere mendeko bat izanagatik.

Alako fameli ondradu ta tatxarik gabeko baten-tzat oso lotsagarria zan. Zer esan bear zuten auzoak?

Alabak txeetasun guziekin kontatuagatik, etzion sinistu. Pekatutik pekatuta zebillen salaketa bota ere bai aurpegira. Erru guziak dantza lotutik eman zizkion; eta, bere ustez zeuzkan eskubideekin, etxetik biali.

Len ere nonbait irakurria daukat izen aundiko sendi oietako batean gertatua: lenengo aurra elbarria jaio zalako, ukatu egin zituen aurra eta ama aitak. Bere titulu eta ondareak, berriz, beste fameli bati eskeiñi. Arrokeriaren lanak! Etzuen, bada, iñoren aolku eta eskerik entzun nai izan doña Joanak.

— Etxea nerea da, bai, eta olako neska galdurik ez da emen biziko. Eta alaba ere ez.

Au ez al zuen, bada, berea?

Joan Joxek ere, arentzat aiña leku bazegoela etxean esaten zion amari. Baiña etzion entzun nai izan. Arrokeriak itxutua zegoen; egoskortua. Eta badakigu benetan maite zuela. Etxea eta fameliaren ondra zegoen, ordea, denen gaiñetik arentzat. Lenengotik ezetza eman zuen, eta artan iraun nai. Berdin bazekien norbaitzuk lagunduko ziotela.

Bikario jaunak ere bere kontzientzira itzezin zion: gaztetxea zala oraindik; eta, betiko galtzea ez bazuen nai, laguntzera beartua zegoela, legetara jota ere, bere askatasun urteak etzituela oraindik bete ta.

— Eta lan txar ori egiteko nork eman dio askatasuna? Aurrera ere orrek ortara jarraituko du. Gure etxerako betiko lotsakizuna litzake ori. Zuk, gaiñera, badakizu ni nor naizen.

— Ondo diozu zu nor zeran badakidala. Beraren ama zeran aldetik, zure alabari laguntzea zure egin-kizun bearrenetakoa dala. Baita berrogei urtekoa izan balitza ere. Jainkoaren agindua, alegia. Ezezko arrokeri ori deabruaren zirikada bat da.

— Jesus, bikario jauna! Nora goaz?

— Ez dezu ondo pentsatu, doña Joana. Ez al dezu entzun alako ebanjelioak dion ura: errukia nai det; ez oparia?

Ari ere etzion entzun nai izan. Ori etzan bere arrokeria besterik. Asko begiratzen zion etxeko ondriari, baiña ez alabarenari. Ixilik gorde bearrean, berak zabaltzen zuen, pekatu orren usaiak ere nazkatzen zuela jendeari erakutsi nairik. Eta, bere iritzi apalean, ori etzan pekatu.

Len erria alabarengatik gaizki esaka aritu bazan, orain amari eraso zion. Ezin zuten ulertu amaren itxumena.

Berri auek guziak kalera zabaltzen ziran; eta lenago erdi errespetoz *doña Joana* esaten ziotenak, orain *Argi-ollarra*.

Paulak garbi-garbi esan zion aizpari aurra jaiote arte edukiko zutela. Baiña ezin zezakeala geiago. Bera ere seme-alabez betea zegoen, eta txikiak. Etxe artan, gaiñera, etzuen berak agintzen, etorkiña zan ta.

Noizbait mutiko berri bat sortu zan mundura, Martinaren anai-arreba guziak etorri ziran ikustera. Baita zorionak eman ere; eta, jakiña, al zuten aiñean lagundu zioten. Baiña, abisu emanagatik, ama etzan etorri.

Egun batzuk igaro ziran eta aizpak ala esan zion Martinari:

— Bataiora arte eduki aunat. Baiña len ere esan diñat ezin nezakeala geiago.

— Len ere naikoa egin dezu. Esker ona besterik ez daukat zuretzat.

— Eta orain nora joan bear den?

— Nik zer dakit? Lanik ere ez daukat gaiñera. Norbait errukituko al da!

— Negargurea ematen didan. Ezin baiaunat luzaroan eduki.

— Utziozu ori pakean. Gutxiena uste dan lekutik azaltzen dira biotz oneko pertsonak. Neretzat ere norbait izango da.

— Eta amonak ez al din zerbait egingo? Mundu ontako legeak ere erdiz-erdi arrapatzen ditene. Billobatxoa ikustean xamurtuko zaione biotza.

— Semetxo au ta ni madarikatu gaitun ezkerok, ez daukat itxaropenik. Etxera joateko esango balida, ukatu egingo nioke.

— Ama batekin ez daukazu konfiantza geiago?

— Ura onera etortzeko beldurrak aidean nago. Beti asmalak esaten dizkit arpegira, bere burua Ama Birjintzat artuz.

Semetxo orren aita ta amandrea Joan Joxek eta bere emazteak egingo zutela amari esan zionean, asarretu omen zan:

— Ez al aiz lotsatzen pekatuaren ume ori jasotzea?

— Ez al da, ama, zure alaba eta nere arreba, eta jaio dana zure billoba? Nolakoak diran begiratu gabe, amonak oso billoba maitaleak ikusi izan ditut. Zu, berriz, etzera oietakoa.

— Billoba bai noski: baiña ez dek legezkoa.

— Utzizu pakean orri, ama. Zer erru dauka aurtxoak? Eta, amak dion bezela, indarrean bear-tua bazuten, zer egin bear zuen arreba gaixoak?

— Orren sinisbera al aiz? Illebeteak zeramazkiken orrek pekatutik pekatuta. Dantza lotutik datozen ondorenak dituk oiek.

— Ori, ama, oso gaizki pentsatua. Seguru jakinda ere, ezin liteke ortara itzegin. Ziur badakit Martina ez dala dantza lotuan ibili. Bai zuk ere gaizki pentsatu. Kontatzea errexka da. Asmatzea, ordea, zailla. Eta ori pekatu da. Arrazoirik ez daukat ez sinisteko. Dana dala, nik beti entzungo diot zoritxarrean erori dan arreba bati. Ez det nitzaz beartzen dana ibaira botako. Len ere doi-doi salbatu nuen andik. Orain bear du orrek gure laguntza. Bataiorako gora-beera au konpontzeko alegia, nere emaztearekin joango naiz. Zu ere, nai badezu, etorri.

— Ezta pentsatu ere. Orrek fameli oni bere izen ona kendu zioke beñepein.

— Ori gezur biribilla da. Kendu badio ere, bere buruari.

— Lotsakizuna dek ori gure famelirako.

— Ez; arrebaren erorikada ez. Orain egiten ari geran au da lotsagarria. Amaikatzoren mingain txorrotzek guratzeak bezela ebakiko gaituzte. Nai duenak pentsa dezala nai duen modura. Or konpon.

Baiña ni Martina deitzea ez naiz lotsatuko. Eta bere semearen aita jaun egitea ain gutxi. Urrikaltzen natzaio. Maitasuna bear du; ez jazarmena. Edozeiñi gerta litzaioke ori. Len baiño ere geiago maite det noski orain nere arreba gaixoa.

— Etxe ontan beiñepein ez dek sartuko.

— Nik ortan ez daukat zer ikusirik. Or konpon egiten dezunarekin. Baiña biziko dan edo ez, ori Jainkoaren esku dago.

— Zer egiten detan bazekiat: ez dit etxe ontan ageriko pekataririk nai.

— Zu, ain Elizari emana, oroituko zera noski alako ebanjelioko pasadizo artaz: andre ezkontza auslearena alegia.

— Bai. Memoriz ere bazekiat ori.

— Ez du itxura aundirik, egokiera dezun ontan ez betetzezkeroz. Orain da garaia alaba gaixoa salbatzeko.

— Utzidak pakean, gertakari ura eta au ez dituk berdiñak eta.

— Ez noski. Ura askoz larriagoa.

— Etzekiat zergatik.

— Ura ezkondua zan, eta bere borondatezko lana. Oena ez da berdin. Au umetxoa da oraindik; indarrean arrapatua; zure esku dagoena eta zure alaba. Ura, Jesusentzat ezezaguna. Alare, errukitu egin zitzaion, eta babestu. Il nai zutenei Jesusek esandako itzak gogoratu eraziko dizkizut: Pekaturik ez daukanak jaurti bezaio lenengo arria nere arreba gaixoari.

— Orduan ik pekataritzat naukak ni?

— Zu, ni ta munduan bizi geran guztiok. Ezetz diona gezurretan ari da, eta pekaturik txarrenaren jabe: arrokeria. Aizunak gera. Gure buruak uts-ezintzat dauzkagu. Askotan, epaitzen degun peka-



taria baiño okerragoak. Alabari ez badiozu barka nai, zertarako orrenbeste aita gure errezatu?

— Ez aiz, ni bezela, lotsa pasatzen ari.

— Martina gaixoak okerragoak daramazki. Nik, ama-semeei musutxo bana emanta, Jesusek ezkontza ausleari esandako itzak berrituko dizkiot, arrokeri guziak erabat betiko utzita: “Martinatxo, bizi zaitte pakean ta zoriontsu; eta ez geiago olako pekaturik egin. Orregatik ez dezu nere maitasunik galdu. Kristauak barkatu egin bear du; ez zigortu.

— Bai; itxura ugari.

— Ez dira itz oiek etxerako txarrak. Olako arazo batean, biotza eskuan, babesa eskeintzen diot. Ez dira itxurak. Arreba, gaiñera, oraindik gaztetxo bat da. Bere bizimoduan martxan jarri arte, laguntza bear du orrek. Ortan beartuena zu zera, eta munduko legeetan ere bai. Ari gertatu litzaiokeenaren erantzunkizuna guzia zure gain etorriko da. Eta mesede bat eskatzen dizut, ama: etzazula alaba izutu erazi. Anai-arrebok bat egin-ta, guk zainduko degu Martina —esanta etorri omen zala bataiora.

Ama-semeei musutxo bana emanaz, eta ez ori bakarra, aurrarentzat pixoialak eta diru pixar bat ere bai, bear-bearrezko puska batzuk erosteko maitasunez eman zizkion. Etzitzaizkion bere amari gaizki etorri.

Joan Joxe bera ere beldurak zebillen, ez ote zuen amarekin zaputuz aldiren bat izango. Olakoxea zan amona.

Alaba ere daldaraka zegoen amarekin itzegiteko. Ez bazion semeari illobaren aitajaun egiten utzi nai, aurraren amaren aurrera etzan goxoago etorriko.

Lasaitu nai zuen, eta bota bere alperrikako kez-kak. Lenengo estuasunak igarotakoan, nonbait lana billatuko ziotela, bere burua eta semea azitze-

ko. Gaizki esakak ere, bein bero aldi ura pasa ezke-  
ro, bukatuko zirala.

Ori zan maiz anaiak esaten ziona. Zirudienez,  
arrebari bizilekua eta lantokia ere billatzen ari zan.

Berak naita egin balu ere, amak bere maitasuna  
ukatzeko etzeukan arrazoirik; eta, indarrezko lana  
izan zan ezkerro, oraindik gutxiago. Baiña etzion  
sinistu nai amak. Martina bera ere, bada, anaiaren  
aolkuz, zerbait lasaitzen asia zan, dena besteren  
itxaropenetan utzi gabe.

Bere anaiarentzat eskertsu zegoen. Beti artaz  
ondo itzegin zuen. Baiña, zoritxarrez, ama sartu  
zan tartean, eta dena ondatu. Joan Joxek ari zuen  
lanak ere, alako ondorenak ekarri zituen.

Egoarte batean, aurrari bularra ematen ari zan  
batean, etorri zitzaion ama ikusi bat egitera. Etzion  
erregali aundirik ekarri, moduaren paltarik etzeu-  
kan baiña.

Alaba, erdi lotsatua, aurra besoan zeramala,  
maitasunez dena barkatuz, musu bat ematera urbil  
zitzaion, eta etzion utzi. Ez berak ere eman. Ezta  
besoan zeraman aur bataiatu berriari ere.

Martina gaixoak, aulki batean exerita, negarrari  
eman zion.

— Orain egiten al den negar? Lenago unan  
garaia.

Alabak etzion bururik jaso.

— Alare, lotsa pixar bat badaukan oraindik.

Min eman zion orrekin alabari. Bai zorrotz asko  
erantzun ere onek:

— Ama ta amona izanta, iseka egitera etorri al  
zera onera? Badakizu nolako premian arkitzen nai-  
zen, baiña ez didazu alare erregali askorik ekarri. Aita  
bizi balitz, ez nintzake ni nabillen bezela ibiliko.  
Losintxa gutxikoa, baiña zuzena eta maitalea zan ura.

— Zuzen ibili baintzanen, ez unan orain olako buruausterik edukiko.

— Koiñata eta beste auzoak, ni nola nabillen dakitenak, askoz oparagoak izan dira, ama baiño, nerekin.

— Zer nai uanan iri ekartzea?

— Maitasun geixeago beiñepein. Bai eta itz goxoagoak ere. Alare, nolabait aterako det nere bizimodua. Erri guzian ez da bat ere zuk bezela pentsatzen duenik. Laguntza eskatuko banu, badakit irixiko nukela. Baiña orrekin etzaitut zu umil erazi nai, zuk ni egiten nauzun bezela.

— I umil erazteko zer egiten diñat nik?

— Neri gertatu zaidana inguru guzian zabaldu zure burua goratzeko, eta ez dena gertatu bezela. Egia: orain geienak zure aurka daude.

— Lotsa gorrian utzi dek beiñepein ire famelia, amasei urte baiño len munduari ume sasiko bat emanta.

— Zurekin edo mando batekin itzezin berdintsu da. Lotsa eman badiet ere, aiek badakite barkatzen; baiña amak ez.

— Nik ikusten detana besterik ez diñat sinisten.

— Orduan elizara zertarako joaten zera?

— Ik beiñepein pekatu itxusi bat egin den, eta ez adilla inguru artara azaldu.

— Gogoak ematen didanean joango naiz ni ara. Ez naiz, ordea, egundo pekatu egin ez dan zure komentu ortan sartuko.

— Nai denana; baiña gure ortan ez diñagu lekurik emango.

— Ez dizut ulertzen, ama. Aur txiki onek zer erru ote dauka bere amonak musu bat ukatzeko? Alaba orren gaiztoa atera banaiz, uka zadazu neri. Baiña aurtxo maitagarri oni ez dakit zergatik.

— Pekatuaren frutua den ori.

— Ez al ziñan zu ere pekatuan jaio edo Ama Birjiña zera?

Min eman zion amari alabaren azkeneko eztenkada orrek, eta nola erantzun etzekiela geratu zan.

— Ez badezu nerekin ezer jakin nai, ezta nik ere zurekin. Belauniko jarri bear ko dezu berriz ni zuregana biurtzekeroz. Erritak ez didate onik egiten, eta gaurtik aurrera mesedez utzi nazazu pakean, emen ez dezu zuk agintzen eta. Zoaz sekula pekatu-rik egin ez dan zure zeru txiki artara.

Aurra besoan, txuxenean sukaldera sartu zan Martina.

Paulak ama-alaben elkarrizketa entzun zuen, eta oso naigabetua geratu zan. Etzuen uste bere ama ain arro ta egoskorra zanik, esamesa txoro batzuek orrela beldurtzen bazuten. Baiña bere purrustada guziekin etzien besterik erakusten: maitasunaren gaiñetik zeukala bere arrokeria; eta erriko ejenplotzat zeukan pekatu itxusi orren usaia bera ere kendu naia, bear gorrian arkitzen zan alaba bati bere babesa ukatzeraiño.

Martinak bakarrik utzi zuenean, aldegin zuen andik amak, asarretua. Baiña alabaren aurrean amorrik eman ez ta malkorik ixuri etzuelako, arro.

Garai bateko parisaitarrak bezela, agiriko legeak ondo bete; baiña premi gorrian dagoen alabari maitasuna eta laguntza ukatu.

Nork zekien gero, Martinaz oroitzean, ez ote zuen negar egingo?

## Igesa

**A**URRAREN ama etsia zegoen. Asko agindu, baiña iñondik etzetorren laguntzarik. Iñorako etzala utzi zuten.

Bere aizpak, berriz, etxetik botako zuen, eta arrazoi osoarekin. Arengatik egin zuena etzan gutxi. Etzeukan arentzat esker ona besterik.

Amak, ordea, besteren etxera joan ta iseka egin; eta bere semea etzuen billobatzat ezagutu nai izan. Lagundu bearrean, aurka egiten zion.

Ezin bizitzeraíño ekarria zeukaten. Amabost urteko neskatxa batek zer eskarmentu zeukan, bere erara bakarrik uzteko?

Etsi zuen, bada, gure Martinak, laguntza geiago gabe bere semea eta bera aurrera ateratzerik etzuela iritxiko; eta, ijitoak bezela eskean asi baiño len, erabaki zorrotz bat artu zuen: semea Fraisoron utzi ta berak iges egin. Bai-baizekien, bereak ez bazuten artu nai, mojatxoak artuko zutela.

Amonak aldegin zuenean, bada, arrunt etsi ta eroria geratu zan alaba. Zegoen bezela etzutela artuko, ori guzia bazekien Martinak. Ezagutzen zuen bere ama doña Joana.

Baiña senide artekoak etziotela bere maitasunik ukatuko, ori zan alabaren itxaropena.

Lana billatuko zuen; eta, bera lanean zan bitartean, duan ez bada ere, norbaitek zainduko ziola semetxoa, lanetik etorri arte.

Oraindik eskarmentu gabea izanik, martxa ori zeukan alabak artzeko asmoa: diruz edo jantziz bederenik lagunduko ziola amak. Bere ametsak amets geratu ziran, ordea. Itxaropen oiek guziak galdu zituen.

Aizparen berri bazekien. Amarena ere bai. Nora-ko zegoen orduan?

Etzan luzaroan pentsatzen egon. Zeukan soñekorik onena jantzi, koiñatak emandako diru pizarrak jaso, papertxo batean amaren eta aurraren agiriak idatzi, beretzat beste alako bat, Martintxo besoan artu ta bixi-bixi atera zan etxetik.

Ikusi zuen aizpak, “Nora ote dijoa ori?” zion berekiko.

Etzuen, alderatzekorik ere, iges egingo zuenik pentsatu. Bestela, etzion utziko.

Txuxenean Fraisorora joan zan Martina. Bizi zan lekutik urbil samar baizegoen. Ara eramaten zituzten utzitako aurrak.

Ango ateetan aurrari musu bat emanik, “Azkenekoa zure amagandik, Martintxo” esan zion. Idatzitako papertxo aletako bat orratz batekin aurrari lotu eta, igo bezela, ixil-ixilik aldegin zuen andik.

Aurra negarrez somatu zutenean, Fraisoroko mojak jaso zuten. Aizparen etxera abisu txiki bat biali ere bai. Lendik ezaguna zuten eta Martinaren berri ere bazekiten: Martin Etxebeste Intxausti Fraisoroko ateetan utzi zutela, eta ea nora joan zan ama.

Naigabetu zan benetan Paula. Martinak aurra utzi eta iges egin zuen. Nora sartu ote zan bera? Ez ote zuen bere burua illa izango?

Amonari ematen zizkion gertatuaren erru guziak. Arekin azkeneko itzegin zuenean, etsia artu zuen aizpak.

Bereala erri inguru artan guzian zabaldu zan berri triste ori. Jende guzia aizkatu zan. Bere anai-arrebak bazter guztiak astindu zituzten, batez ere ibaia. Arako joera aundia zeukan Martinak, eta astero-astero iru bat busti aldi artzen zituen an. Baiña, alegin guziak egiñagatik, etzuten aztarrenik atera.

Guardiazibillak luzaroan ibili ziran mendi inguru aietan barrena.

Jostundegiko langilleak, Martinaren lagunak alegia, lanean ari ziran bitarte, egunero errosario bat errezatzen zuten beraren alde. Len par egiten ziotenak ere, benetan damutu ziran.

Joakinak etzuen lorik egiten, bere lagun maiteari zer gertatu ote zitzaion gau ta egun ezin azturik. Ea gaixoak, eguneroko iseka eta jazarmenak ezin buruturik, bere burua galdu zuan.

Arroa bazan ere, naiko larritu zan ama. Malko garratzak asten zitzaizkion artaz oroitzean. Kontzientziak kozka egiten baizion: bere azkeneko bixitak naastu zuela Martina.

Baiña, illa edo bizia, aren aztarrenik etzan azaldu. Nonbait ikusi ote zuten, baiña gauza garbirik ez.

Joan Joxek asko supritu zuen, baiña ixilik. Etzuen ama bera arraixkoan jarri nai, oso eroria geratu zan ta. Esan baizion uzteko pakean alabari, anai-arreben artean zainduko zutela ta. Baiña etzuen aintzakoz artu.

— Zoritzarrekoa amaren azkeneko bixita! —zion Joan Joxek—, Arentzat lantegi bat billatu ta gero!

Askok, bere burua illa izango ote zuen zioten. Besteak, berriz, ezetz; geienak noski. Asmo gaizto orrekin joan balitz, aurra aurretik eramango zuela. Bere anai-arreben iritziak eta bikario jaunarenak ala ziran.

Erriko jendearen mingaiñak bi aoko ezpatak ziran: alabarekin batera larrutzen zuten bere ama ere. Au, geienak.

Erorikada bat izan zuela. Nola? Ori etzegoen garbi batzuentzat. Baiña geienak neskari arrazoi ematen zioten. Oraindik gaztetxo bat izanik, amaren eginkizuna zala alaba bere aurrarekin jasotzea. Etxeko senar-emazte gazteak artzekoaren alde zeudela, gaiñera.

— Euskal-Erri guzian ez den ori egingo duen beste amarik —zioten emakumeak, arriturik—, alaba benetan galtzeko arraixkoan lagata.

Ama lotsatua, bere baitara bildua, jexten zan elizara. Denak galdera bera egingo zioten, eta zer erantzun jakin ez.

— Gogorra egin dezu orratik, doña Joana —esango zioten itzetik ortzera, bere lagunik maiteenak ere.

— Bai. Arrazoi dezute. Jainkoak barkatuko al dit. Nola pentsatu bear nuen nik, neskatxa eder arek ori egingo zidanik?

— Amaren madarikapena seme-alabentzat gogorra da gero.

— Bai. Ala izango da. Arentzat etzan ori txarre-na. Ez dirurik, ez lanik, etxerik ain gutxi, bere amak egoera artan zegoen alabari aterpea ukatu. Amabost urteko neskatxa baten pazientzia ez nuen ondo neurtu —eta malkoak zerizkion.

— Semea bederenik artu bearko dezute etxean.

— Ez, beraren amaz beti oroituko nintzake ta.

Kezkak eta jendearen esamesak zerbait bigundu zioten biotza. Baiña doña Joanak oraindik lengo lepotik zeukan burua.



## Aurra norentzat?

**I**LLEBETEREN bat igaro zanean, inondik etzeterrela amaren berririk eta mojatxoak kezketan jarri ziran. Zer egin bear zuten aurtxo arekin? Paula, amaren aizpa deitu zuten, aren agintepean ibili zala ta.

— Ez al dezute aurtxo eder au jaso bear? —galdetu zioten.

— Bere amak or utzi badu, zerbaitengatik utziko zuen.

— Bueltan etorri ta gero jasotzeko asmoan?

— Berriz etortzekotan joan balitz, etzuen orrera eramango.

— Bere amaren berri ikasi nai genduke, bada, guk.

— Ez da erreza izango, bizi dan ere ez dakigu ta.

— Nola diozu, bada, au emen utzi zuenean, zer egiten zuen bazekiela?

— Zalantzarik gabe, zuen eskuetan baiño obeki beste inon etzala geratuko pentsatuz, alegia. Nik jasotzea nai izan balu, etxean utziko zidan.

— Ura azalduko dan itxaropenik ez al daukazute?

— Illa edo bizia, orren amarik ez degu geiago emen ikusiko. Bestela, zuei abisua eman gabe emen utzi ta etzuen aldegingo. Aren borondatea ikusia dago: zuentzat laga, aurtxo orrekin nai dezutena egiteko. Nere iritzia ori da.

— Barkatu, baiña ondo ezkorra zera.

— Orren ezjakin ta arrunta ez da orren ama. Berriz etortzekotan, zuri edo neri abisatu gabe etzan joango. Etxe au ain urbil daukagulako, arek bazekien senar-emazte agorrek ortik aur asko eramaten dituztela, eta berea ere ez dutela azitarako utziko. Bein saldua, berriz, ura bereganatzen ez litzake erreza izango. Alare, eskertzekoa da ez duela aurretik eraman.

— Semetxoa il? Katamotza al da, bada?

— Beste zalantza gaizto bat ere badago errian: ez ote duen bere burua illa izango. Egoera tristean utzi zuen gaixoa bere amak. Inorako etzala geratuta, bakarrik ezin zezakean ezer egin. Baiña, egla esateko, geienok oraindik bizi dala uste degu. Berriz begien aurrean ikusteko itxaropenik gabe, ordea.

— Zuk, orduan, bere aizpa bezela, etzenduke jasoko?

— Len etxea ume txikiz betea daukat. Alare, neri utzi balida, artuko nuen. Baiña ez da ori aren borondatea.

Ez artzeko, au zan aizparen aitzakia.

— Orain uzten badezute, gero nai izateak alpe-  
rrik izango dira.

— Neronek ez banu, esker guziekin. Baiña ez det bearrik. Lengoak ere naiko lanak ematen dizkidate. Alare, badakit senarrak baietz esango lidakela. Baiña amak zerbaitengatik ez du guretzat utzi.

— Azitzen emen ere ez da oso erreza. Ederki ikasia daukagu ori.

— Eta zuen eskuetan gaizki geratuko al da?

— Ez al du zu baiña urbillagorik?

— Amona; onen amaren ama.

— Zuk deituko al zenioke?

— Bai. Baiña beldur naiz ez ote didan kopeta illuna jarriko.

— Amona bada, ura da lenengo.

— Baiña alabaren txirristada ez du irentsi oraindik, eta aurraren amak egin duenaren errurik geienak berak dauzka. Oso gogor ta sumiñez artu zuen. Ori fameli artako lotsagarria zala ta ez azaltzeko an geiago bere arpegira. Biali zuen. Aurra jaio arte, nik artu nuen etxean.

— Ori ez da ez ama ta ez kristau izatea. Aurra norena dan jakinta, legez beartua legoke jasotzera.

— Baiña ez du artuko. Ni beraren alaba naizen ezkeror, aren arrokeriak ezagutzen ditut. Eta esaiozu ez dala kristaua. Bere ustez, lurraren gaiñean ez dago piñagorik.

— Ez genduke, bada, auzitara joan nai.

— Ez orrelakorik pentsatu ere. Bestela, aurrak pagatuko luke.

— Eta non bizi dan badakizu?

— Ama non bizi dan ez ote det, bada, jakingo? Utzi nere esku. Deituko diot, arazo ontan bera da lenengoa ta.

Aurrari musu bat emanik, bazirudien onek lenagotik ezagutzen zuela, irripar gozo bat egin zion ta.

— Ez dakizu nolako naigabea ematen didan aizparen aurtxo maitagarri au utzi bearrak.

Pezeta batzuk eman zizkion, gaiñera, mojari.

— Bere ama bezelakoxea, dotorea dator.

— Apetitu ederrekoa da, beiñepein. Ez zenbait bezin jale mirgin ta negartia.

— Baliteke amonaren ondoan baiño obeto izatea, zenbait aurrik gabeko aberatsen batzuek artuko balute. Baiña tristea. Ez luke bere amarik ezagutuko.

— Zer egin ote du bere benetako ama Martinak?

Eta malkoak asi zitzaizkion bertako mojari.

— Iges, nere iritzian. Bere burua il duenik ez beiñepein. Aurra onera ekarri duenean, oso itxura ona da. Emendik aurrera ez dakigu nola biziko dan. Neska ederregia da ura, amabost urte besterik gabe bakarrik zuzen bizitzeko.

— Amonari deituko diozu orduan?

— Utzi ori nere kontu.

## Amonaren aitzakiak

**P**AULAK, bere seme baten bitartez, abisua bializion aurraren amonari:

— Fraisoroko mojak zurekin itzegin nai lutekela, eta ea mesedez lenbailen ara azalduko ziñaken.

— Aurtxoaren gora-beeragatik noski?

— Bai, amona. Amak esan didanez, ala izan bear du.

— Nik etzeukat arekin zer ikusirik —asarre samar erantzun zion.

— Bestela auzitara joko dutela esan omen diote amari.

Lenengo itxu-itxuan ukatu bazuen ere, gero beldurtu egin zan amona. Alare, Fraisorora joan baiño lenago, alabarekin itzegingo zuen, gertatzen zana-ren berri jakiteko.

Esan bezela, joan zan; eta, beren agurrak egin ondoren, ama-alabak etziran elkarrekin ondo konpontzen, eta azkeneko gertakariak etzuten asko berotu aien elkar maitasuna, etzuela amaren joera ori ulertzen esan zuelako.

— Zer abisu bializidan? —galdetu zion.

— Nik nere aldetik ezertxo ere ez. Fraisorotik deitzen zaituzte. Ni ere atzo an izan nintzan. Arazo kaxkarra sortu zaigu ori.

— Eta zer nai liteken?

— Nik aurra nai nuen galdetu zidaten. Ezetz; aur txiki asko neuzkala, baiña oraindik bere amona bizi zuela. Amak utzi zuen ezker, orduan zu zerala lenengo, aurraren jabe egiteko.

— Nik zer ikusi zeukanat or?

— Zalantzarik gabe zu zerala lenengo, ez aurtxo-arekin bakarrik, baita bere amarekin ere. Beste iru bat urtean, gaurko legeen arauera, zure mende dagoela ura.

— Orduan espetxera joan bearko diñat.

— Ez da olakorik. Aurra jaso nai badezu beiñe-pein, zu zerala lenengoa.

— Ik badakin, bada, ez detala nai.

— Bai gutxi gora-beera. Nere izen-abizenak neretzat balio dutela, ordea; ez zuretzako. Zu omen zerala lenengo. Zure eginkizuna dala ori. Nik esan nien etzenduela naiko. Gogorregia iruditu zitzairen nere erantzuna; eta, ez bazenduen azaldu nai, auzitara jo bearko zutela zema egin zidaten.

— Orduan, ni aurtxoa etxean artzera beartua natxion.

— Kristau on baten kontzientzira ta legez olako seme-alaben utsegiñak ordaintzeko, bai. Baiña indarrean ez det uste. Zure aurrakiko eskubideak betiko utzi bearko dituzu. Ama ez bada azaltzen, zu zera lenengo notarioaren aurrean.

— Oiek denak txorakeriak dituk.

— Eta alperrikakoak, gaiñera, borondate ona eduki ezker. Baiña mojatxoak ere beren eskubideak edukiko dituzte.

— Etzekiñat arako biderik, oraindik ez naun izan ta.

— Ez orrekin larritu. Nik lagunduko dizut.

— Eta nere alaba gaixoari zer gertatu zaiola uste den?

— Orixe da nere galdera ere. Bakarrik iges egiña izan liteke. Lagunarekin joana ere bai. Bere burua iltzeraiño, ez noski. Bestela, aurra etzuen bizirik utziko. Nere iritzi apala ori da.

— Orrenbesteraíño txoratzea ere, umea!

— Zuk etxe atari ontan esandako arrazoiak nola etzuten txoratuko? Zer erabaki artu etzekiela utzi zenduen. Musu bat ematera zetorren alabari, bere seme ta guzi, aurrean biali! Eta zu gorde ziñan orduko aldegin zuen emendik.

— Orduan, erri guziak bezela, nere juzkoa egiten den ik ere.

— Ortarako nere arrazoiak baditut, eta orregatik ez asarretu, ama. Zuk badakizu: amabost urteko neskaxa batentzat, izan duen erorikadaz gaiñera gaztetxoa, arazo oietan eskarmenturik gabea. Izutua eta lotsatua, bere aurraren gora-beerak nola konpondu etzekiena, eta itzetik ortzera etxeko lotsakizuna zala bere amak asarre bizian berari esatea, eta zure begien aurrean ez azaltzeko geiago. Dena barkatu ta maitasunez musu ematera zetorkizunari utzi ez. Aurrari ezta begiratu ere. Ala zegoen batek, amaren ezpáiñetatik arrazoi oiek entzunda, zer etzuen pentsatuko? Oraindik iñork egin etzuen pekatua zala ori. Errugabea izaki gaiñera. Iges egin bear, beraren berri etzekiten bazterren batera. Ezkutatu bere burua. Aldegiña bada, gaitz erdi. Noizbait nonbaitik azalduko zaigun itxaropena badet. Baiña ez nintzake batere arrituko bere burua galdua izatea ere. Eta, bizi bada, dagoen lekuan kristau bezela biziko al da? Erantzunik ez dakigun

galdera asko daude emen. Martina itxaropentsu zegoen: etxera joaten ez bazioten utziko ere, bere martxa esku artean zuela. Amak lagunduko ziola. Gero, purrustada aiek artu bear. Ez naiz batere arritzen aizpa gaixoak edozer egitea.

— Badakin nolako arrazoiak entzuten ditudan mingain txorrotzeko atso batzuen ezpainetatik? Arpegiko koloreak gorritzeraiño.

— Okerragoak entzun bearko dituzu, Kezka gaiztoak asi gaiñera.

— Utzi zaiogun arburio gaixto oni. Iskanbil zikin auek gure familira etorri bear ziteken.

Ama-alabak batera eta naigabetuak igo ziran Fraisorora. Baiña alabak antzeman zion amak aldaketa puska bat egin zuela; lengo arrokeriak joan zitzaizkiola, ura oroitu orduko malkoak asten zitzaizkion ta.

Etxea zaintzen zuten mojatxoekin batera, ikusi zuten etxe barrunbea. Beren amak ufzitako aurrak ere bai, txukun asko eta ondo zainduak. Lan ona egiten zuten erabat lagatako aurrekin.

— Auxe da Martintxo, oraindik txikia, zure billoba.

Alabak makurtu ta musu eman zion, amonari berdin egiteko eskatuz. Onek ere, malkoak zerizkiola, bi eman zizkion.

— Ai, ama! Len ori egin bazendu, orain Martina bere aurrarekin gure artean zegoen. Arek erruz supritu zuen. Orain guk suprituko degu.

— Bai. Bazekiñat ori. Baiña utzi nazan pakean, orain beranduegi den ta.

— Ama galdu dan ezkerro, aurra jasotzeko asmoan etorriko ziñan.

— Ez olakorik pentsatu ere, au ikusi ta amaz oroitzuz negar egingo niken ta.



— Baiña zure billoba ez al dezu geiago maite, olako mutiko zoragarria dator ta? —esan zion mojatxoak.

— Ez detala maite? Nork esan dizu ori? Pozik artuko nuke etxera. Baiña len esan detana: nere denbora guziko tristura izango nuke.

— Aur eder au utzi egiten dezute orduan?

— Amonak ez badu nai... Ni umez betea nago.

— Gero alperrik etorriko zerate onen billa. Bein norbaitek eraman ezkerro, arena da.

Aurakiko eskubideak utzita, berriro bina musu eman zizkioten; eta "Agur, Martintxo!" esanta, aurra mojen mende geratu zan, beartzen ziran senar-emazteak eramateko.

Aurtxoak etzuen, bada, bere artekorik iñor eza-gutuko. Beste batzuek artuko zituen aita ta amatzat, eta aiek maite.

## Jendearen berriketak

**U**RTEBETE igaro zan amak bere semetxo Martintxo, illebete eskaxeko aurrea, Fraisoron betiko utzi zuela.

Erria paketu zan. Sortu zituzten iskanbillak ere bukatu ziran. Bein begietatik galdu ezkerro, laster itzaltzen zaizkigu maiteen irudiak ere.

Baiña urte bete joan dan arren, jostundegian ez da oraindik neskaxa gazte eder ura aztu. Maiz darabilkite aotan, batez ere Joakinak.

Artaz oroitzean, malkoak asten zitzaizkion. Pekatuaren txabola ikustean, berriz, su emateko gogoa etortzen zitzaion.

Bizi ote zan? Non ote zebillen? Maiz egiten zizkion galdera auek bere buruari. Erantzuna palta, ordea.

Nonbaitik bere eskutitzen bat artuko zuen itxaropenik etzuen galdu. Bizi bazan beñepein, beratzaz oroituko zala.

Martinaren sortetxean, berriz, doña Joana, bere ama, *argi-oillar* ura, kezketan zebillen. Bere erruz galdu zan aurraren ama. Au, berriz, nai zuenak eraman Fraisoron utzia zegoen, baiña ezin aztu.

Malko oiek benetakoak zirala sinisteko, berriz, itxura kaskarra. Len alabaren aurka aritu ziran guziak, gero amonari eraso zioten. Baiña, poliki-poliki, erriko esamesak bukatu ziran.

Tarteka-tarteka erriko bateonbati oroitzen zitzaion, batez ere beretarrekoren bat karrikan ikustean.

— Aizu, doña Joana: bai al dezute alabaren berririk?

Amonak ondo zekien galdu zitzaion alabarengatik egindako galdera zala. Baiña berritzeak min ematen zion.

— Lau ere baditut. Norengatik ari zera?

— Iru egunero ikusten ditugu emen. Martina, galdu zan gazteenarengatik ari natzaizu. Lagun maitea nuen nik ura.

— Ez dakigu ezertxo ere. Amaika kezka ematen dizkidana.

— Bai. Zuloren batean or egongo dira aren ezurak. Bestela, nonbaitik azalduko ziran aren berriak, lagun maiteak bazituen emen ta.

— Guk ezer ez dakigu, eta betiko galdera orrek samindu egiten gaitu.

Eta aurrera jarraitzen zuen, umore txarrekoa.

Gazte orrek berak geronekoan egin zizkion Joan Joxeri olako galderak; eta onek, oraindik naigabe-tuak, ala erantzun zion:

— Martina gaixoa erori bazan ere, ez bere borondatez, nere iritzian. Larrutik ari dek pagatzen, bizi bada beiñepein. Ez diagu ezeren berririk. Semea ere eramango ditek aurki Fraisorotik, eta kito emen jolasean ikusten genuen neskatxa goxo, alai, eder aren oroitzak!

— Izan ere, gogor artu zenuten Martina gaixoa. Besteak ere erortzen dituk.

— Batzuentzat, ordea, ez dek munduan beste pekaturik. Gure amaren arrokeriak edo itxura egin naiak; or etzegok besterik. Orain or zebillek kezka bete, aren argakia ikusi orduko negarrez, olakorik egingo zionik ere etzuela pentsatzen esanaz, benetan damutua; “Zer egin ote du nere alabatxoak?” bere buruari galdezka.

— Bere burua galdu ote du, bada, arek?

— Etzekit, motell, zer pentsatu, len ere doi-doi salbatu nin ta. Baiña aren berririk ez diagu geroztik, eta urtebete joana dek.

— Eta semea laster eramango dutela ez diok?

— Len ere esan dit. Fraisoron zegok aurra, amonak erabat utzia, erostunik baldin badator ari saltzeko.

— Zergatik ez dezute etxera ekartzen?

— Amonaren aitzakia len au uan: etzuela pekatuaren fruturik etxean sartzen utziko. Orain, semea ikusiko balu, alabaz oroituko litzakeala eta asko suprituko lukela. Baiña semea or zegok Fraisoron, nai duenak eraman.

— Balitekek arrebak bere bizia galdua izatea ere. Gorri jarri zitzaiokeen bere etorkizuna. Ortaz gairera, etxetik biali. Zer egin bear zin arek, gaixoak, bakarrik? Nolako ondorena izan duen garbi esateko etzekiagu.

— Amonaren arrokeriak. Ezin nezakek bestela itzegin. Baiña aren semea arrotzak eramatea ezin diat irentsi. Gure pekaturik aundiena ori dek, nere iritzian. Au dek, au, gure etxerako lotsa; ez aren etorkizuna. Amaika aldiz esan zioat onuzkero ori bere amonari: “Martintxo ekatzu etxera. Emen, bes-teen artean, ederki aziko da, gurea balitz bezela. Danentzat naiko lekua badago emen”. Baiña ari esan, edo aurreko arresi orri, berdin-berdin dek. Guk baiño aur premi geiago daukatenak izango dituk, eta eraman dezatela. Orrela ez dek pekatua-

ren fruturik sartuko gure etxean. Ori pekatu izugarritzat zeukak, eta alaba bere burua galtzeko arraixkoan jartzea ez. Aizunkeriak dituk oiek danak.

— Ez dezute, orduan, Martinaren berririk.

— Ezta izateko itxaropenik ere. Baiña erri ontan aztua zegok ori dana. Oroitzen naizen bakoitzean, beraren ama zetorkidak gogora. Ezin ulertu dit zer dan batzuen kristau izatea.

## Amerikar batzuk

**T**ARTEKA-tarteka Ameriketa aldetik azaltzen ziran euskaldunen ondorengoak, an jaiokak baiña asaben erri xaarra ikustera etortzen ziranak. Neri ere egin izan dizkidate olako galderak. Baita erakusten zuten lekura joan, aiek aipatutako base-rria billatu ta beren arbasoen tarrak arkitu ere.

Aurrik etzuten senar-emazte batzuk etorri ziran, emendik ara joandakoen ondorengoak. Urte batzuk ezkondu zirala, baiña etzuten ondorengorik; eta iza-teko itxaropenik ere ez.

Antziñakoen lurra ikusiz, ea bere amak utzita-ko aurtxoren bat billatzen zuten, asmo orrekin etorriak.

Norbaitek erakutsi zien Fraisoroko bidea: olako-ak an izaten zirala, ta Euskal-Erriari bixita egin baiño len joan ziran etxe ortara. Mojatxoak lagun-  
duz aur guziak banaka-banaka aztertu ondoren, Martin txikia aukeratu zuten.

— Onetxekin geratzen gera.

Aberats-aberatsak ez baziran ere, ordain be-  
rrak etzituen atzeratu. Benetan atsegin izan zi-  
tzaien mutikoa.

— Au gorde zaiguzute. Antziñakoen lur oni buel-taxka bat eman ondoren, etorriko gera —eta agurtu ziran.

Aiek eraman baiño len, izeba Paula ta amona deitu zituzten Fraisorora, aurra nola zeramaten jakiñaren gaiñean jartzera: amerikar batzuek eraman nai zutela, eta ea ezeren eragozpenik bai ote zeukaten.

Biak ezetz zioten. Amak utzi zuen ezker, seme-rik gabeko senar-emazte agorrentzat etzala gaizki etorriko. Baiña biak joan ziran ikustera, azkeneko musua emanaz.

— Agur, Martintxo. Etzaitugu noski geiago ikusiko; eta, bizi bada, zure amatxok ere ez. Zorionekoa izan zaite, zureak ez diran gurasoekin.

Mojak esan zuten, naiko larrituak joan omen zirala.

Martintxo aukeratu zuten, bada, senar-emazte aiek. Ezkondu zirala, sei urte igaroak zituzten. Baiña ankagorririk etzan azaldu. Eta izateko itxaropen aundirik etzuten, oraindik gazteak baziran ere.

Emaztea, urte batzuk Baztanen igarotakoa, emengo berri ondo zekiena. Amaika aldiz Baztango mendietan ardien atzetik lasterka ibilitakoa, bere osaba ta lengusuen artean. Euskeraz ere ondo zekien, emen ikasia. Urteak Ameriketara zeramazkien arren, oraindik ondo itzegiten zuen.

Senarra ere Ameriketara jaioa. Gipuzkoarra beraren aitona. Onak etzekien euskeraz, bere aitak etzekien ta.

Euskal-Erriari beren ikertxoa eginta, etorri ziran aurraren billa. Berrero musu bana emanik, onela zioten:

— Au da aurraren ederra! Gorputz egokikoa. Au uzten duena ere bada norbait. Onen begiratu goxoa!

Mojatxoak kontatu zieten gertatu zana.

— Orduan ez da batere arritzekoa. Guk maiteko degu, bada.

— Eta zer moduzkoa iruditu zaizute zuen gurasoen aberri xaar au?

Arrituak zeuden, baiña naigabe bat zeramaten, batez ere emazteak. Arek lendik ezagutu baizuen.

— Ez degu ezeren aurrerapenik somatu. Emendik joan nintzan bezelaxe dago oraindik Euskal-Erria: bide zaarrak, astoz lanean eta abar. Baiña ikusmira batean zoragarria da aberri xaar au: zelai berdeak, baso bikaiñak, baserri sakabanatuak mendiak zear ketan, oso atsegiña zaigu emengo giroa. Baiña oraindik oso atzeratua dago.

— Eta zer uste dezute: aurrerapenak edertu egingo lukela?

— Aurrerapenak bizimodua erreztuko luke; baiña bere edergarri asko galtzeko arraixkoan jarri ere bai.

— Eta berriz alde auetara etortzeko asmorik bai al dezute?

— Negozioak-eta ondo badijoazkigu, zergatik ez?

Eskerrak emanaz joan ziran, besteren aurra diruz erosi ta beren semetzat artuz.

Orra amonaren erruz Martinaren seme sasikoa betiko nola galdu zan.



## Mutil zaarra

**U**RTE bete igaroa zan Martinak bere seme sasikoa utzi ta iges egin zuela. Oraindik iñork etzekien aren egoeraren berri. Bere errian beiñepein amaika iritzi eduki zituzten. Alare, ori ezkutan zegoen.

Gertakari ori aztu zan, bada. Etxean noski iñoizka oroituko ziran aren urtebetetzeetan eta olako egun barezi batzuetan.

Ama, beiñepein, maiz ikusten zuten alabaren argazkia eskuan zuela, negarrez.

Joan Joxe, etxera ezkonduetako semea, erraiña ere berdin, beldurtu samarrak zebiltzan amak ez ote zuen bere burua ondatuko.

Argazki ura kentzea ere pentsatu zuten. Baiña orduan zeru-lurrak aizkatuko zituen; eta, obe bearez, pakean utzi zioten.

Jostundegian Martinaren argazki bat zeukaten jarria, neska nola galdu zan jartzen zuena. Egunero aurrean aita gure bat errezatzen zuten aren alde. Tarteka-tarteka lore xortaren bat ere jartzen zioten bere lagunak, jostundegian maitea zan, bada, gazteena zalako ere. Ain zoritzarreko ondorena izan zuen gaixoak. Berriz ikusiko zuten itxaropenik ez.

Baiña erria, amets gaizto bat bezela igaro eta aztua zegoen. Norbaitek berritu zezakean “Non ote dabil gure Martina gaixoa?”; baiña besterik ez.

Arkiri, Martinaren sortetxea, ur-erreaka baten urbil zegoen, beraren barrutiak bi erdi egiten zizkiola.

Errian arrizko zubia zeukaten egiña. Arkirikoak zama aundiak andik igaroko zituzten, baiña bide-galdu aundia egin da gero.

Erreaka zakar ori aldapa beera zetorren, ibai aundira sartu bitarte txikiagoak etorritz indartzen zutela. Orrela, gero ta aundiago azitzen zijoan, ibaia osatu arte. Baiña Arkirikoak zurezko zubia zeukaten egiña bide laster bezela, zugaitz eta txara zartak artetik. Zubi ura eiztariren batzuentzat besterik etzan ezaguna.

Beren gora-beera guziak, berriz, andik zerabilzkiten etxeakoak.

Joan Joxek egunero ikusten zuen norbait andik igarotzen, eta susmur txarra artu zion, ez ote zan bere arreba Martina beartu zuena izango. Mutil zaar ura alegia, bere eultzara zetorren erlemandoa.

Gizon aundi bat, bere burua bizar ta illez betea, trikua zirudiena, ibili baldarrekoa, erren pixka bat ere egiten zuena. Baiña oraindik etzan oso zaarra.

Begitan artua zeukan Joan Joxek. Berrero azaltzen bazan etziola barkatuko, lagunaren artean amai-ka aldiz esana.

Susmurra zuena izan ote ziteken laster ikasiko zuen. Alare, bitartean erne zebillen, beste gizarajoren bat aren sarean erori baiño lenago.

Bere emazteari galdetu zion:

— Ikusten al dezu gure zubitik dijoan gizon baldar ori?

— Bai; ta zuri esateko nengoen. Oso susmur txarra artzen diot, ez ote dan nere koiñata maitea beartu zuen gizon kaskaillu ura izango.

— Neronek ere zalantza gaizto ori daukat. Atzo, gaiñera, txabolara sartu zan, erlemandoa bere eultzara bezela.

— Salatu egin bear al dezu?

— Bai orixe. Ni ez naiz goardiazibilletara joango. Baiña Joakinari esango diot, zoritxarreko bere lagun Martina ondatu zuen ura emen dabilhela. Bera arraixkoan geratzen dala, ta erne ibiltzeko. Jakiñaren gaiñean jarri, alegia.

Bazekien neska au noiz etortzen zan jostundegitik, eta beraizik errian itxogin eta andik etxeraiño neska ta biak elkarrekin etorri ziran, erlemando ori emen zebilela eta erne ibiltzeko aolku emanaz.

Joakinak eta maixtrak, berriz:

— Egia al den ori?

— Martinaren anaiak kontatu dit.

— Beste olakorik gertatu ez dedin, nik bear dan lekuan salatuko diñat.

Bai esan ta egin ere; eta jostundegian denen aurrean esan zuen erne ibiltzeko.

Egunak baziran gizon aundi ura ia egunero zurezko zubitik igarotzen ikusten zutela.

Guardiazibillak jakiñaren gaiñean jarriak zeuden. Erne zebiltzan eta bein, txabolan sartzan ikusi zutenean, bertara joan ta kargu artu zioten.

— Zer egitekorik daukazu zuk emen? Ia egunero ikusten zaitugu.

— Eta zeinek galerazi bear dit?

— Agian guk. Orain urtebete emen zer gertatu zan ez al dakizu?

— Ez badidazute garbiago esaten...

— Zu bezelako gizon zikin, burua ta arpegia ille-bizarrez estaliak zeuzkan gizon baldar batek, neskatxa gazte eder bat beartu zuen.

— Eta nik orrekin zer ikusi daukat?

— Esan ez dizugu zu bezelako gizon zakar bat zala?

— Ni ez naiz aurten arte onera azaldu.

— Gezur biribilla diozu. Igaz ikusi ziñutenak, ura bera zerala esan digute. Oraingoz barkatzen dizugu; baiña mesedez, etzaite inguru auetara azaldu. Bestela, zure bizia arraixkoan geratuko da. Emendik ez bazera joaten, bertan garbituko zaituztela dio erriko jendeak.

— Nik eskubide osoa daukat nai detan lekuan ibiltzeko.

— Orixe galeraztera gatoz, bada. Gu, epailearen aginduz, zu emendik bialtzera etorri gera.

Eta aurrean artu ta ateratzen asi ziran.

— Ortarako ez dago eskubiderik eta ez nauzute bialiko!

Eta gogor egiten asi zan. Ez leku txarrean, bi gizaundi gazteren aurka.

Bizar aundia, bada, gaizto jarri eta lenen eldu zionari begiondoko bikain bat eman zion. Baiña ordain garestiak kobratu zituen. Besagain batzuk epelak eman zizkioten.

Joan Joxek dena ikusi zuen, eta bere kasa ala omen zion:

— Nik ez dakit ondo egiten duten edo gaizki. Baiña oiek ere beren eskubideak izango dituzte. Beren buruak babestu besterik ez dute egin.

Bi masaillak gorri-gorri zituela, eta bi eskuak lotuak, bota zuten txabolatik.

Joan Joxek, artara ikusi zituenean, “Ondo egiña! —zion berekiko—. Lenago ondo atera zitzaikelako, beste inoxenteren baten billa al entorren? Nere eskuetan erori baintz, beste orrenbeste egingo nin”.

Errira eraman zutenean, andik esku lotuekin tranbean eramateko, orra non bat-batean jostunak lanetik ateratzen diran. Ura an lotua ikusi orduko, oiu egin zuen Joakinak:

— Ori da, ori, gure Martina beartu zuena!

Etzuen bi aldiz esan bearririk izan. Neska sail ura guzia gaiñera zetorkion, bakoitza al zuenarekin, baita maixtra bera ere, guardiazibillak izutzeraiño; eta etxe batera sartu bear izan zuten, mutil zaar ura salbatzezkeroz.

Orduan ere neskak itz gordin askoak esango zituzten. Baiña, ori gaur gertatu balitz, etziran goxoagoak izango.

— Zer diozu orain? —galdetu zioten guardiazibillak.

Mutil zaarrak etzuen itzik trukatu.

Erlemandoa noski betirako ezkutatu zan, eta lasaitu ziran jostunak.

## Martina

**A**INBESTE aldiz aipatutako Martina, errian alako naigabe ixil bat utzita galdu zana, egoera triste artan ainbeste iseka bere lagunak egindako neskatxa alai, goxo, eder ura, bizi zan oraindik. Etzuen, askok uste bezela, bere bururik galdu.

Len esan bezela, Fraisoroko ateetan semea utzi ta aldegin zuen andik, norbaitek ikusteko beldurrak, atzera begiratu ere gabe, damutu ta berriro aurtxoaren billa etzedin etorri.

Baiña leku segurura ezkutatu zanean, Madalen batek bezela negar egin zuen. Aurtxo ura utzi bearrak biotza lertzen zion.

Ordurarteko gora-beerak gertatu zitzaizkion bezela, biak suprituko zuten; eta edozer astakeri egiteko zirikaldiak ere bai, moztuko zituen orrekin.

Orrela, Martintxo leku seguruan geratu zan. Bai-baizekien lekaiameak maitasunez beti zainduko zutela. Baiña berak supritu bearko zuen bere bizi-modua ateratzeko, eta erlemandoetatik bere burua zaintzeko.

Oraindik gaztea zan, eta askatasunean etorkizunak irripar egiten zion. Aixa aterako zuen bere

burua mantentzeko aiña. Baiña naiko eskarmentu eman zioten.

Bere burua iltzeko zorian ibili zala oroitzean, izu laborreak lotu zion biotza. Jainkoak libra zezala aurrerantzean olako zirikaldietatik. Biziak bazituen alderdi txarrak eta onak, batez ere sinismenak erakusten digun geroko itxaropenarekin.

— Ikaragarria egin nuen ia. Eskerrak koiñata eta anaiari.

Bazekien bere igesak geiena aiek naigabetuko zituela.

Exeri ta gertakari auek ausnartuz negar egin zuen, zerbait lasaitu zan arte.

— Zer egin bear det nik orain?

Ori zan bere buruausterik larriena.

Sakelak utsak zeuzkan; lantegi ta etxerik etzeukan; norabait laguntza eske urbiltzen bazan, bere burua arraixkoan jarriko zuen.

— Nai duenak pentsa dezala nai duen bezela. Baiña semea utzia ez det ondo egin. Baiña nai ta nai ezkoa.

Beste norbait bere lekuan arkitu balitza, berdin egingo zuen. Eziñaren lanak.

— Utzi nauten bezela, nik ezin nezakean ezer egin. Nere aizpa Paulari utziko nion.

Baiña aren seme-alabak berea baiño azixeagoak ziran, eta aiek tratu txarra emango zioten kezka. Olakoak besteen famelietan gaizki ikusiak izaten baidira.

— Nere ustez, lekurik seguruenean utzi det aurra.

Nolako martxa eman bere bizimoduari pentsatu bearra zeukan, eta erabaki bat artu baiño len eragozpen bat zeukan larria: gurutze gorri bat zeukala

bekokian idatzita, bere pekatu edo utsegiña. Orre-  
gatik, ate guziak itxita arkituko zituen.

Zergatik zebillen orrela aitortu gabe, etzuten  
artuko; eta ori berarentzat lotsagarria zan. Amasei  
urteko neskatxa bat etxetik igesi zebillela jakinta,  
zer etzuten esango?

Zetorrena zetorrela, askatasunean bere bizimo-  
duari arteera on bat eman nai zion; baiña garbi.



## Lurdesa

**M**MARTINAK bazituen Errenderian osaba-izebak, au bere amaren aizpa; eta zutitu ta txuxenean aien etxera joan zan. Beren besoetakoa zuten, eta maitea.

Ordurako bazekiten berari gertatuaren berri, bi lekutatik ikasia. Bai alde ederra batetik bestera. Amak, pekatutik pekatuta zebillen neskatxa galdu bat bezela kontatu zien. Indarrean beartu ta egingdako lana zala, berriz, Joan Joxek.

Amaren berri bazekiten eta illobari sinistu zioten. Baserriko neskak, batez ere orren gazteak, etzeudela oraindik ain galduak.

Beso zabalik artu zuten, eta etzioten zer gertatu zitzaion galdetu ere. Berak kontatu zien guzia, anaiak esan bezela.

Egun batzuk igaro zituen bertan. Mesedez, etxera ez abisatzeko, bestela agian amak arrapatzeko ertzaiñei abisatuko ziela ta.

— Or konpon! Gu ez gaitun ixpiak. Orduan, aurra utzi egin den?

— Geratu naizen bezela, nik ezin nezakean, eta berak etzuten artu nai.

— Gero, santuak jazten ariko dituk.

Bost egun atsegiñak igaro zituen. Diru mordoxka bat ere eman zioten, eta Lurdesko bideak artu zituen.

Martinaren asmoak auek ziran: Lurdeserako aitzakitan, an inguruan bizi ziran osaba-izeba batzuen etxera joan, billatzen bazituen beiñepein. Ez baizekien non bizi ziran. Arpegiz ere etzituen ezagutzen.

Baiña bazekien bere amarekin etzutela artu-emanik. Onek etzituen, bada, bere begikoak; eta, Lurdesa joaten zanean amarekin batera, etzion bein ere aien berririk emango.

Osabak aita zanaren anaia izan bear zuen. Ordurako agian jakingo zuten illobaren zoritxararren gora-beeren berri.

Aita il zanean, etxeko ondarearen arazoa izan bear zuen guzia. Bere amak, beiñepein, beti gaizki itzegiten zuen Frantziko osaba-izebatzaz.

Martinaren berri ikasi bazuten, Paulak edo anaiak esanta izango zan. Baiña ikasiko zuen besteren baten lana zan edo ez.

Orain, beiñepein, lenengo Lurdesa joango zan. An ondo pentsatuko zuen nolako ta norako bidea aukeratu.

Bazekien urrengo eguna igandea zala eta Donostitik egundoko erromeria egingo zutela urtero bezela. Gipuzkoako eliz-barrutiak antolatutako erromeria, gaiñera. Aiekin batera joango zan Lurdesa, eskerrak emanaz gaiñera, Ama Birjiñari ordu estu aietako laguntza eskatzera.

Baiña urduri zijoan, ezagunen batzuk arkituko zituen beldurrak. Sagua katuaren igesi bezela zebillen, erne asko, ez baizuen non zebillen iñork jakiterik nai.

Ango berri ikasia zan. Ia urtero egiten zuen txango ori, bere amarekin batera, zazpi urte zitue-

neko asi ta ezeren okerrik ez bazan beñepein. Aurtengoan bakarrik eta aske egingo zuen.

Ori dena, indarrezko erorikada billau ura baiño lenagotik. Benetako maitasuna zion amak garai zoragarri aietan. Etzuten orduan aren begiak Martinatxo besterik ikusten. Baiña zoritxarrean ezagutzen da baten biotzaren berri; benetan nork maite duen, anaiak ederki erakutsi zion bezela. Musu gutxi, baiña beartzean lagundu.

Ordu zoragarri aiek gogoratuz, ala zion berekiko Martinak:

— Martinatxo, nere biotzaren zatitxoa —esango zidan amak, musuka jan bearrean—, Lurdesa joango al gaitun?

— Bai; pozik gaiñera, amatxo —eta ni jauzika asiko nintzan zoriontsu.

Beste seme-alabak etxean utzita, biok joango giñan.

Bidean topatzen genituen guziei nitzaz itzegingo zien, nere doai ta graziak aupatuz. Ni nintzan etxe-ko aingerua, beste guziak kanpora aldegitia.

Au etzan egi osoa. Joan Joxe etxera ezkondua zegoen; eta, eskerrak oni ta bere emazteari, base-riak gorakada aundia egin zuen.

Ni nintzan bere biotzaren atsegiña. Senarra il zitzaion ezkerro, bere bakardadea alaitzen niona. Ori ez dakit egia dan; bere jostailua beñepein bai, amalau bat urtera arte.

Andik aurrera, nik ere askatasuna nai nuen. Alare, ura beti berean zegoan. Iritzi estuak sartu nai zizkidan; baiña etzuen iritxi. Ni aske-zaleago, alaiago ta jostariago atera nintzan, Gorputzean bakarrik det nik amaren antza.

Bere antzeko lagunetara biltzean, bere itzaldia etzan besterik: askatasun geiegia zegoela gizartean;

gaztedia arrotzen ari zala; eta, ori ez bazan mozten, eskandalo ikaragarriak ikusteko geundela.

Mutillekin jolasten ikusten baniñun, batez ere elkarri elduta, oraindik biok umeak izan arren, serio-serio erritan emango zidan, eta ez nuen bere errita eraso ori zergatik zan jakiten. Jolastea etzidan galeraziko. Bai, ordea, elkarri elduta.

Ordurako naiko buruausteak ematen nizkion amari, dantza lotu zikin ortan ez ote nintzan naastuko. Ortan zebiltzanak, bere iritzi estuan, deabruak ziran.

Orduko goxotasunak aztuta, bat-batean ala dio:

— Orra egun batetik bestera gure zero txikia itxi!

Orain etzeukan amak neretzat alako goxotasunik. Ni lengoa nintzan.

Ezin ulertu zuen amaren aldaketa negargarri ori. Baiña Martinari azkeneko oroipen triste auek negar egin arazten diote. Munduan geiena maite duena ura izaki ta aren igesi ibili bear!

Lurdesa joango zan, bada; baiña bakarrik. Ama Birjiñari eskerrak eman nai zizkion, eta laguntza eskatu. Eta, bitartean, bere lagun ta adiskideak sekula billatuko ez duten lekuan ezkutatu.

Oldozpen auek buruan zerabilzkiela, Lurdesa joateko agiriak ateratzera urbildu zanean, bere ezagun bat ikusi zuen an, artzeko zai zegoela; eta, ura andik joan zan arte, etzan azaldu.

Anaiak eta osabak emandako dirua bazeukan oraindik. Arekin ordainduko zuen txango ura. Ezeren eragozpenik gabe igaro zan mugatik beste alde-  
ra. Andik aurrerakoa egiña zeukan.

Agur egin zion, bada, bere ustez betiko, Euskal-  
-Erriari.

## Ezagunen iges

**L**URDESEN berri geienok badakigu, nolako joan-etorriak egiten dituzten, Ama Birjiña agurtzera.

Guda aurretik, eta bere ondoren ere bai urte batzuetan beiñepein, neroni ere txango bat baiño geiago egiña naiz.

Ia urte guzian, baiña batez ere udara aldean, kristauak Lurdesako joera aundia daukate. Ez da erromes paltarik izaten. Ez emendik bakarretik, mundu guzitik baizik; eta ezagutzen degun erririk aipatuenetako bat bera da. Ain ezaguna eta entzuna dan ezkerro, ez daukagu zertan ari bearrik beraren izena goraiipatzen.

Egun artan Lurdesen jendetza bildurgarria bildu zan, bada. Gipuzkoatik ezik, baita Alemanitik ere etorriak baziran.

Izkuntza guzietakoak zebiltzan ara-onera egurasten, karrika eder aietan. Ardangela ta gaiñerako dendak, estanpa ta beste oroigarri saltzailleak, egun oietan izaten zuten naiko lana. Bai mauka erreza ere.

Joandako geienak bazeramaten andik orogarriren bat ekartzeko asmoa, agian etzirala geiago azalduko ta. Nik, izaten naizen aldiero, zerbait ekartzen det. Irabazirik ez dakarren lekuan ere ibiltzen da jendea.

Martina ere an zebillen; baiña gutxi begiratzen zion ango sal-erosketari. Beste buruauste larriagoak zeramazkien berekin. Baiña, lenengo, Ama Birjiña azaldu zan lekura joatea izan zan.

Jendez gaiñezka zegoen ura, enda guzietakoak. Nola edo ala sartu zan barruraino. Ama Birjiñaren aurrean belauniko jarriz, biotz-biotzez egin zizkion bere eskariak, eta azaldu ere bai bere kezkek, eta gaizki egindakoen barkamena eskatu.

Bere amaren alde ere otoitz egin zion. Ordu artan, bere lagun guziak ere gogoan zeuzkan. Eta nola ez Fraisoron utzi zuen semetxoa? Berarentzat eziña zan ezker, zaintzeko maitasunez ura.

Amak zerbait ona erantsi zion alabari: sinismen bero bat. Bera zebillen bezela garbi irauteko, zerbaiten bearra izango zuen.

Donostitik joandakoak meza zuten Ama Birjiña azaldu zan zulo artan. Gotzai jaunak ospatzen zuen. Itzaldi labur bat ere bai bi izkuntzetara, euskeraz eta erderaz egiña. Abestiak, berriz, denak euskeraz.

Martina laster zan egundo olakorik entzungo etzuen lekuan. Beraren belarriak abesti berrietara oitu bearko zuten.

Ezker aldera eta ia bertan etzuen, bada, jostundegiko maixtra ikusi? Ura aren larria! Poliki-poliki atzeratu zan, eta laster aldegin zuen andik, baiña berriz etortzekotan. Atsegiña zitzaion txoko ura.

Egoartea geldi-geldi bazijoan. Martinaren goseak etzeukan txantxarik. Zerbait artu zuen, baiña ezer gutxi. Diru-poltsa ere zimurtu zitzaion.

“Igesi egitea erreza den —zion berekiko—. Baiña orain nora joan bear den? Nik emengo mintzaira etzekiñat; eta eskean astea, berriz, arraixko txarrekoa neretzat”.

Joan zan berriro Ama Birjiñaren aurrera. Donostian bizi ziran osaba-illobak ari ziran beren fameliekin errosarioa errezatzen. Estu zan, baiña aiek ikusi gabe aldegin zuen andik ere.

Ibildeuna, prozesioa, atera zan elizatik. Gure Martina, ia zer erabaki artu ezin asmaturik, saillean sartu zan. Begira ere jende asko zegoen. Bai aguro Martina oartu ere berari begira-begira jartzen zirala batzuk; eta etzituen bere ezagunak. “Besteak ez bezelakoa ote naiz, bada, ni?”

Begira zeuzkanak senar-emazte batzuk ziran. Ez bazuten ezaguna ere, aiek antzeman zioten gazte ura nor zan.

— Aizazu, Pello —zion emazteak senarrari, egunerokoak zekarren argazki bati begira eta gizonari erakutsiz—: or dagoen neskaxa eder ori ez al da gure illoba?

— Martina esan nai dezu? Etxetik iges egin duena?

— Bai; uraxe berbera.

— Jantzia beiñepein berdintsua darama.

Gipuzkoako egunerokoak lenengo orrian zekarren neskaren argazkia, nola galdu zan, txeetasun batzuekin.

Etziran orduan itzegitera ausartu. Ibildeunean beraren atzetik jarri ziran, obeto ezagutzeko.

— Zalantzarik gabe, gure illoba Martina da —zion senarrak—. Bere amaren antz aundia dauka. Amasei urterik ez ta etxetik iges!

— Neskaxa bikaiña da —zion emazteak.

— Onen ama ere emakume bikaiña da gorputzez; baiña aukeran arroegia.

Ibildeuna bukatu zanean, emazteak Martinari argazki ura erakutsi zion, aldamenean zeukan senarrak bizkarrean ukuituz.

— Kaixo, Martina! Zuk ere gaur emengo aldi?

Alako dardara bat egin zuen neskak. Uste gabe-ko arekin larritua, iges egin nairik asi zan; baiña etzioten utzi.

Burua makurtu zuen eta malkoak asi zitzaizkion, galdu zala pentsatuz. Etxera abisatuko zuten; eta, ertzaiñen erdian, atera zan baiño lotsatuago joan bearko zuen berriro etxera.

— Argazki orrek ezer jartzen al du?

— Ezer gutxi.

— Amaren lana izango da. Ez du egirik jarriko, ez.

— Lau edo bost egun auetan etxetik palta zerala: ez du besterik jartzen.

— Alare! Ez da orduan amaren lana. Nere anai-arrebak jarriko zuten.

— Beste bide batetik ikasi degu gertatzen zai-zuna, eta zuretzat ez batere umilgarri. Zure Errenderiko osabak abisu biali digute, zu Lurdesen izango zerala ta, al badegu, etxean artzeko. Bestela, bizimodua ateratzeko, txakur bat bezela bizi bearko dezula. Beste egitekorik gabe, zure billa gatoz.

— Nor zerate, bada, zuek?

— Frantzian bizi diran zure osaba-izebak.

— Eskerrik asko. Bazter guziak enredatuko ditut nik.

— Lasaitu zaite, Martina. Ni zure aitaren anaia naiz. Orrela bazabiltza, atoz gurekin. An lasai-lasai pentsatuko degu zer erabaki artu. Nik errian aginte pixar bat badaukat. Ea lantegi on bat billatzen dizugun.



— Ni pozik geldituko nintzake zuekin, baiña emen nagoenik ez abisatzekotan. Ez det egundo nere amaren konbentu santu artan bizi nai.

— Aspaldian ez degu aiekin artu-emanik, aserre ez bagaude ere. Zure aita il zanean, nere senide partea ukatu egin zidan zure amak, eman bearra etzan ikaragarria baiña. Orduan, aurra ere utzi egin dezu.

— Zer egingo nuen, bada? Oraindik amasei urte bete gabeak; etxetik biali; lanik ere ez nik. Amak, etxetik bialiagatik, lagunduko zidala uste nuen. Bi edo iru aldiz madarikatu niñun, fameliko lotsa nintzala. Fraisoron geratu da. Nik baiño obeto zainduko dute an. Supritzen baiño, obe det askatasunean nere bizimodua atera.

— Ondo dago. Atoz gurekin orain, ostatuan bazkaltzera; eta gero elkarrekin joango gera. An ondo pentsatuko degu zurekin zer egin gentzaken.

— Baiña, mesedez, ez abixurik biali. Igesi egingo det, bestela.

— Itzekoak gera. Abisatze ori zure esku uzten degu.

Bazkaldu ta aiekin batera joan zan. Biak euskaldun garbiak ziran.

Uste gabeko atsegiña! Eskerrak Errenderiko osaba-izebei. Poztu zan Martina. Orain etzuen eskean ibili bearrik. Beretzat arraixko txarreko lana zan ura.

Martina zoriontsu etzan noski. Ezin kendu zuen bere seme Martintxoren oroitza burutik. Nola ote zegoen? Oraindik aurtxoa zan eta urte pareren baten buruan etzuten eramango noski. Orain zan lekuan ondo zegoen. Ederki aziko zuten ura, berriz, zekiela beiñepein ikusiko zuen itxaropenik ez bazeukan ere. Baiña, zegoen egoeran, ezin ziteken oso zoriontsu arkitu.

Beste aldrebeskeri bat ere bazeukan: frantzesez etzekiela. Osaba-izeben etxean etzuen bearrik. Biak ondo zekiten euskeraz. Lana billatzeko, ordea, askoz zaillago. Urte batzuk, beiñepain, tristeak pasa beariko zituen.

Oldozpen auek buruan zerabilzkiela sartu zan osaba-izeben etxera.

## Osaba-izeben etxean

**A**NGO ormetara begiratuz, arritua geratu zan, aietatik zintzilik zeuden lauki edo koadroak ikusita. Martinak atsegiñez begiratzen zuela lauki aietara igerriz, ala galdetu zion bere osabak:

— Jakin nai al zenduke argazki oiek norenak diran?

— Bai; ta pozik gaiñera, erakusteko betarik badaukazu. Gure etxean ez dago gurutze ta santuen irudiak besterik. Jakiña, ori ere ondo dago. Ezin gentzake txartzat artu. Kristau sinismendunak gera. Baiña gure aurrekoak ezagutu, goraipatu eta aiengatik otoi egitera, ondo ezik, beartuak ere bagaude.

— Lenengo emen ikusten dituzunak zure aita eta ama dira, ezkonberriak. Bikote ederra egiten dute. Ama dotorea dezu. Onuzkero kaskaildu samarra egongo da, gorputzez batez ere. Arpegiz ez dago gaizki. Baiña oñetatik dabil eziñean. Bere aldameneko ori nere anairik zaarrena da; ni jaio nintzan baserrira, zure ama danarekin ezkondu zana. Ezbearrez il zan gizarajoa, oraindik gazterik. Segan ari zala, tximistak erre zuen.

— Nik ez nuen ezagutu. Ni jaio ta bereala il zala uste det —zion Martinak.

— Emen, berriz, zure anai-arreba guziak. Baita zu ere, amaren besoetan. Ordurako, ikusten dezu-nez, zu ez besteak kozkortuak ziran. Gazterik geratu zan, bada, zure ama alargun. Emen dauden bi auek nere gurasoak dira: zure aiton-amonak.

— Izan nituenik ere ia ez nintzan oroitzen. Gure sukaldean ez da antziñakoetaz itzegiten, eta ori ez dago ondo.

— Beste bi auek zure aiton-amonen gurasoak dira, argazkiak sortu ziran ezkeroztikakoak. Zure baserrian ere baziran auek.

— Orain ez dago, bada. Erre egingo zituzten.

— Begiraiezu ondo nola jazten ziran; gizaldiz gizaldi nolako aldaketak egin dituen jantziak berak. Mundu ontan orain jantzi ta erantzi ta ibiltzen ere errezagoak dira. Oraindik zuek ere asiko zerate gizonak bezela galtzekin, eta zuen ezpainenetan zigarroa daramazutela.

Par egin zuen Martinak:

— Itxura ederra emango genduke!

— Galtzekin ez txarra ere. Zigarroak ez dio iñori onik egiten: osasunari kalte eta alperrikako kastua. Gizonak ere obe luteke, ez balute erreko. Beste argazki ontan, nere irugarren anaia eta zure osaba, kaputxinoa, Amerika alde ortan mixiolari berrogei ta geiago urte daramazkiena. Aurten dala uste det etortzekoa, bertan geratzeko asmoan gaiñera, bere bizar aundi orrekin. Soñeko zakarra, gerrian lokarri txuria eta sandali zaarrak oiñetako, beste mundu bateko gizona dirudi. Ortarako ere Jaunaren deia bear.

— Nik ere badet anai bat apaiza, meza eman berria. Arek ere amaren iritzi zaarrak maite ditu, Gaurko aurrerapenak ez ditu ontzat artzen.

— Emen, berriz, emaztea eta ni, ezkonberriak. Beste ontan, zillarrezko eztaiak egin genituenekoa, gure zazpi seme-alaben erdian. Zu ere, zure seme-txoa besoan, etziñake gaizki etorriko.

— Zaude ixilik. Etzaidazu negarrrik egin erazi.

— Ezin al ziñezke berriro aren jabe egin?

— Baietz uste det nik, orain arte kosta dana ordaindu ezkeru. Ura oraindik nereza da. Baiña utzi zazu pakean, An ondo dago. Mojatxoak ondo zainduko dute. Iru edo lau izango dituzte gaur ere an.

Martinaren osaba-izebak kalean bizi ziran, txalet baten antzeko etxe dotore batean, bizitza bakarrekoa. Zailla izango zan ura garbia edukitzen. Aundia zan, ta zoko asko. Aldamenean baratza txiki bat ere bazeukan, utzi samarra.

Senar-emazteak bakarrik bizi ziran. Etxeko andrea agindu zalea izaki, denak bere naiera eduki nai geiegia, eta etzuen iñork aren ondoan bizi nai. Martinarekin, berriz, oso ondo konpontzen zan.

Kanpoan lana billatu zioten arte, neskak txukundu ta martxan jarri zuen baratza, zerbaiten bearra bazeukan eta.

Eguraldi txarretan, berriz, bi emakumeak astindu polita ematen zioten etxeko garbitasunari. Ortan oso ondo elkar artzen zuten.

Kontentu samar zegoen an Martina. Bere osabak benetan maite zuen. Baiña bere poltsa utsa. Tarte-ka osabak ematen zion limosna besterik ez.

Osaba erriko zinegotzietako bat zan. Elduleku ona zeukan eta ango egoeraren garbitasuna berak egin zion: bertan lan egiñez, prantzesa ikastera etorri zala. Bitartean, illobari lana billatu nai zion.

Dendari ta tabernariak ere baziran ura pozik artuko zutenak. Baiña ango izkuntzarik etzekien ezkeru, atzera egiten zuten.

Alare, noizbait billatu zion denda aundi batean. Bertako etxeko andrea euskalduna zan; prantzesez ere ondo zekiena. Ari laguntzen jarri zuten.

Denda bikaiña zan ta etorri aundia zeukan. Bertako jendeak, etxekoandreak, egingo zuen, bada, sal-maieko lana. Martinak, bertako garbitasuna, eta saldu bear zan gauza paketetan jarri.

Etzuen asko irabazten. Ura bezela illa non erori ez dutenak, zapalduak izaten dira beti, eta eskubiderik gabeak. Baiña irabazi guzia beretzat, larunbatero etxea garbitzen izebari laguntzeagatik.

Izebak ala galdetu zion bein:

— Dendan ez bazaude kontentu, esaiguzu. Beste nonbait billatuko genizuke lana. Irabazi gutxi da ori, egiten dezun lanarentzat.

— Ez. Konten nabil. Emakume ona da, gaiñera, nerekin. Jakiña, nere urteak badijoaz, eta beti ere geiagoren naia ez da arritzeko.

— Ori, Martina, zure esku daukazu.

— Zergatik galdetzen didazu, bada, ori?

— Askotan triste samar ikusten zaitut eta.

— Ez da or kontentu ez nabillelako. Nere ama ta etxekoak datozkit gogora. Batez ere Martintxo, nere semea. Zer egin ote diote ari?

— Ango berri jakin nai zenduke orduan?

— Ori zalantzarik gabe. Baiña etzait komeni ere. An aztua egongo da ori dena, eta zergatik berritu? Baiña naita ere ezin aztu. Okerragoak igaroa naiz, baiña askotan izaten ditut olako aldiak.

Martinak bertan jardun zuen. Lanpean baizegoen, xox batzuk irabazten etzan erreza. Etxeko garbitasuna ia erabat berari uzten zioten. Baratza txiki ura ere esan ziteken aren esku zegoela, eta gero dendako zortzi orduak. Ori dena bere atsedinari kendu bear.

Alare, iñoizka Lurdesa joateko beta arrapatzen zuen. bera neskame zegoen lekutik eroso geratzen baizitzaien.

Urte bete laister beteko zan iges egin zuela etxetik. Amasei urte bete berriak. Neskatxa dotorea zegoen, baiña azken aldera asi zan beldurtzen. Mutil bat beti aterako zitzaion bidera, Baiña etzion itzik egingo. Bere etxeraiño jarraituko zion. Martina, berriz, benetan larritzen zan.

Osabari kontatu zizkion bere kezkek. Berak ere ikusia zuen, eta aolku bat eman zion:

— Kontuz mutil orrekin. Len ere bi aldiz ixkanbil gaiztoak sortua da ori.

— Ezagutzen al dezu?

— Bai. Askotan ibiltzen da ori inguru auetan. Aspalditik da nere ezaguna. Geronekoan ikusi nuen. Espetxean ere egona dala uste det. Orren beldurrak bazabiltza, beste dendaren batera bialiko zaitugu, prantzesez ere zerbait ikasi dezu ta.

— Ez, osaba. Etxeko andrearekin oso kontentu nago, tarteka-tarteka sari bikoitzak ematen dizkit eta.

— Bai. Emakume ona da, modua ere badauka ta. Baiña kontuz mutil orrekin.

— Nik gogor egingo diot. Nerekin asten bada, ez da ondo aterako.

Martina, bada, erne zebillen. Azkazal arteak garbitzeko laban txiki bat ibiltzen zuen beti berekin. Beartzen bazan, uraxe sartuko zion ipur masailletik.

Etzan egunero azaltzen bere bistara, neskak susmur txarra artuko zion bildurrak noski. Osabak esan ziona gogoan zeukan, eta lengo eskarmentua ere bai. Bizi zan arte etzitzaion aztuko.

Bidea ere beldurra sartzeko modukoa: dena zugaitzpean, estua; eta inguru artan etxe bat bakarririk etzan lekua.

Euri asko egin zuen batean, bidea lokatzez betea. Gure Martina, berriz, bazetorren bakarrik, pake-pakean, ixil-ixilik, arri batetik bestera jauzika, oiñetakoak ez zikintzearren ur-putzuen iges. Aize pixka bat ere bazebillen.

Gure Martinaren begi-belarriak bidera zeuden, putzu-zuloetara jarriak. Etsaiak, ixil-ixilik atzetik etorrita, arri batetik bestera jauzi egiterakoan, bi beso ondoetatik artuta, bizkarrez bota zuen lokatzetara.

Baiña neska aundi samarra zan, ta gaztea: amasei urtetik gora beiñepein. Bere indar guziekin zutitu egin zan. Mutillaren larritasuna etzan nolanaikoa, neska igesi egin nairik asi zanean. Besteak, ordea, obeto eldu zion. Baiña berriro indar egin zuen neskak, mutilla lokatzetara jausiz.

An eraso zioten ziraldoka lokatzetan burruka, txerriak bezela, batean gaiñera, bestean azpira, txandaka. Martinak, izutua ta nekatua, igerri zion galdua zegoela.

Orduan, len esan degun laban txiki ura artuta, ipur-masailletik sartu zion. Karraxi bat egin ere bai mutillak, oiuegiñaz:

— Oraintxe bertan itoko aunat!

Izutu zan Martina: galdu zala; etzeukala igesbiderik.

Neska-mutillak burruka zebiltzan lekutik urbil samar zetozen egurasten eta jolasean iru gazte, bi mutil eta neska, elkarrekin kontu kontari; eta, bideko ixkanbillak eta zaratak entzunik, irurak batera neskari laguntzeko asmoan lasterka joan ziran.

Aiek etortzen ikusita, dena zegoen bezela utzirik, iges egin zuen mutillak, burrukariak, zugaitzpe artan ezkutatus.

— Au ez dek ortara geratuko, neska izanta mutillari labanka eraso badion!



Iruetako batek ezagutu ere bai.

Bai Martina gaixoa ere, atzera begiratzeko beldur-  
rrak, berekiko iru gazte aiei eskerrak emanaz, larri-  
tasun ura igaro ondoren, laster zan bere etxean.

Atzeraxeagotik jarraitu zioten iru gazteak neska-  
ri, non bizi zan jakiteko.

Osaba atarira ateratzen eta Martina itxumus-  
tuan, lokatz egiña, etxera sartzen.

— Baiña, Martina: lokatzetan zaldaliak irabazten  
ibili al zera?

— Barkatu; baiña, garbitu ta beste soñekoa jaz-  
tean, dena kontatuko dizuet.

Neska zotinka zetorren, igaro zuen estualditik  
oraindik ezin lasaiturik.

Atarian norbaitzuk izketan nabaitu zituenean,  
izebak etxe barrundik galdetu zuen:

— Nor zan ori?

— Martina, gure illoba, lokatz egiña, negarrez  
eta iñorekin itzegiteko betarik gabe. Norbait atzetik  
jarraika baletorkio bezela, lau jauzitan igo da gora.

— Zer gertatu ote zaio, bada?

— Ez dakit; baiña gauza onik ez.

— Eta ezer esan al du?

— Bere burua garbitu ta soñekoz aldatzean eto-  
rriko dala; eta orduan kontatuko digula gertatu  
zaion guzia.

— Izan ere, bakar-bakarrik dabil tunela dirudien  
zugaitzpe ortan barrena ta.

— Eta nork lagundu bear dio?

— Ez. Ori guretzat eziña da.

Senar-emazteak izketan ari zirala, garbitu ta alda-  
tua, oraindik malkoei ezin eutsirik, jetxi zan gelatik  
Martina. Etzituen osaba-izebak zalantzan eduki nai.  
Gertatutako guzia garbi-garbi kontatu zien.

— Baiña neri laguntzera etorri diran iru gazte aiek salbatu naute.

— Bai. Zuri eraso dizun ori ume ergel bat da; eta, zuk diozunez, erru guziak bereak ditu. Alare, salatuko zaitula seguru bazeundeke.

— Barkatu. Baiña nik lenagotik badaukat naiko eskarmentua —osaba-izebei lan txarra egin zuela iruditu ote zitzaien pentsatuz.

— Baldinbetan lepoa moztu bazenio ere, ez genduen txartzat artuko. Txakurrak bezela ibili bear al degu beti? Lasaitu zaitte. Gure babesaren paltarik ez dezu izango, eta iru lekukoak ere lagunduko dizute.

— Besteak ez bezelakoa ote naiz, bada, ni? —zìon Martinak, malkoak ezin txukaturik.

— Besteak bezelakoa zera zu ere. Neskatxa ederra zerala ez dizugu ukatuko. Zu ikusita, batzuek “Orixe dek neskatxa polita! Nongoa ote da ori?” esango dute. Baiña millatik bat, beren ustez arrapatzea erreza dalako azio txarra egitera ez da joango; ta urtearen buruan mundu biribil ontan olako asko gertatzen da. Zurea bat geiago, aragian bestetan pentsatzen ez duen jende asko baidago.

Neska zerbait lasaitu zan. Etzuen beñepein mutillak nai zuenik egin. Baiña salatzen bazuen, zer gertatuko zan?

Arratsa gaiñera zetorren, eta eguna pake-pakean bukatu ere. Baiña urrengo goizean bi ertzaiñek neska espetxera eramán zuten. Osaba-izebak suminduak geratu ziran:

— Ai zer nolako ixkanbillak sortuko dizkiguten! Eta erdiz-erdi gu arrapatuko gaitu, onen babesle bezela. Zuzentasun geiago ez al dago Prantzian?

Baiña, alare, biak batera zioten:

— Illobak ondo egin du. Len gertatu zitzaionagatik, gorriak ikusten ari da. Berriro erori izan balitz, eta bereak ikasi, benetan gezurtizat artuko luteke.

Neska espetxera eraman ta andik bigarren egunera, epailleak osaba deitu zuen. Au aurrean ikusi orduko, itzetik ortzera ala galdetu zion:

— Mutillak labanka darabizlkien neska ori nor da?

— Gure illoba bat, emen lan pixar bat egiñaz prantzesez ikastera etorria; eta emen dituzu bere agiri guziak. Beraz, neskatxa au legez dago.

Gezur txiki bat, baiña barkatuko al zioten. Ezta abizenak ere, bada ez bada, etzituen neskarenak eman.

— Mutillak labanka darabilzkiena diozu? Ikusi izan bazendu nola etorri zan etxera! Burutik oiñeta-raiño lokaztua, negar zotinka, bidera atera zitzaion mutil batekin burruka ibilita... Etsi zuenean eman ziola ziztakoa. Ori dana ikusi zuten iru gazte baditu lekuko. Aiei eskerrak salbatu zala esan zigun. Emakumeak ere eskubideak izango dituzte noski.

— Bai, bai. Ez dago ukatzerik. Mutillak, bada, auzitara deitu du eta...

— Eta oroitzen al zera nolako trastea degun ori? Len ere olako arazo batengatik espetxean egona da ori. Bi illebeteko zigorra eman zitzaion. Orain, berriz, gazteak esan didatenez, neska itotzeko asmoan omen zebillela. Oroitu zaite, gaiñera, mutil biurri ori ez dala emengoa. Auzitara eramatezkeroz, neskatxa onek ez daki ondo prantzesez, eta itzultzaille bat nai ta naiezkoa du. Au, gaiñera, auzitara eramaten badezu, inguru auetako emakume guziak emen dituzu; eta lenengo, ta denetan okerrenak, zure emazte eta alabak. Mutil ori biali egin bear da erri ontatik.

Zinegotzia zan ezkerro, epailleak oso ezaguna zuen au. Bitartean illobari espetxera ikertxo bat egin zion, ea lasai zegoen eta ezeren bearrikan bazekukan jakiteko. Olako eskarmentu gabeko neska gazte bat zan oraindik, eta lasai samar arkitu zuen.

Berdin bere ondra babestu besterik etzuela egin, eta etzutela luzaroan an usteltzen edukiko.

— Orregatik, ez det ezeren bearrik. Ni naizelako, gaizki ibiliko zerate zuek atzera-aurreraka.

— Martina, ez olakorik pentsatu. Burruka gaizto ortatik onik atera zeranean, zoriontsu gaude gu, zure izeba ta osaba.

Andik bi egunera, osaba deitu zuten berriro. Baiña au, Martina salbatu zuten iru lekuko gazte aiekin joan zan.

Auek epailleari garbi-garbi eman zioten gertatuaren berri. Ez balira aiek an azaldu, lepotik artu ta itotzeko asmoan zebillela. Ez ori bakarra; andik iges egiterakoan amorruez esan zuela: “Au ez den ortara geratuko!”.

— Egia al da ori?

— Epaille jauna, ez gera gezurra esatera etorri.

— Mutillak auzia eskatu du, eta egin beariko zaio.

— Eta orregatik neska espetxean eduki?

— Ez. Mutilla aske dabil, ta neska ere bialiko det.

Egun artan bialita, auzi ori bukatu arte etxeke lanean jardungo zuen.

## Auzia

**A**UZI eguna ere iritxi zan, bada. Inguru artan iru gazte aiek zabaldu zuten gertatu zana-ren berri.

Ingurukoak egun eta ordu orren zai zeuden, bada, auzi ori ikustera joateko. Orregatik, epaillea azaldu baiño ondotxoz lenagotik, jendea auzitegia iriki zai zegoen, sartzeko lekua arrapatu nairik.

Zabaldu zanean, bereala bete zan. Batez ere emakumezkoak, eta aietako geienak gazteak, zala-parta puska bat ateratzera etorriak.

Jolaserako zeuden, bada. Baiña denen asmoa berdiña: neska babestu. Ai zer nolako ixkanbillak aterako zituzten!

Epaillearen maia denen aurrean zegoen, erdi-erdian, eta ondotxoz gorago. Txintxarri bat ere bai. Oitura ala omen zala. An beiñepein bazegoen. Erri txiki oietara etzan oraindik aurrerapenik sartu. Jendearen berriketak ixil erazteko-edo.

Epai maian iru aulki zeuden jarriak, eta epaillea bi laguntzailleekin etorri eta beren aulkietan exeri ziran, epaillea erdian zala.

Auzia egiten zitzaienak, au baiño berago, bat eskubitara ta bestea ezkerretara, epaillea baiño aurreraxeago.

Mutillak, eskubitara ta bakarrik, etzeukan babeslerik, eta lekukorik ain gutxi. Berak bere burua zaindu ta babestu bearko zuen.

Ezkerretara zegoen neska. Onek ere etzeukan babeslerik. Baiña bai aldamenean itzultzaille bat eta beste iru gazte lekuko. Osaba ere an zuen.

Dena bear bezela martxan jarri zanean, epailleak txintxarria jo zuen, ango jendearen marmarra ixil erazteko eta auzia aстера zijoala ernarazteko.

Lenengo, mutillari bere izen-abizenak eskatu zizkion. Bai onek garbi erantzun ere.

Urrengo, non jaio ta non bizi zan. Ondoren:

— Zin egiten al dezu egia esango dezula, eta soilki egi utsa?

— Bai, jauna. Zin egiten det.

Neskari ere galdera berdintsuak egin zizkion. Onek laster bereganatu zituen entzuleen biotzak, eta asi zan auzia.

Lenengo galdera mutillari:

— Egia al da zuk bidera atera ta indarkeriz neska beartzen asi ziñala?

Etzuen lenengotik erantzun. Ori aitortzen bazuen auzia galdua baizeukan.

Epailleak galdera bera egin zion berriro: erantzuteko lenbailen.

— Erdizka da ori egia —erantzun zuen—. Jolasean gabiltzanean, mutillak neskari egiten dion zirri lege bat besterik etzan ori.

— Zuk zer erantzuten diozu? —galdetu zion neskari.

— Bidea lokaztua zegoen eta, oiñetakoak zikintzeko beldurrak, arritik arrira jauzika nijoala, itzik trukatu gabe, bi besoetatik artu ta atzera lokatzera botatzea al da, zuk diozun zirri goxo ori? —erantzun zuen neskak.

Ori entzutean, algara gozoa egin zuen jendeak.

— Eta zuk zer erantzuten diozu?

Uste gabeko orrekin txirrixtatu ta erori egin zala lokatzera.

— Orrek diona egia al da?

— Arrigarria ori. Bertan zutitu bearrean, arrastaka lokatzetan barrena bazter batera eraman nairik asi etzitzaidan, bada?

— Nola zutituko zindudan, zerorrek indar egiñaz lokatzera bota ninduzun ta?

— Bai zuk gogor asko eldu ere. Ainbeste ixtilu ta lokaztu gabe zutituko ninduzun, zure asmoa ori izan balitz.

Mutillak igerri zion txorakeri galanta egin zuela salatzea, eta orain denen aurrean lotsagarri geratzen zala. Iru lekuko aiek galduko zuten, eta etzion erantzun, alperrikako lana zala ta.

Orduan neskari galdetu zion epailleak:

— Zergatik sartu zenion labana?

— Nere burua galdua ikusi nuenean; eta ez balira iru gazte oiek azaldu, ez ote nintzan gero bertan geratuko?

Erriak oi u egin zuen. Baiña aiek esaten zituztenak, ez dago emen jartzerik.

Ondoren iru gazte aiek itzegin zuten, eta auzia erabakitzen etzegoen zailla.

Unetxo batean iru epailleak barrura sartu ziran. An bein beren erabakia artu zutenean, ordezkari egiten zuenak ala irakurri zuen:

— Gure epaille jaunaren aldetik, Martina Etxebeste aske geratzen da. Ez du bere burua babestu besterik egin. Romualdo Espetxerrek galdu du auzia. Bertako gora-beeren kontuak berak ordaindu bearke ditu, eta neskari milla franko eman bearke dizkio, egin dizkion kalteengatik. Irugarren aldia bada arazo beragatik auzia egiten zaiola. Urrengotan, bada, emengoa ez dan ezkeron, bere sorterrira bialiko degu.

Jendeak beste oiur batzuk egin zituen, baiña idatzi gabe utzi bearke.

Bukatu zanean, garbi asko azaldu zan jendea noren alde zegoen, zorionduz gainera, eskua luzatuz eta musu emanaz.



## Joakina

**L**IBURU ontan len aipatu degun Joakina, Marti-  
naren laguna izan zan beti. Bein ezagutu  
zuen ezkeru, jostundegira elkarrekin joango ziran.  
Etorri ere bai, bide erdiraiño beiñepein.

Au Martina baiño zarxeagoa zan, eta jostera joa-  
ten ziran neska sail artan nabarmena aien elkarre-  
kiko eraspina.

Negar asko egin zuen, laguna modu artan galdu  
zitzaiolako; eta ez gutxiago, semea arrotzak eraman  
ziotelako.

Geroztik etzuen aurraren amona begi onez ikus-  
ten. Ezta itzegin ere. Erra gaiztoa artu zion.

Jendeak ere, artaz oroitzean, gaizki itzegiten zuen.

Joakina ixilik geratu bazan ere, etzion barkatu.  
Ezta bakartuko ere, berak zionez.

Martina, itxuraz beiñepein, aztua zegoen. Baiña  
oraindik oroitzen ziranak baziran erri artan. Naiz  
illa edo bizia, zalantza gaizto ori geratua zan bere  
maiteen artean.

Jostundegitik txuxen amarengana joaten zan  
neskatxa alai ura aztua zegoen, bada, beretakoren  
batzuk oroituko ziran baiña.

Ama-seeekin egin zuten zuzengabekeri ura ere bai, aztua zegoen, bero artan asko itzezin bazan ere. Norberari tokatu ezean, ez digu kilixkarik egin. Non sartu ote zan gaixoa, illa edo bizia, aztarrenik ez uzteko?

Olakoxea da mundu au. Ama-see batzuegatik berdin-berdin jarraituko du. Negarrez ariko al gera, bada, beti? Aiek biotzean utzi diguten utsuna beste batzuek betetzen digute. Agian aiek bezin maitagarriak izango zaizkigu. Bestela, lurbira ontan bizi pozik ez legoke.

Baiña baziran oraindik, aren lagunak batzuk ikustean, artaz oroitzen ziranak, kontzientziak salatzen zituelako-edo. Lagun maite oietako bat, bada, Joakina zan. Ura ta Martina lagun maiteak zirala-ta, iñoizka ari galdetzen zioten.

Bizi bazan beiñepein, nonbaitik aren eskutitzen bat artuko zuen itxaropenik etzuen oraindik galdu. Baiña, ordura arte, bere betiko erantzuna berdiña izaten zan: etzekiela ezertxo ere.

Oraindik ere oroitu utsak begietatik malkoak atera erazten zizkion, ama-seeen galeraz pentsatuz.

Bera ondo zegoen. Laster ezkontzeko asmoan zebillen, gaiñera. Baiña bere laguna illa izango zala. Bestela, andik edo emendik, bere berri eman gabe etzuela zalantza gaizto artan edukiko.

Kalean erosketa batzuk egin ta etxera zetorren batean, Martinaren osaba batek ala esan zion:

— Egun on, Joakina.

— Baita zuri ere, Martin. Kale aldetik etxera?

— Bai, beti egin bearrak izaten ditugu-ta, ez beti goxoak baiña. Eta zu?

— Ementxe. Zerbaiten bearrean arkitzen gera askotan. Erosketa batzuk egitetik nator. Nere poltsari ustua aldi ederra eman diot beiñepein.

— Jakiña, ezkontzeko asmoan omen zabilta ta.

— Ori ere zabaldu al dute? Bai; ala nabil. Ogeira urbiltzen ari naiz; eta, moja ez sartzezkeroz, neskazarren bizimodua ere ez da oso alaia izaten noski ta...

— Zorionak aldez aurretik. Baiña oraindik gaztea zera. Ez daukazu alako presarik. Joakina, barkatu galderatxo bat: Martinaren berririk bai al dezu? Beraren osabetakoa bainauzu ni.

— Ez det. Ez dakit zer egin zuen gaixoak.

— Arritzekoa. Arratsetik goizera galdu zan; ta, itxasoak irentsi balu bezela, gaur arte aren berririk eta aztarrenik ere ez degula arkitzen.

— Nik etsia artu det. Bizi izan balitz, nonbaitik zerbait ikasiko genduen. Neri idatzi gabe etzan geratuko luzaroan. Noiz edo noiz aren eskutitza artuko nuen itxaropenetan egon naiz. Baiña arrunt etsi det. Orrenbeste bazekien. Letra polita zuen, gaiñera. Gu non bizi geran ere bazekien. Gu aren berri jakin nairik biziko gerala ere bai, zalantzarik gabe. Aren lekuan egon banintz, ez nintzan idatzi gabe geratuko.

— Benetan elkar maiteak omen ziñaten, bada, zuek.

— Nere iritzian beiñepein, bai. Etzan ura bi arpegiko neska. Izan ere, nor etzan izango aren laguna? Ain zan eraskorra. Aren begiak dena garbi ta ona ikusten zuten. Alakoxea izaki bera ere ura, eta uste zuen besteak ere ala ziralda. Benetako lagunak giñala ez dizut ukatuko. Lenengo neri esan zidan, gaiñera, arratsalde batean eta indarrean zer egin zioten. Ura baiño iru urtez zarragoa naiz. Amazapi urte bear zituen, bizi izan balitz.

— Orduan, illa dala uste dezu?

— Nere iritzia ala da. Alare, utsegin dezaket. Martinak esan zidanez, oso etsia geratu zan, eta amarenganako gorrotoz. Uxapal bat baiño apalagoa

zana, amaren ukoak begiak zabaldu zizkion, lagun urkoarekiko konfiantza galtzeraino. Berak etzuela errurik. Baiña amak etzion sinisten gizon baldar batek beartu zuenik. Orregatik aren inorekin tratu-rik nai ez izatea. Amaika negar egin zuen gaixoak, eta egin det nik ere; eta, bi urte ta erdi joan diran arren, artaz oroitzean malko samiñak datozkit geldi-geldi ixurian, masaillean beera, gaur oraindik ere. Amak etxetik biali egin zuen, ume bat bezin inoxentea zan alaba gaixoa.

— Nere iritzia ez da, bada, zurea bezin ezkorra. Arek semea an utzi zuen ezkeror, ez dala illa. Non-bait mundurik mundu or ibiliko dala, ajola gabeko txakur bat bezela jarria. Gorputz dotorea zuen eta ortatik biziko da.

— Litekena da, bai, ori. Ezin biziak begiak gorriak omen ditu; eta bera jostaillutzat artzeagatik naiko dirua eskeintzen badiote, ezetzik ez nuke esango. Baiña etzan ura emen olakoa.

— Jainkoak erruki dezaiola. Biotzean kezka gaiztoak dauzkat nik ere. Baditut artaz nere erantzunkizunak. Nork pentsatuko zuen, bada, nere arreba doña Joanak, alegia, dagoen bezela elizari emanak, alabari ori egingo zionik? Ikaragarriak esan nizkion. Bere arazoetan ez sartzeko esan zidan. Ez niñula geiago etxe artan ikusi nai. Eta, nere illoba bezela, aurrean biali niñun.

— Orain, bada, damutzeak ez digu balio.

— Zu, aren orde, zorionekoa.

— Jainkoak ala nai dezala, laster gaiñera. Baiña or ere inpernua arkitu nezake. Ori baneki, dena utzi ta moja joango nintzake.

— Ez dezu beiñepein lagun maitea, atsegiñez zorionak emanek, aldamenen ikusiko.

— Ezta ni ere, zoritxarrez, aren eztaietan ordaiñak eskeiñiz.

— Eta aur gaixoari zer egin ote diote?

— Zaude ixilik. Amari egiña baiño beltzagoa da ori oraindik noski: onera etorri ziran amerikar batzuei saldu.

— Eta non zegoan bere amonaren kontzientzia? Ura zan lenengo.

— Denok ez degu, ordea, berdin pentsatzen; eta, pekaturik ez egitezkeroz, bakoitzak bere kontzientziari begiratu bear omen dio.

— Amona batek bere billobatxoa ez geiago maitatzea ere...

Agur egiñez joan zan osaba; baiña kezkaz betea eta naigabetan.

Ikusten danez, oraindik ere amona larrutzen ari dira bere artekoak. Martina orain bizirik azalduko balitz, amaika malko ixil txukatuko luke.

Joakinak, berriz, bere ezkontzako moldaketak aurreratu samarrak zeuzkan.

## Amona

**I**KUSI degunez, osaba, ta onekin batera bere senide arteko geienak, naigabetuak eta kezkatu geratu ziran, aitaren egiñez, amonaren joera ezin ulertuz: ainbat maite zuen alabatxoa etxetik biali, arekin ezerean ikuskizunik ez bazeukan bezela.

— Or konpon adin! —eta amabost urteko neskatxa gaixoa madarikatu, ta maitasuna ta laguntza sekula baiño bearrezkoagoak zitzaizkion garaian, bakarrik.

Inguru artan, garbi aitortzezkeroz, aztua zegoen. Etzan berri artan bezela. Ardangeletan, eliz-atarian, iru edo lau biltzen ziran lekuan, etxeko sukaldeetan zer esanik ez, etzan besterik entzuten: elizako santuak jaten ari zan ama batek etxeko ondrarengatik bere alaba egoera artan bakarrik utzia ezin zuten ulertu; fameliko lotsa zala ta biali. Baiña bein ille-bete batzuk igaro ziranean, ori dena aztu zan.

Amaren lenengo egunetako arrokeriak ere joan ziran. Asi zan ondo pentsatzen eta gordin-gordin zetorkion egin zuenaren larritasuna. Ezagutua zuen bere pekatua. Or konponak bukatu ziran betiko. Kontzientziak kozka egiten baizion.

— Martiñatxo nerea, bizi baaiz, non ta nola ote ago?

Deabrua zirika ari zitzaion. Biziaren erdia eman-go luke pozik alaba bere semearekin aldamenean edukitzeagatik. Baiña alperrikako negarra.

Noiznai nabaitzen zuten bakar-izketan eta negarez begiondoak malkoz erreak.

— Ai, Martinatxo, nere alaba maitea! Non ote abil, bizi baaiz beiñepein? Eta, eziñak zapaldua, ere burua galdu ote den?

Etxean bazeukaten Ama Birjiñaren irudi bat. Artzai Onaren Ama zeritzaiona. Gau eta egun kandelatua piztua edukitzen zuen.

Alaba galdu ta urrengo iru urteetan izan zan Lurdesen. Amaika meza an emateko enkargatuta etorriko zan etxera, lenago oitu bezela. Baiña orain alabatxoa aldamenetik palta.

Bere seme-alabak kezkatuak bizi ziran, ama galduko ote zitzairen beldurrak.

Sendagilleetara eramaten zuten; baiña alperrik. Aren gaitza etzala gorputzekoa zioten; espiritukoa zala. Kezka ta naigabeak urtutzen ari zuten, eta auek eramango ote zuten azkenean mundu ontatik.

Atarian billobatxoak jolasean ikusita, bere alabaz oroitu eta negar egiten zuen, Martina gora ta Martina beera.

Eta oraindik ez al zuen okerragoko pekatua egin, bere billobatxo Martintxo eramaten utziarekin?

Noiznai elizan zan bikarioarekin aitortzen eta aolku billa. Apaizak etzeukan nolanaiko pazientzia. Etxera ere etortzen zitzaion; baiña dena alperrik. Ama gero ta aulago ari zitzairen jartzen.

Bikarioak azkenean ala esan zion:

— Zu beti elizan zabilta eta ez dezu sinismenik.

— Zure aotik entzun bear al nuen ori ere?

— Beti pekatu bera ari zera aitortzen, eta ez dezu Jaunaren errukian sinisten, Baiña, bein benetan damutu ezkeru, Jainkoak ez daki ukatzen.

Alaba galdu ta urrengo iru urteak gaiztoak zera-mazkien oso.



## Alaba

**A**UZIAREN ondorenak egundoko ixkanbilla jarri zuten Martinari eraso zion mutillaren aurka. Oiu lizun askoak aizkatu zituzten. Orduan ere etziran denak mingain garbikoak.

Epalleari ere erasotzen zioten: irugarren aldia bazuela arazo beragatik auzi egiten ziotela; ea bein zergatik etzuten ondo zigortzen; etzirala txakur ustel baten beldurrak ibiliko.

Martina ere ordukoz ondo atera zan. Baiña etsaia askea zebillen, eta ordaiñak eman nairik. Eta, lan egingo bazuen, betiko bidetik ibili bear. Arraixkoa len baiño aundiagoa noski. Ez ote zan erri artan beste neskari? Bera etorri berria eta beti bakarrik zebilela ikusten zuten.

Orregatik ibiliko ziran beraren atzetik iruzurtzeko itxaropenetan. Len maitasunaren itxurak egiñez zebillenaren barruan, gero gorrotoa jabetuko zan. Mutiko arroa omen zala jendeak arpegira botatzen omen zioten. Ezagutzen etzuten neskatxa batek lotsagarri utzi zuelako, arantza ori atera naiko zuen. Gaiñera, milla franko aiek ere min emango zioten.

Neska, bada, etzegoen atzera egiteko. Ondo ari zan dirua irabazten, eta bere etorkizunean pentsatzen asia. Jakiña, bakarrik bizi bearco zuela, bere ondra galdu ondoren. Gaur ere usai txarra dauka pekatu orrek. Orduan zer esanik ez.

Bere burua mantentzeko aiña orain egin bear. Bestela, txakur ustelentzat jolaserako bestetarako etzan geratuko.

Amets ori egiten zuen Martinak. Orregatik, lengo etsai ura etzedilla berriz beragana urbildu. Ezta besterik ere. Bestela, auzia galdutako mutillaren martxa eramango zuen.

Epailleak egindako zemaiak ere zer bait atzeratu eraziko zuela lengo txakur ustela. Etzuten uste lengoa bakarrik urbilduko zitzaionik. Naiko eskarmen-tua eman zion.

Mutillak egindako zemaia ere gogoan edukitze-koa zan. Etzala alegia arazo ura artara geratuko.

— Mundu guziak jakin dezala, bada, baita amak ere, gorputz au pekaturako saldu baiño len, nere borondatez beñepein, bizia galduko detala.

Etzan bere senide ta lengo lagunak uste zuten bezela bizi. Andik aurrera ere neurriak artuko zituen, indarrez edo diruz zetozkion txakur ustelak uxatzen.

— Lenengo eraso irabazi det. Baiña orain lengoak edo besteren batek proba egin naiko du. Nik ere, bada, indarrez eutsiko diot.

Betiko martxan jarraitu zuen, bada, zetorrena zetorrela. Iñoren aurrean etzan kokilduta geratuko. Beti berekin zeraman eskuan, gaiñera, laban txorrotx ura, ausartzen zanari gogor egiteko.

Osaba-izebak arrazoi ematen zioten. Aien laguntzaren paltarik etzuela izango.

Dendako etxeko andreak ere bai. Asko maite zuen. Lengo garaipenagatik zorionak eman zizkion, eta espetxean igarotako egunak ordaindu ere bai.

Onen senar ta seme-alabak ere alegiñak egiten zizkioten jarraitzeko esanez. Len aren lekuan lan egiten zuten guziak lapurrettagatik biali zituztela, eta Martinak etziela sagar bat ere artu baimenik gabe. Igesi ibiliko zan, baiña ez gaiztoa zalako.

— Eskerrik asko, zuk eta zureak egiten dizkida-zuten goralpenagatik. Benetan pozten naiz. Eza-gutzen nautenak badakite nere berri.

Luzaroan lasai ibili zan. Baiña berriro lengo mutilla asi zitzaion an da emen tarteka azaltzen, baiña urrun oraindik, beti bezela noski nola ta non-dik erasotzeko egokiera billatzen.

Izutu zan. Erne zebillen. Maite zuen bere askatasuna, eta beste edozeiñek bezelako eskubidea zeukan berak nai zuen lekuan ibiltzeko.

San Juan bezperan, ango jaiak orduan baidira, Martina erne zijoan. Etzuen iñor ikusi. Goibel samarra zegoen; eta zugaitz baten atzetik, bertatik bertara, lazo bat sartu zion burutik beera auzia galdutako mutillak, txolaratean arrapatzeko, bertatik baizan, eta neska gaixoa lotua utzi zuen.

Karraxi baten ondoren:

— Oraintxe bai ondatu nautela!

Baiña etzuen etsi. Etsaiak eskuekin arrapatu baiño len, indar guziekin tira zion lokarriari; eta uste gabeko golpe orrek muturka bota zuen lokarriari eusten ziona. Arrastaka eramango zuen bel-durrak, utzi egin zion. Bai Martinak ere, bere ura gerrian zuela, lasterkari eman ere. Alaxe sartu zan etxera. Mutilla, berriz, zauritua eta amorruz geratu zan.

Izebak ikusi zuen lasterka sartzen.

— Orain ere badiagu zerbait! Ez ote diote bizitzen utziko? —zion berekiko—. Nola sartu dizute lakio ori burutik beera?

— Erne nentorren. Baiña zugaitz aundi baten atzetik burutik beera sartu dit.

Ondoren kontatu zion gertatu zana.

— Zer deabru da, bada? Ez al dauka beste zer egiñik?

— Bai. Baiña auzia galduak min eman dio. Batez ere neskak irri egiten diote, eta orrek txarre-rako asmoak artu ditu.

— Ertzaiñei abisatu bear zionagu.

— Alperrik da, izeba. Sinistuko al didate? Obedet, beranduegi damutu baiño len, beste leku batean pentsatzen asi.

— Bai. Oraintxe esan den egia, noiz edo noiz beartu ta ondatuko auten beldurrak bizi gaitun eta.

— Nere uste gabeko golpe arek bota du. Bestela, galdua nengoen. Bi besoak gorputzari lotuak geratu baizaizkit.

— Orduan obe den emendik aldegin. Ezin badu berea iritxi, azkenean il egingo aun.

— Bakarra ateratzen dan arte, ez daukat alako beldurrik.

Osaba etorri zanean, kontatu zion gertatu ziztaiona.

— Kakatsua aleena! —esan zuen—. Ortaraiño ere iritxi al da?

— Bai. Suertea izan det. Bestela, galdua nengoen. Zerbait pentsatu bearra daukat.

— Ori izango den, bai, seguruena. Berandu damutzeak ez din balio.

Oraindik lengo lanean jardun zuen. Bakarrik zetorkion arte, bere burua babestu eziñik etzeukan. Etzuen oraindik atzerarik egingo.

Baiña goiz batean, lanera zijoala, bi ikusi zituen. Bai izutu ere. Dendako etxeko andreari ala esan zion:

— Barkatu. Baiña, naigabez, emengo lana utzi bearra daukat.

— Zergatik ori?

— Orain bi etsai asi zaizkit bidera ertetzen, azkenean iltzeraiño gorrotoa artu dit eta.

— Eroa al da edo?

— Eroa ta gaiztoa; bietatik zerbait.

Ordua baiño lenago etorri zan etxera, ia bi urteren buruan dendako etxeko andrea betiko agurtuta.

Bi illabete eskas igaro ziran. Osabari naigabe ematen zion, illoba gazte ura etxe-txuloan triste ta eroria ikusirik.

Etxetik urruntzen bazan, andik edo emendik azalduko zitzaion bikote ura, eta norbaitek lagundu bear etxeraiño.

Urtero bezela, Lurdesa joan ziran. Beste bi aiek ere auen inguruz inguru zebiltzan, Martinak-eta aldegin zuten arte.

Alperrikakoa zan, bada, igesi ibiltzea. Neskak etzuen artara bizi nai. Pozik aldegingo luke andik, arraixko txarrean baizebillen; eta bein ala esan zion osabari:

— Naiago nuke igesleku bat segurua billatuko balidazu. Zinegotzia zeran aldetik, mundu arte aundia daukazu. Baita jende asko ezagutu ere. Ea familiren batek neskameren bat bear duen. Bestela, norabait iges egingo det.

Baietz erantzun zion. Alegiñak egingo zituela. Emendik joandako asko etortzen zirala neskame euskaldun baten billa, eta kontuan edukiko zuela.

Egun batzuk joan ziran. Baiña, noizbaiteren buruan, Australiatik emendik joandako senar-

-emazte batzuk azaldu ziran, ea iñondik arkituko zuten neskatxa gazte bat, baiña euskalduna.

Enbajadakoak zinegotzi oni galdetu zioten. Onek baietz erantzun zien, eta neskatxarekin joan zan eskatzen zutenengana.

Eskatu ta eskeiñitako baldintzekin ondo konpondu ziran: eta gure Martina, zoriontsu, osaba-izebak eta lan egin zuen dendako andrea agurtuz, fameli artako neskame Australiara joan zan, mundu au zerbait ikusteko pozez.

## Australian

**U**REZ bide luzean joan bear eta oitu gabe, lenengo egunak larri samarrak igaro zituen. Baiña bereala jarri zan. Andik aurrera, zer ikusiarren paltarik etzeukan.

Bi urte igaro zituen osabarekin Lurdesko ondolan. Ordu ortan gogoan zeuzkan bere ama ta etxeokak. Baita Martintxo ere. Baiña berriz ikusteko itxaropenik gabe, gero ta urrutiago baizijoan.

Bide luzean itxasoa besterik ikusten etzuela, noizbait iritxi ziran ango erri koxkor batera.

Itxas-bazterrean zegoen. Etxea, berriz, mendixka baten oiñetan. Leku zoragarria. Zugaizti ederrak inguruetan. Baiña etzeukan Euskal-Erriaren antzik, ez gizadian, ezta oituretan ere.

Bizitza bakarreko txalet txuri bat, inguruan baratza koxkor batekin, lorea ugari... Baratza eta berekin txangoa egin zuten bi aurrak Martinaren bizkar geratuko zirala.

Izkuntzak naiko lanak emango zizkiola. Baiña zaarrak bazekiten, itzegiteko moduan, oraindik ere euskeraz.

— Martina, iritxi gera aurki zure etxea izango dezun lekura. Atsegin al zaizu erri au eta emengo giroa?

— Ez du Euskal-Erriaren antzik. Baiña oso eder ta atsegiña iruditzen zait. Emengo izkuntza ikasi bitartean, larri ibiliko naiz. Alare, uste det lardas-katzeko moduan laster jarriko naizela.

— Gurekin ez daukazu olako buruausterik, guk euskera lardaskatzen badakigu ta. Itxas bazter ontan, gaiñera. Leku zoragarria da au.

— An ere itxas bazterrean bizi giñan.

— Sukaldari bai al dakizu?

— Amazazpi urte besterik ez ditut, baiña oitua nago ango erara. Emen ez dakit nolako oiturak dituzuten.

— Berdintsuak. Baiña, al detanean, sukaldezai nik egingo det. Ikastea komeni zaizu, ordea, tarteka neri lagunduz. Etxeko garbitasuna ere biok batera egingo degu. Aurrak eta baratza zure esku geratuko dira.

— Ondo dago. Andik iges egiteagatik, inpernuan ere sartuko nintzan.

Kontatu zion bi urte aietan nolako buruausteak eduki zituen.

Arrituta geratu zan etxeko andrea; baiña berekiko pentsatuz: “Ea emen ere olakoren bat gertatzen zaigun”. Neskatxa ederregia zala ura bakarrik bizi-tzeko. Baiña, neskak zionez, biziarekin zainduko zuela bere garbitasuna.

Kezka ori bera zeukan Martinak ere. Senarrak egiten zizkion zear-begiratu aiek etzioten atsegin aundirik ematen. An ere ez ote zuen igesi ibili be-rra izango? Ez ote zan, bada, pakean biziko?

Artu zuen, bada, ango martxa, esandako lane-tan etxekoandreari lagunduz eta bere esku zeude-nak al zuen ondoena egiñez.



Bereala igerri zion etxeko andreak neskaren pintasunak etzeukala neurririk. Bere senarrari esan ere bai:

— Urrea ekarri degu etxera.

— Ori gero esateko ez da txarra izango.

Etxeko martxa ondo zijoan. Martinak aurrak bereak balitu bezela maite zituen: eta senar-emazteak beren alaba balute bezela maite ere bera.

Bere eginkizunak bete ondoren, berekin eramango zituen Martinak aurrak. Okerrena, ezin ziela ulertu. Bat, oraindik gaztetxo, besoan artuz, beste berriz amari bezela gonatik tiraka, inguru aietan barrena aiekin ibiliko zan.

Baratzako martxa lenengotik etzuen ondo asmatu. Ango giroa ta Euskal-Errikoa ez baiziran berdiñak. Emen etortzen zanak arako ez baizuen balio. Baiña bereala jarri zan.

Kontentu zegoen etxeko andrea. Martina ere zer esanik ez, oraindik beiñepen.

Nagusiak Banko batean egiten zuen lana, neke aundi gabea. Etzituen milloiak irabaziko; baiña lendik ere biak diru zutenak ziran.

Laster asi zan, ordea, dena aldrebesten. Nagusiak, jai zuen guzietan, neskamea aurrekin egurastera joaten zanean, onekin paseatzera joan nai izaten zuen. Ori etzegoen gaizki. Baiña Martinari egundoko buruausteak ematen zizkion.

Beti eldu ta beti zirika, bat eskatu, bestea eskatu, azkenean baita dirua eskeintzeraiño ere, ori gelegia zan.

Orduan neskak etxeko andreari ala esan zion:

— Emengo pakea ere bukatu zaigu noski. Beldurak nabil. Beraren emaztea zeran ezkerro, denaren berri jakiteko eskubide osoa daukazu. Garbi-garbi esaten dizut zure senarra zirika asi zaidala.

Nerekin batera joaten baida egurastera. Dirua eskeintzeraino ere iritxi da. Au dena, zuretzako ta neretzako. Emendik ere uste gabeko igesen bat egiten badet, ez arritu. Ez nazazute gaizki epaitu. Al badet, gordeko det nere garbitasuna. Indarrez izan ezik, ez dute nai dutenik egingo.

— Eskerrik asko, Martina. Zure aitortzak ez du gutxi balio. Ni ere zerbait oartua nintzan. Neskatxa ederra, gaztea eta tratuan goxoa eta atsegiña, doai oiekin edozein iruzurtuko dezu. Benetan eraskorra zaude.

— Ni besteak bezelakoa ez ote naiz, bada? Ibili naizen bazter guzietan egiten didate eraso zikin au. Nere erritik orregatik aldegin nuen. Lurdestik ere bai. Zalantzarik gabe, itxurak diranez, emendik ere ala atera bearko detala.

— Eskerrik asko berriro, Martina. Ederra ezik, ona ere bazera zu. Baiña badakit ori nola moztu.

— Egurastea utzita. Kontentu nenbillen, bada, ni bi aurtxo auekin.

— Ez olakorik. Ni zurekin batera joanta. Orduan ikusiko det pin dabillen edo ez.

Urrengo egunean, etxeko andrea Martinarekin batera joan zan paseatzera. Ori ikusitakoan, gizonak atzera egin zuen, esanez:

— Zergatik aldaketa au?

— Ez dago emen aldaketarik. Senarrarekin egurastea galerazi bear al diguzu? Atoz gurekin. Ez al dago ondo?

Bai. Txakurraren aizea! Aiei aldegiten utzita, bera etxera joan zan.

Orduan, malkoak zerizkiola, esan zion Martinak etxeko andreari:

— Emendikan ere iges egin bearra daukat.

— Baiña etzaitu egokieran bakarrik arrapatuko.

— Alare, alperrik ibiliko da nerekin, lagunekin eta indarrean ezik.

— Gizonak txakurrak al dira, bada?

— Ez dakit. Baiña ni ederki ondatzen naute. Emendik joaten banaiz, moja sartu bearko det komenturen batean.

— Ezkondu zaite.

— Ortarako oraindik umea naiz. Ezkondutakoak dabilta nere atzetik. Oiek jolaserako nai naute; ez nerekin ezkondata bizitzeko.

Bere erorikada ixilik gorde nai zuen.

Andik aurrera gutxitan denak batera bilduko ziran. Etxeko pakea ere galdu zan. Senarra asarre geratu zan, batez ere neskaren aurka. Baiña ez atzeratu ta jazarmena uzteko asmoan.

Etxeko andreak ere naiko buruausteak bazera-bilzkien berekin; eta, neska arraixkotik ateratzeko, aurreko dendara biali zuen amabost bat egunerako.

Egurasteak bukatu ziran. Dendara ere jarraitzen bazion, beste bazterren batera biali bearko zuen. Baiña nolako joera artu erabakitzeke, egun oiek bear zituen.

Lanetik etorri zanean, senarra oartu zan neska palta zala; eta asarre samar ala esan zion emazteari:

— Non sartu da Martina?

— Emaztea ta bi seme-alabak baiño maiteago dezu neskatxa ori. Ura palta dala laster oartu zera. Baiña zuk eta zure adiskideak jakingo dezute non dagoen.

— Nola ausartzen zera neskatxa ori dendara bialtzea?

— Zer dute dendako etxeke andreak-eta?

— Denda ortatik ia urtero neskatxa bat eramaten dute, eta ez da geiago azaltzen.

— Zuri lenengo entzuten dizut ori.

— Igaz —ez al zera oroitzen?— Josefina izeneko neskatxa bat zegoen or nesrame. Bi illebeterako joan zan. Urtea igaro ta ez da neskatxa orren aztarrenik.

— Bai. Ori badakit. Baiña neskak berak nai zuelako. Beste lekuren batean bizi naiago bazuen, nork galerazi bear zion an geratzea?

— Nai al dezu apustu txiki bat egin, ez badute ertzaiñak salbatzen, ez degula geiago neska ori emen ikusten?

— Zuk nola dakizu ori?

— Aurreko urteetan gertatuaren berri badakit, eta orain moldaketak egiten ari dirala ere bai.

— Barkatu; baiña etzera, bada, zu tartekoa izango?

— Zer ari zera esaten? Nik salatu egin det. Zuk, berriz, arraixkorik txarreneko leku batera biali.

— Biotza bi erdi egiten zait kontatu bearra. Baiña etxean pakean bizi nai badegu, neskatxa orrek emendik norabait ezkutatu bearra dauka.

— Ori zergatik?

— Len ere esan dizut nik bezin ondo jakingo dezula noski. Neskatxa ori ondatzeko atzetik segika zabiltzan zoramenarekin bazenbiltza bera salbatzeko, pozik neskatxa ori geratu eraziko genduke emen, urrea balio du ta.

Ixilik geratu ziran, baiña naiko suminduak; eta orrela bukatu zuten bazkaria.

Emaztea bere lanetara joan zan. Senarra, berriz, atsedean pixar bat artu ta gero, kanpora.

Nagusiak bazekien Martina arraixkeo txarrean zegoela. Baiña berarekin ez bazuen nai, or konpon zedilla. Berean jarraituko zuen, ordea.

Baiña bai emazteak ere an ainbeste arraixko bazeukala etxean; eta beren etxeko pakerako okerragoa zala senarraren jazarmena, dendakoena baiño.

Martinak moja sartuko zala esan bazuen, berak ere etzuen asko galduko.

Garai ortan, urtero bezela, arpegi estraiñoak azaldu ziran denda alde ortara. Ijitoak zirala; andik egun gutxira automobil eder batean etorriko zirala bi jauntxo, baitua zeukaten neskaren billa. Auzoak ala zioten beiñepein.

Ori zan inguru artan uste zana. Baiña aurten, ori egia bazan beiñepein, arrapatzen egiñalak egingo zituzten.

Lau ertzain ere bazebiltzan ara-onera, inguru aiek zaintzen. Zer gertatuko zai, berriz, jendea; baiña laguntzeko asmoan.

## Erasoia

**B**AIÑA egun artan bertan, dendako etxeko andreak Martina dendari utzita, au emakume batekin izketan ari zala, bi gizon estraiño sartu zitzaizkion, goitik beraiño antz aldatuak biak ere noski.

Neska izutu zan. Baiña lasai-itxurak egiñez, aiek aurreratatu ziranean, goxo-goxo itzegiñez artu zituen.

— Zer nai zenduteke?

— Zu besterik ez.

Batek, dendatik ateratzeko asmoan, beso ondotik indarrean eldu zion, bestea begira zeukala.

Bai zertara zetozkion aguro igerri ere Martinak. Il edo bizi bere ondra etsaietatik babestuko zuela, etzan aien aurrean kokilduta geratu. Egundoko kozkazoa egin zion lenengoari, besotik eldu zionari alegia; eta dendan berarekin izketan ari zan emakumeak, maiaren gaiñean zegoen laban zorrotz bat artu, bere lagunari laguntzeko.

Ozkada artu zuenak karraxi bizi bat egin zuen, ta ondoren utzi zion besotik. Une artantxe, Martinak lasterka aldegin zuen dendatik bere etxeko andrearengana.

Neska presaka sartzen ikusi zuenean, larritu zan etxeko andrea; eta ala galdetu zion, txarrena pentsatuz:

— Baiña, Martina, zer zabilta? Erotu egin al zera-edo?

Onek arnaska, bide gutxi artan ler eginda atzera begiratzeko betarik gabe, kontatu zion al zuen ondoena denda barruan gertatu zitzaiona.

— Ortaraiño ere ausartu al dira? Ezagutu al dituzu?

— Ez. Ijitoak izango ziran noski. Artara jantziak zeuden beiñepein.

— Ez geiegi platu, Martina. Ez nuke nik beste ainbeste esango. Senar-emazte oiek badakit etorriak dirala.

— Bai. Bazkal aurrean itzegin det aiekin, eta joango naizela esan diet. Baiña komeni zaidan edo ez ikusi arteko.

— Etzaite joan oiekin. Urtero neskatxa bat eramaten omen dute inguru ontatik, atzo nere senar-rak esan zidanez. Baiña ez dakigu zer egiten duten oiekin. Eta sartu zaizkizun oiek gazteak al dira? Bertakoak izan litezke gero. Erne ibili, Martina!

— Bai. Neri eldu didanak sasikoa zirudien. Egundoko ozkada egin diot besotik. Nik nere burua babesteko eskubidea badaukat.

— Ederki egiña. Alare, obe dezu ertzaiñei parte eman. Bestela, galduko zaituzte.

Izketan ari zirala, ikusi zuen etxeko andreak bere senarra etxera zetorrela.

— Martina, nere senarra dator eta ezkutatu zaitte olako lekuan. Arek ikustea etzaizu komeni. Nik abisatu arte, egon gordean.

Senarra oiñazetan etorri zan, besoari elduz eta odoletan.

— Baiña zer dezu besoa? —galdetu zion emazteak.

Ondo zekien gertatuaren berri: Martinaren ortz zorrotzak egindako zauria zala ura. Baiña etzion olakorik aipatu.

— Txakur aundi batek ozka egin dit. Garbitu ta sendagillearengana joan bear det.

— Txakur batek? Orduan kontuz! Amorratua izan liteke.

Lenbailen biali egin nai zuen andik neska, arraixko txarrean baizegoen.

Ondo garbitu, lotu ta sendagillearengana joan zan.

Naigabetua geratu zan emaztea. Alako famili ederra zuten etxean; eta orrela nor arrapatu ibiltzeko, txakurrak al ziran? Igo zan neska zegoen lekura eta ala esan zion:

— Ez diozu nolanaiko ozkada egin.

— Eta nor zan ori?

— Len ere esan dizut, bada: nere senarra.

— Eta orri egin al diot olako ozkada?

— Bai, ta sakon askoa gaiñera. Ez daukazu ortz arte makala.

— Barkatu; baiña nik nere burua babestu besterik ez det egin.

— Zer barkatu! Sekulan lan onik egin badezu, ori da. Orrela ibiltzeko zer dira oiek? Eskerrik asko, Martina, orain badakit norekin bizi naizen ta. Nere neurriak artuko ditut. Txakurrak egin diola; ori esan dit.

— Nik emendik nora edo ara aldegin bearra daukat. Bestela, galduko naute. Zure etxeko pakea arraixko txarrean dago. Azkeneko iru urteak inpernuan daramazkit.

— Ezkondu zaite eta pakean utziko zaituzte.



— Ai, etxekoandre! Badakizu nere berri: jolaserako nai naute, baiña ez gero nerekin ezkontzeko asmoan.

— Eta ez al diezu ertzaiñei abisu eman bear?

— Ez det iñor leku txarrean utzi nai; eta etxe ontara izen gaiztoa sartu ain gutxiago. Nere bide bakarra igesa da.

— Eta bestea ez dezu ezagutu?

— Nere nagusia ez det ezagutu ta...

— Dendako nagusia izango zan. Aolku bat emango dizut: etzaite karrikotxean-eta etorritako oietara joan. Bestela, egun gutxi barru galduko zera, ta kito.

— Al detan lenena joan nai nuke emendik, eta modurik ez.

— Baliteke estuasun ortatik ere nik laguntzea.

— Agur, etxeko andre. Nik ixilik pasako det.

— Baita nik ere. Barkatzen diot nere senarrari; eta, zu joaten bazera, pakea etorriko zaigu.

## Sorterrian

**G**ERTAKARI guzi auek ola zirala nola pentsatzen ote zuten bere errian eta bere etxean?

Bazirudien pekataria ta bere frutua Jainkoak mundu ontan bertan zigortu zituela. Semea ez dakigu nola ibiliko zan. Senar-emazte aiek bazirudien maiteko zutela. Baiña zearo antzaldatua. Amaren berririk ez dute. Ezta guk ere. Baitu zuten eta ortan geratzen gera.

Ama nor izan bazan, bere errian edo andik kanpora bizi besterik etzuten, martxa artu arte lagundu izan baliote Martinari.

Martin txikiak aita nor zuen etzekiten. Amak berak ere ez, au bizi bazan beiñepein. Bere semeak zer egin zuen jakiteko naiko ixtilluak zerabizlkien, bere burua ezin salbaturik. Onen berri galdu degu.

Eskutitzik ere etzuen egiten. Iru urte paseak dira eta ez da aren aztarrenik. Idazten ondo zekien. Letra polita omen zuela gaiñera. Bere artekoak ere iñoizka erabiliko zuten gogoan.

— Zer egin ote zuen neska gazte eder arek?  
—galdetuko zuen norbaitek.

— Inñondik aren berririk ez datorkigunean, agian illa edo pekatari bizitzari emana, bere gorputza salduz, biziko bada.

— Nonbait lanean ari balitz, edo ezkondua, onezkero jakingo genduen.

— Bere lengo adiskidez ta sortu zan erriz aztu ezkeru, geienen azkena ori izaten da: ezagutzen ez gaituzten lekuan, okerrera.

— Tristeia da, bada, ori. Oraindik emezortzi urte bete gabeak ditu, ta iru emendik galdu zala.

— Onera idazten ez duenean, edo illa da edo txakur bezela biziko da. Ez du naiko daraman bizi-moduaren berri guk jakitea. Bere lengo maiteetzaz ez oroitzea zailla iruditzen zait neri.

— Bai. Zerbait olako pentsatu bearke degu, Joan Joxe bere anaiari idazten ez dionean. Bere alabatxo bat baiño geiago maite zuen orrek arreba Martina. Bizia ere berak salbatu zion, amak mada-rikatu baiño len. Emazteak esanta bai-baitzekien Martina nola zegoen. Aizparenean egindako zor guziak anaiak ordaindu zizkion. Amaren erruki gabeko itz nazkagarri aiek entzun bear: "Pekataria ta bere fruturik ez da sartuko etxe ontan!"

Auek ziran, bada, bere adiskide ta etxekoen esamesak eta zalantza gaiztoak. Iru urteko ixillunea maite zutenenentzat luzegia zan.

Illetarik etzitzaion egin, etzuten aren il-berririk eta. Amaren etxean ere, bada, tarteka-tarteka, onen urtebetetzea zala edo galdu zan alabarena, aipatu gabe etzan geratuko Martina. Joan Joxe eta emazteak badakit maiz zerabilkitela aotan, eta benetako tristura ematen ziela ere bai.

— Izarra baiño ederragoko neska zana non galdu ote da gaixoa? —esango zuen norbaitek.

— Izan ere, deabru guziak zirika zerabilzkiena zan ta. Bestetik, berriz, bere burua galtzeko itxu-

men ura, oraindik mundu ontako berri ikasi gabeko neska gazte batean, beldurgarria da. Ori, nere irizian beiñepein —zion anaiak.

— Bere burua galdu ote duen zalantzak dituzu orduan —emazteak.

— Zer esatea nai zenduke, pentsamentu triste orri ere ez nioke lekurik eman nai ta? Aren aztarrenik ez degu beiñepein.

— Illa dala esateko ere ez dauka, bada, arrazoi jatorrik.

— Ez. Denok zalantzan gaude. Baiña ikara ematen dit ortan pentsatzeak ere. Aurra Fraisoron utzi zuenean, ez ote zuen bere burua galduko? —zion berriro, ezin lasaiturik, Joan Joxe bere anaiak.

— Billatzen ere alegiñak egin ziran, bada.

— Bai; egia. Baiña mundu au aundia da. Alare, ez nuke etsi nai. Badaukat nondik edo andik azalduko zaigun itxaropena. Oraindik bizi dala dio nere biotzak, eta askoz lasaiago geratzen naiz orrela.

— Iru urte pasa ta gero ere bai?

— Bai, nai bada. Oraindik gaztea da. Gaur beteko zituen emezortzi urte, eta garbi esango dizut: emen berriro ikusiko detan ametsak dauzkat oraindik. Benetako naigabea ematen dit. Alare, neri eskutitzen bat ez bialiak min ematen dit, bizi bada beiñepein, arengatik ni saiatu nintzan bezela. Esker txarreko Martina.

— Etzazula zure arreba orren gaizki epaitu, Joan Joxe, gaixoa suerte txarrerako etorri zan mundu ontara ta —erantzun zion emazteak.

— Ni beiñepein, uste gabean emen azalduko balitz, edo eskutitzen bat artu, ez nintzake batere arrituko. Baiña nere biotzean ez daukat beste beldurrik: txakurra bezela biziko ote dan. Neskaxa ederra da. Bere gorputzez baliatuta edo nolabait, bere bizimodua atera bearko du.

Beti, artaz oroitzean edo itzegiten zuten bakoi-tzean, utsun bat bazegoela etxean, urte luzeak beraren berri gabe igaro arren.

Amona, berriz, osasuntsu ez bazegoen ere —urteak ez diote ñori barkatzen—, lengo erorikada artatik sendatu zan. Oiñetatik zebillen baldar samar. Gorputz aundikoa izaki bera ere, eta astu-negi. Urteak, berriz, beti aurrera.

Ordu luzeak baratzean pasatzen zituen. Errai-ñak eguraldi onetan besotik artu ta eguzkitara aterako zuen. Baiña emakume langillea zan. Autsitako erropa guziak konpontzen igaroko zuen denborarik geiena, billoba txikiz inguratua. Batzuek txunban, besteak kaniketan, asarre ere bai ñoiz, baiña geienetan jolasean.

Beste zer egiñik etzeukanean, berriz, errosario txiki bat erabiliko zuen beti bere beatz artean dantzari, eta eten gabeko ezpainen eragiña.

Ñoizka etortzen zitzaion, paseo txiki bat egiñez, erriko bikario jauna, eta biak elkarrizketan an ariko ziran, amona gaixoa ezin lasaiturik.

Geienetan egiten zuten alabaren aipamena. Baita Martin txiki billobarena ere. Non ote zeuden ama-semeak, burua ez makurtzeagatik nonbait orgaldu ziranak? Baiña alperrikako negarrak.

— Jainkoak barkatuko ote dizkit pekatu oiek? —galdetu zion bikarioari.

— Emakumea! Ainbeste aldiz pekatu berak ari zera aitortzen! Konfiantza geixeago bear degu guregatik gurutzean il zanaren errukian. Agian biak dauden lekuan errege ta erregiña biziko dira ta.

Ori dana izan ziteken egia, baiña amona kezketan bizi zan; eta, agurtzerakoan, meza baten dirua emango zion. Damutua ta kezketan bizi zan, bada, amona.

Amaren urtebetetzean, bazkaritara bere seme-alabak biltzen ziranean, aietaz itzegin gabe etzuten bukatuko.

Semea baziteken oso esku onetan erori zala eta benetan maiteko zutela. Baiña aurraren amak kezkatzen zituen. Ez ote zan, bere bizimodua ateratzeko, etxean ikasia aztuta biziko? Une artantxe bazkaritara azalduko balitza, ez lieke nolanaiko atsegina emango.

Jainkoak txikitatik oso aldapak gora jarri zuen, bada, Martina; ta etzekiten nolako bizimodua eramango zuen.

## Iges berriro

**M**ARTINAK etzituen an egun asko igaro. Bel-  
dur zan ertzaiñak berak ere ez ote zioten  
pakean utziko. Etzuen, gaiñera, espetxean bezela  
zaindua bizi nai. Sei illebete eta geiago aietan alako  
txilluak igaro al zituen, izan ere.

Ixil-ixilik, iñork etzekiela, iges egin zuen andik  
ere. Bere ingurukoen iritzia etzan besterik: baitu  
egin zutela.

Itxasontzi batean jarri zan Ameriketako bidean,  
ea urruti aietan pakerik arkitzen zuen.

Ertzaiñak inguru aiek aztertu zituzten berriro,  
baitua izango zalakoan. Baiña etzuten aztarrenik  
ere atera.

Bere buruarekin ere ia etzeukan konfiantzarik,  
eta itxasontzi artan jende estraiño eta ezezagunen  
artean bakarrik eta saldua arkitu zuen bere burua.  
Non aterako zanik ere etzekien. Itxasontzia non  
barrena zijoan ain gutxi. Sei illebete bakarrik pasa  
zituen Australian.

Kai batera iritxi ziranean, ala esan zioten ango  
enkargatuak:

— Emen bukatzen da zure txangoa. Oneraiño daukazu ordaindua.

— Eta non nago? —galdetu zien.

— Olako kaian.

— Ameriketari noski?

— Oraindik urruti dago Ameriketa.

— Nik ara joan nai nuke, bada.

— Baiña geiago ordaindu gabe ez daukazu jarraitzerik.

— Nik ez daukat, bada, xentimorik ere.

— Orduan emen geratu bearko dezu.

Malkoak asi zitzaizkion gure Martina gaixoari.

Enkargatuak ertzaiñei abixu txiki bat eman ta ura andik botatzeko asmoan zebiltzala, ontzian zijozen adiñeko senar-emazte batzuk oartu ziran nolako larriak zerabilzkien neskatxa arek, eta ertzaiñen esku geratzen bazan gaizki ibili bearko zuela; eta, arazo triste ura konpontzeko asmoan, enkargatuarengana joan ziran.

— Zer egin bear diozute neska gaixo orri?

— Ixilka eta tranpiz joan nai duten guziei bezela, ertzaiñen eskuetan utzi.

— Neskatxa au nonbaitik igesi dator, baiña ez dirudi gaixtoa danik.

— Zuek egiten bazerate beraren jabe, eta bear dana ordaindu, lasai balijoake. Guk ez diogu kalterik egin nai.

Neskarengana joan ta ala esan zioten:

— Larri zabilta.

— Ez larri bakarra; zearo galdua. Ertzaiñen eskuetan utziko naute, ta nola garbitu bear ditut nere ibillerak?



— Gu Kaliforniara goaz; eta, zuk nai badezu, gu egingo gera zure jabe ara arte, erantzunkizuna gure gain artuz.

— Baiña xentimorik ez det, ordea.

— Esan ez dizugu gu egiten gerala zure jabe, ara arte beiñepein, ordain bearrak eta erantzunkizun guziak gure gain artuz? Andik aurrera, zedorri konponduko zera.

Zalantza gaiztoan jarri zan gure Martina. Ordura arteko aingeru zaintzailleak ere orixe bera esan zioten. Baiña gero etorri ziran beste eskariak. Orregatik, dena utzita zijoan iges. Baiña ertzaiñen eskue-tatik baiño aixago aldegingo zuela bi aietatik eta baietz esan zien.

Ango gora-beerak konpondu ta aiekin jarri zan bizitzen. Bereala egin zan aien adiskide, bein biotza zabaldu zienean, eta zergatik zebillen ala; gaiñera, euskalduna zala...

Kalifornian bizi ziranak, etziran berak euskaldunak; baiña beren aurrekoak bai. Diruz ondo zebiltzanak. Il baiño lenago munduari buelta emanaz, etxera zijoazen, aspertu samarrak. Andik aurrera, beren alaba balute bezela, jan ere elkarren ondoan egiten zuten.

Etzitzaion aien babesa gaizki etorri. Baiña artan bukatuko al zan?

Luzea izan zan aien txangoa. Amaika naziotako kaietan egin zuten beren atsedenaldea. Baiña noizbait iritxi ziran azkeneraiño. Andik aurrera trenean iritxi ziran, senar-emazteak bizi ziran lekuraiño.

— Martina —beren alaba bati aiñako maitasuna artu zioten-, guk badegu negozio koxkor bat. Jakiña, seme batek darama ango martxa. Uste degu an lana billatuko genizukela.

— Eskerrik asko orain arte egin dezutenarekin. Ez al da ori geiegi izango? Orduantxe bai salbo nengokela.

— Guri, Martina, etzaigu ori batere kostatzen. Bide aspergarri ortan oso atsegiña izan zaigu zure konpañia. Etziñuzkegu bakarrik utzi, nai badezu beñepein.

— Naiko ez det, bada? Len esan dizutet: orrekin salbatua nengoke. Baiña nola ordainduko dizutet au guzia?

— Utziozu pakean orri. Gu zurekin konten ibili gera.

Egun batzuetan, bada, aiekin geratu zan. Etzekien nola eskertu egin zioten laguntza. Oraindik bazirala biotz onekoak. Bestela, non zegoen orain? Ertzaiñen eskuetan atzera-aurreraka, bere ibillerak ezin garbiturik.

Aitonak itzezin zuen bere semearekin.

— Zuk diozun bezelakoa bada, zerutik datorren euri intza litzake ori gure lantegirako. Pakete egillea egun auetako batean ezkontzen da, eta aren lekurako. Egun batzuetan arekin ikasita, martxa artuko luke. Baiña zuek joan ezkerro, gaizki gabiltz. Ez negozioa; ori goraka dioa. Baiña emaztea ta semea oso gaixorik dauzkat, etsia emanak. Nai ta nai ez, bat bear det. Baita etxerako ere. Koiñatak eta amagiarrebak asko laguntzen didate. Baiña pakete egi-teko bearrenezkoa ori da; ezin atzeratu litekena. Ekatzu zurekin eta itzezingo degu.

Aurrean ikusi zueneko, zarrasta goxoa egin zion neskak nagusiari.

Nolako lana zan ikusi ondoren, an geratu zan Martina. Lan arek etzeukan ezere buruausterik.

Pazientzi osoan antxe ari bearra paurrikan: puska txikiak, tornilloak alegia, zenbatu ta ortarako

egiñak zeuden paketeetan sartu, andik kanpora bialtzeko.

Almazenak zeukan gela txiki batean jarri zan bizitzen.

Martinak etzekien ori nola eskertu. Bera bakarrik, beste iñor gabe, bizitzeko modua antxe zeukan. Jainkoagatik, ez al zuen antxe zirikatzaillen iges ibili bearrik izango.

Etzuen irabazi aundirik. Baiña bizilekua ere duan zeukan. Zer geiago bear zuen bere burua babesteko? Baiña pakean utziko al zioten?

## Aurtxo bat

**M**ARTINA lantegi artan sartu ta illebete batzuetara, gutxi gora-beera lau-bost bat urteko aurra etortzen zitzaion lanean ari zan lekura.

Lenengoan otz samar artu zuen, ara joaterik nai etzuelako. Baiña umetxoa arratsalde erdi aldera ia beti an izango zuen; eta, ibilian-ibilian, maitasuna artu zion. Bera lanean ari zan bitarte, aurrak dakiten bezela, an ariko zan jolasean batera ta bestera. Etzion ezereen enbarazurik egiten; eta, zetorreanean, musu batekin artuko zuen, bere semea balitz bezela. Erteeran berdin.

Egun batean, nagusia etorri zitzaion. Aurra an jolasean arrapatuta, arritu xamarra geratu zan.

— Ez dakit ume au nongoa dan. Baiña illebete pare bat bada etortzen zaidala, eta ez naiz erritan emanta bialtzera ausartzen. Uste gabean maitasuna artu diot —esan zion Martinak, gaizki artuko zuen beldurrak.

— Mesedez, etzazula biali —esan zion nagusiak, malkoak zerizkiola—. Ar zazu goxo-goxo ta maitasunez, ez badizu lana galerazten beiñepein.

— Ez, jauna. Ni lanean ari naizen bitarte, bera or ibiliko da jolasean.

Nagusiak ordurako Martina begi onez ikusten zuen. Langille ta garbia zan; gaztea, ederra eta goxoa benetan. Oraindik artaz beartuko ez ote zan gaiñera? Etxeko tristurak goibeltzen zuen benetan, eta garbi-garbi egiak esan zizkion:

— Jolasean ikusten dezun aurtxo au ez da nere seme jatorra. Aur utzitakoa, ekarria da, guk ez genduela izango etsi ta gero. Eta, onek iru bat urte zituela, jaio zitzaigun gure odolekoa, lenengoa ta azkenekoa noski. Baiña oiñordekotza egiteko aski genduen bakarra. Jainkoak bestek ez daki nola ospatu genduen berri ori. Munduko diru guziak baiña naiago genduen olako bat. Gure bost langillei sari bikoitza eman genien, oiek ere guraso berrien zorionean parte artu zezaten. Ez genduen, bada, orduan seme ordeko onen bearrik. Zortzi urtean seme baten zai; eta etsi ta gero etortzeak alaitu giñun. Orduan, len esan dizut, ez genduen beste mutiltxo eder onen bearrik. Baiña alakotzat artu genduen eta maitatzera beartuak giñan. Denak zorionak ematen zizkiguten. Ama txoratua zegoen. Gure etxeko bizimodua asko aldatu zan orrekin. Erruki ditut aurrik gabeko senar-emazteak. Beti biak elkarri begira bizitzea aspergarria baita. Bagenduen, bada, aurtxo bat eta zerekin poztua. Gure odoleko semetxo orrekin poztu giñan gurasoak. Etzan, ordea, beste norbaitentzat ondo etorri. Aurrean jolasean dabillen aurtxo orrek dena geldu zuen. Orduan asi zan orren kalbarioa. Au atzera utzita, maitasun guzia gure semearengana irauli zitzaion. Batez ere ama nabarmendu zan. Len losintxa ta musu artean zerabilkien aurra, lasterka besoetara zetorkiona, berea etzuelako etzion atsegiñik ematen. Utzi egiten zuen. An baizeukan bere-berea, ainbeste urtean zai egonta etorri zitzaiguna. Askotan, aurtxoaz naigabetuta, esaten nion nik:

— Eta zer egin bear diogu beste semetzat ekarritako orri?

— Emen ibiliko da; baiña ez da gurea, ta ezin nezake au aiña maite.

— Baiña bai geixeago. Beso zabalik eskuetara datorkizu ta ez dezu artu nai izaten. Negarrez uzten dezu gaixoa. Supritzen ari da. Asi da etxetik iges egiten ere. Noiznai paketeak egiten dituen neska gazte arengana dioa. Arek laster igerri dio aur onek baduela zerbait, eta maitasunez artzen du. Etxera koan, eskutik artuta dakar. Musu bat eman ondoren, ala esaten dio, neronek entzuna: “Zoaz etxera, ama onuzkero zai edukiko dezu ta”.

— Zer egitea nai zenduke, bada? Nerea emen daukadan arte, besterenik ezin zait sartu. Au, gaiñera, aula dator, eta kuidaro guziak eskax ditu.

— Zerbait pentsatu bearko degu orduan, ea zer egin gentzaken ume onekin.

— Emen aziko da; baiña orain ez degu orren bearrik.

— Ortarako ekarri al genduen? Gure semetzako artuta gaiñera. Orduan ondo atsegiña izan zitzai-gun. Ez, ordea, supritzera ekartzeko. Bat-batean egin dan aldaketa onekin galdua dabil. Gaztetan maitasunik gabe azitako aur auek izaten dira gero gizon iltzaille ta lapurrak.

Baiña amak berean jarraitu zuen. Ni, berriz, nairgabetan: ain ume eder ta maitagarria izanik, ez duela amatzat zeukanak etxean ikusi nai.

Orregatik, Martina, aur onek ez du olakorik merezi; eta, datorrenean, beti ar zazu maitasunez.

— Eskerrik asko, nagusi jauna. Nerea balitz bezela maitatzen det. Ia ez baidu egun bat utsegiten. Eskolatik atera orduko emen det. Baiña ez nuen zurea zanik uste.

Goibel joan zan nagusia. Emaztearen joera etzuen ulertzen; baiña neska aren biotza goxoa zala.

Aldaketa ori tristea izaten da aur batentzat. Ezagutu nuen nik, olako senar-emazteak seme-alabarik ez ta olaxe aur-etxe oietatik ekarritakoa, berena bezela, eskubide guziekin. Amaren losintxa ta pailaku guziak arentzat ziran orduan. Aren eder nola egin ezin asmatu zebillen. Baiña etsi ta gero izan zuten berena. Amak, bestea utzi ta maitasun guzia bereari eman zion; eta beste gizarajoa baztertua geratu zan.

Zaartu ta gero ere, ama ordekoarengatik ikaragarriak esaten zituen. Etzitzai on gorroto gaizto ori kentzen; eta bere anai ordekoarengatik berdinekin: espatsu zegoen oraindik. Aitarengatik, ordea, beti ondo itzegiten zuen. Beretzat oso ona izan omen zala. Amak, askotan, diru pixar bat eskatu ta ukatzen zionean, aitarengana joatea aski omen zuen. Beti zerbait ematen ziola.

Lenago, ondo artzen bazuten beiñepein, aurtxo ura auzoko edozein etxeetara joaten omen zan. Baiña Martina ezagutu ezkeren, ura zeukan beretzat aukeratua. Oni zer pentsatua ematen zion. Baiña ura etxera ezin eraman erazirik ibiltzen zan gure pakete egillea. Nongoa zan jakin zuenean, eskutik artuta zeraman beti bere amarengana.

Umetako oroitz on ta txarrak biotzeraiño sartzen zaizkio aurrari.

Au aztuta uzten bazuten ere, bearrean arkitu zan aita ordekoa.

## Etxeko negarra

**S**EMEA jaio ta lenengo jaiak igaro ziranean, etzegoen etxe artan atsegin aundirik. Aurra jaio zan, baiña ezin indartu.

Azi bearrean, egunetik egunera ttikitzen eta aultzen zijoan. Senar-emazteen zorionak etzuen iraupen aundirik eduki.

Sendagillerik onenak an zebiltzan. Etziran kas-tuaren beldur. Baiña aien jakinduriak etzezaken ezer egin an.

Amaika musu ematen zizkion amak, bere mal-koz arpegia bustitzeraiño, ea artara suspertzen ote zuen, besteari ukatzen zizkionak eta geiago; baiña alperrik.

Bestea, ordea, batere musu gabe, mutiltxo bikai-ña ari zan egiten, apetitu ederrekoa eta jostaria. Inbiriz begiratzen zion ari ama ordekoak. Aren osa-suna pozik bere semeari txertatuko likena; baiña ori eziña izaki.

Tristura ikaragarria sartu zan etxe artara. Ain itxaropenez artu zuten aurraren jaiotza, eta orain dena gainbeera zijoan.



Sendagilleak aurraren etsia eman zioten. Baiña gurasoak, egia ziotela jakiñagatik, ezin etsi zuten. Ez ote zuen, bada, onera bueltarik emango eta indartzen asi? Olako amaika ejemplo baziran, eta zergatik ez beren semearekin etzuen beste ainbeste egingo?

Iltzea ez beste guzia sinisten zuten. Baiña, zori-txarrez, ura zetorkion.

Aurra ala ikusita, ezin zitzaion amari malkorik agortu. Beste seme-alabaren batzuk eduki balitu, errezago artuko zuen etsipena.

Aita, berriz, samindua, larritua, urduri. Oartzen baizan ama bera ere poliki-poliki urtutzen ari zala; eta an zebiltzan sendagilleei, aurraren osasunak ainbeste beldur ematen ziela amarenak.

Etzan, bada, etxe artan negar ta naigaberik palta. Aurraren osasunak aldaketarik etzuen ezke-ro, lenbailen bukatzea naiago.

Maite zituenak artara ikusita, alde egiten zuen aidak andik, pakea zegoen lekura, bere biotza zerbait lasaitzeko noski. Bixitarik gabeko egunik etzuen paltako gure pakete egilleak.

An ikusten zuen mutiltxoa, etxeko negarrak asko kupitu gabe. Arek etzuen oraindik alako ixtillurik ulertzen. Lasai irripar egiten zion, etortzen zanean, bere aita ordekoari.

— Au maite ez dutenak badituk. Baiña naiago nitek nere semea au bezelakoa balego —zion berekiko, naigabetua.

— Triste zabilta —esango zion, naigabetuta, neskak.

— Nola ez naiz egongo, bada? Aurra, jaio zanean baiño ttikiago ta aulago dago, ta aitutzen-aitutzen ari da. Ama ere berdin; semetxoa ala ikusita, negar egiten du. Badakizu zer dan ori, etsi ta gero aurra izan duen ama batentzat. Maitasun guzia eman dio

itxaropenez, gure odolekoa bat bagenduela, ta orain, berriz, poliki-poliki iltzen ari dala ikusita. Jaio berrian, amaikatxoren aotik zorionak artu genituen. Atsegin ematen ziguten, besteak ere pozten zirala gurekin batera. Orain, berriz, ori dena urtebete baiño len bukatzera dijoa. Edozer aitzaki aski det andik aldegitoko, eta barkatu onera etortzen naizelako. Askotan, aurtxo au zure aurrean zoriontsu jolasten ikusteak benetan suspertzen nau.

Izketaldi bat egin ta joango zan etxera. Baiña Martina asi zan kezkatzen, ez ote zan gero bere nagusia semearen aitzakitan beregatik etortzen; eta azkenean, zoritxarrez, andik ere iges egin bearko ote zuen, beldurrak ez ote ziteken iñon ere lasai bizi.

Ia urte betean ez bizi ez il zeukaten aurtxoa, joan zitzaien zerura.

Etkez kanpo lenengo ikasi zuena Martina izango zan. Negarrez aritutako begiak zekarzkien nagusiak. Neskak laster antz eman zion berri kaxkarren bat bazekarrela.

— Egun on, Martina, neretzako ez dago baiña.

— Baita zuri ere, nagusi jauna. Eroria eta zurbil zatoz benetan.

— Ez da arritzekoa. Aingerua joan zaigu zerura. Aspaldian etsiak bageunden ere, oker guziak ez dira orrekin bukatzen.

— Oraindik okerragoak bai al dituzu? Orduan, ni ezik, zu ere Jainkoak zapaltzen zaitu. Maitasunak berekin dakar supritu bearra ere.

— Nere burua garbitzeko ere, ez det oraintxe asko palta.

— Kontuz, nagusi jauna. Ez zirikaldi ori ausnartzten ibili, nere larruan ori ederki ikasia daukat eta.

— Nere etorkizuna ere illuna ikusten det, bada, emazteari ere iru illebeteko bizia ez diote ematen eta.

— Ori bai tristea dala benetan. Naigabean laguntzen dizut, nagusi jauna. Baiña kontuz len esan dezun orrekin.

— Eskerrik asko. Tristea da lan ori, baiña au ere etsigarria.

— Alare ez artu etsipenik. Oraindik gaztea zera. Agian oien utsuna beteko lizukenen bat azaldu lezaizuke.

— Aolku ona da ori, Martina. Bitartean nere biotza odoletan dago.

— Eta zer du emazteak? Askok supritu noski gaixoak...

— Ori ere bai. Urte osoa daramaki orrela. Baiña ez da orregatik. Minbizia dauka. Aurra jaiotzen berrian nabarmendu zitzaion. Sendagilleak diotenez, semea ere gaitz orrek berak eraman du.

— Gaixoa! Zaindu ta etxeko garbitasunak egiteko norbait izango dezute?

— Bai. Bere ama ta aizpa etorriak dira. Eskerrik asko. Badirudizu ortarako zere burua eskeintzen dezula.

— Norbaiti on egin bear zaion lekuan, an ikusiko nauzu ni.

— Beartzen bagera ere, gogoan edukitzekoa da ori.

Itz oiek entzundakoan, Martinaren arpegia gorritzatu egin zan.

Olaxe zebillen, bada, nagusia, atzera-aurreraka, norbaitekin bere biotza lasaitu nairik.

Lanak bukatu zituenean, joan zan Martina bere benetako dolumiñak ematera. Nagusiak esandako iru emakumeak an arkitu zituen. Martina aurrean ikusi zutenean, zarrasta bizia egin zuen iru andre aietan.

Emaztea, arrunt eroria, aurtxo illaren aurrean ezin etsirik, negarrez. Besteak ara ta onera zebil-

tzan beren eginkizunetan, aingeru ura kanposantura eramateko moldaketak egiten.

Etxeko egoera triste ura ikusita, Martinari malakoak asten zitzaizkion. Ontan, nonbaitik azaldu zan mutikoa, eta lasterka neskarengana etorri. Onek, besoan artu ta beti bezela muxu bat eman zion.

— Arriturik begira jarri ziran iru emakumeak. Txuxenean amarengana joanta dolumiñak eskeiñi zizkionean, ala galdetu zion onek:

— Ezagutzen al dezu aurtxo ori?

— Iru bat illebete ezkeroztik bai. Arratsaldeetan lantegira joaten zait, Nere artean ala nion: "Onek ere badik, bada, gaixoak bere naigabea". Eta maitasunez artzen nuen, nongoa zan ez jakinagatik. Nagusia joan zan batean, ala esan zidan: berea zala, baiña ez bialtzeko. Geroztik arratsaldero ara joaten da, eta nik nere semetxo bat bezela artzen det.

Iru emakume aiek nagusiaren lan ori etzuten ontzat artu. Arrotz batek zertan naasturik bai al zeukan? Alare, nagusiak agindu bazion... Baiña neskaxa ederra eta eraskorra, zertan zebillen an?

Martina izutu zan, ama ikusi zuenean. Urtua zegoen. Begizulo ugeldu aiekin, illa zeukaten aurrak berak baiño ere kolore txarragoak zeuzkan. Laster zan nagusia alargun.

Bere legea bete zuenean, neska etxera joan zan. Baiña emakume aiek etzuten ango martxa ontzat eman. Neska gaztea ta ederregia iruditu zitzairen. Ez ote zeukan gero nagusia txoratua? Espaz bete ziran bi aizpak.

Nagusia etorri zanean, asarre samar eraso omen zioten.

— Nor da neskaxa ori? Dolumiñak ematera etorri danean, mutiltxo lasterka joan zaio, eta lotsa gutxirekin besoan artu ta musu eman dio.

- Besteren aurrari musu ematea pekatu ote da?
- Neska gazte ederregia ez bada ere ori...
- Ederregirik bai al da mundu ontan?
- Nor da, beraz, ori?

— Gure langille bat, pakete egillea. Australitik nere gurasoak ekarri zuten, eta aitak eskatu zidan ea gure negozio ontan bazegoen arentzat lekurik. Baietz esan nion. Pakete egillea ezkondu berria zala. Eta emen artu nuen. Urtebete bederen bada-ramaki, eta etzait geroztik damutu. Oitura detanez, astero nere langilleekin itzegitea atsegin zait, jaki-ña, besteei bezela orri ere saria eman ez.

- Nondik du orrek aur au ezaguna?

— Egun triste ontarako galdera txorrotxak ari zerate egiten. Espatsu bizi al zerate? Badakizute au etxean nola zebillen. Eta, ara joan zan batean, arri-tuta geratu nintzan, neska lanean ta aurra bere ondoan jolasean ikusi nuenean. “Nola etorri da aur au onera?” galdetu nion. Onela erantzun zidan: “Egun batzuk badira arratsaldero etortzen zaidala. Enbarazurik ez dit egiten; eta bialtzea, berriz, ez naiz ausartzen”. “Au nere semea da” esan nion. “Biali egingo det orduan”. “Ez. Beste aurra gaixo daukagu. Beraren ama ere ez ondo. Eta oni eder egiten ezin giñezke ari. Egun gaizto auek pasa arte beiñepein, eduki zazu”. Mutiltxoa emendik ara joa-ten asia ez da nere errua.

## Jainkoak estutzen gaitu

**A**URRA il da etzan luzaroan bizi izan ama. Iru illebeta baiño len joan zan semetxoaren ondora; eta nagusia alargun, bakarrik geratu, ezkondu aurretik bezela.

Emaztearen aizpa ta bien ama geratu ziran etxean.

Nagusia jota utzi zuen eriotz orrek. Ateetaraiño zoriona etorri ta etzan sukaldereiño sartu. Len zeukan pixarra kendu besterik ez. Etzeukan ezertarako umorerik. Baiña denborak dena lezake noski, ta eraso gaizto ori ere gainduko zuen, eta oraindik bizi naiaren poza biotzean piztu ere bai.

Amaika zirika egiten zion lengo emaztearen amak.

— Beti orrela bizi bear al dezu? Lengoa bukatu zan. Zure martxan jarraitzezkeroz, beste lagun baten bearrean zaude. Ezkondu zaitez, oraindik sasoirik onenean zaude ta. Agian, lengoak eman ez dizuna, besteak ekarriko lizuke.

— Bai. Negozio oni jarraitzezkeroz, zerbait pentsatu bearko det.

— Emen daukazu, oraindik ezkongai, lengoaren aizpa.

— Ori ez da aski. Nai al du berak?

— Aren aintzindari nabilkizu ni.

Amaren itz auek etzioten on aundirik egin. Ezkontzea pentsatzen bazuen, berak aukeratuko zuen laguna. Etzuen ortarako bitartekorik nai. Etzion iñork aginduko.

— Ez dago gaizki. Baiña ni askea naiz, nai detana aukeratzeko.

— Lengo famelian jarraitzezkeroz, ez dezu illaren aizpa bezelakorik.

— Ori zure iritzia izango da. Baiña nik ez badet ala pentsatzen?

— Bestea nongoa dan ez dakigun pakete egille orrek atzipetuta, zalantzarik gabe beraren atzetik ibiliko zera noski.

— Neskaxa ederra, langille ta garbia da ura, edozeiñen begietatik biotzeraiño sartzeko ere; eta neri ez dit iñork norekin ezkondu aginduko. Baiña oraindik iñor ez det aukeratu. Ori nongoa dan jakitea ez da zailla. Baiña bere biotza irabaztea bai. Ez du iñorekin konfiantzarik artu nai. Ortan igertzen diot ez dala emakume ori kaskariña. Orrekin ezkondu nai duenak, argi ta garbi azaldu bearko dizkio bere baldintzak. Ori oso itxura ona da.

— Galerazi egin bear diozu aur orri ara joatea.

— Etxean maite izan balute, etzan joango. Ez badezute lotzen, berriz ara aldegingo du. Indarrean asten bazerate, asko suprituko du.

— Ikusten danez, arek sarean arrapatua zauzka.

— Neska eder ta maitagarria dala ezin ukatu. Alare, pauso ori ematerako, ari guziak ondo neurturko ditut. Baiña nere ona edo zurearen billa zabiltza?

Aspertua zeukan amaren zirikatzeak; eta egun batean —len ere askotan joaten zan asarre samar—, azaldu zan pakete egillearengana. Bai onek aguro antz eman ere zerbait gertatzen zitzaiola.

— Gaur asarre zatoz noski, nagusi jauna.

— Lepotik gora ere oraintxe ase nau lengo emaztearen amak: ildakoaren aizpa neskatxa ederra dagoela; pozik nerekin ezkonduko litzakela. Ama-alabaren tratua egiten aritze orri usai txarra artzen diot.

Martina ere pentsakor samarra zebillen. Laster antz eman zion nagusia bere atzetik zebilela. Baiña oraingoan etzuen igesirik egingo, egokiera oberik etzitzaion geiago etorriko ta.

— Nik ikusi nuen lengoan. Ez dago emakume aldrebasa. Agian zuretzako urteetan aurreratu samarra iruditu zitzaidan.

— Ez da zaarregia ere. Baiña ainbeste goratzarre neskazartu dan alabari. ni bere semea banintz bezela... Ala botatzen dit arpegira: "Beste orrek aspaldian atzipetua zauzkala ez ote dakit?" Martina, nere inguruan dabiltzan geienen berri jakitea atsegina izaten zait. Baiña zurea ere jakin nai nuke, aintzakoz artzen banauzu beñepein.

— Lengoaren aizpa bezelakorik bai al da, bada, zuretzat?

— Ondo dago. Neskazaar bizi nai badezu, zedorek ikusi.

— Oraindik ogei urte ez ditut beteta. Alare, nere berri ikasi nai badezu, nagusia zaitudan ezkeru uste det eskubide ori badaukazula. Baiña ez dakit dan bezela nola agertu guzia.

— Nongoa zaitugu?

— España ta Prantzia non dauden jakingo dezu noski.

— Alajainkia! Zortzi urteetarako banekien ori.

— Oien bien erdian bada erri xaar bat, txikia baiña bizia. Jainkoak bestek ez daki noiztikakoa dan, eta merezi luke beti bere lurraren jabe izatea. Guk Euskal-Erria deitzen diogu. An jaio ta azi nintzan ni.



— Badakit ondo erri xaar orren berri. Ni ere enda ortakoa naiz; andik natorrena, nere antziñakoak andik etorri ziran ta. Orduan, zu euskalduna zera?

— Bai, jauna. Ango baserri batekoa.

— Oraintxe iru urte pasatxoak an izan giñan leku aiek ikusten eta aien ondorengoei bixita bat egitera, eta zoraturik geratu giñan. Illunabarrean baserri aiek ketan ikustean, nolako zarrasta égin zigun senar-emazteei! Gerok semerik ez ta andik ekarri genduen. Aurrean jolasean darabilkigun txiki ori angoa da.

— Orduan, mutiltxo au ere euskalduna degu.

— Bai. Gerok ez genduen ezkerro, gure endakoa andik ekarria da.

— Eta, noski, Fraisorotik artuko zenduten.

— Ori da. Ordurako urte ta erdi bazituela esan ziguten.

— Ni an bertakoa naiz. Amasa edo erderaz Billabona esaten diogun errikoa, baserri batean jaioa. Ezagun askoak ditut inguru aiek. Zuek aur oni Martin deitzen diozute. Andik dakarren izena al du?

— Abizena nerea jarri genion; baiña izena angoa du.

— Eta noiz ekarri zenduten?

— Zergatik jakin nai zenduke txeetasun auen guzien berri?

Neskaren arpegia pixar bat gorritu egin zan.

— Zuk, Martina, badezu aitortzeko lotsa ematen dizun zerbait.

— Mutil txiki eder au nerea ote dan; ori da guzia. Nere antza duela ere esan didate batek baiño geiagok.

Orduan neskak, lotsa guziak botata, bere ixtilluen berri eman zion.

— Ori egia aterako balitz, zoragarria izango litza-ke neretzat.

— Neretzat ez gutxiago.

— Kosta zaizu, baiña zaindu dezu zere burua.

— Batek betiko eskarmentua sartu baizidan.

— Txeetasun guzi oien berri ekartzen dituzten agiriak nerekin ditut. Aiek ikustean itzegingo degu. Martintxok zure antza daukala ez dago ukatzerik.

— Nik aurtxoa utzi nuenean, neroni gaztetxoa izan arren, txartel bat utzi nuen aurrarekin batean, norena zan billatzen etzitezen ibili; eta aren berdiña nerekin daramat.

Biak txundituta geratu ziran. Ama, berriz, seguru, berak an utzi zuen aurra besterik ezin zitekela izan Martin.

Urrengo egunean berriro, bere amagiarrebari iges eginta, agiri aiek berekin zituela, an azaldu zan nagusia Martinarengana.

— Egun on, Martina.

— Baita zuri ere, nagusi jauna.

— Andik ekarritako agiri guziak nerekin dakarzkid.

— Zuk irakurri baiño len, dena asmatu baietz.

— Zurea dala seguru zaude orduan.

— Ezin liteke besterik izan. Olako egunean, illebete ta urtean jaio zan, nere aizpa Paularen etxean.

— Alaxe da.

— Urrengo egunean erriko elizan bataiatu zuten, olako apaizek eta Martin izenarekin. Joan Jose Etxebeste, nere anaia, eta Felisa Insausti, koiñata, zituen aitajaun eta amandre. Olako egunean utzi nuen eta iges egin, al nuen lekura.

— Erdiz-erdi dena asmatu dezu. Zoragarria au benetan neretzat!

— Ni txunditua geratu naiz, nagusi jauna. Munduari ia buelta osoa emanta, ia lau urte eraman zidaten semearekin topo egin!

— Mundua ezkerro beste olakorik gertatu ote da gero?

— Jainkoak badaki estutzen, itotzeraiño ez ordea. Ia bi urtean nere ondoan jolasean eduki detan semea ez det ezagutu. Badirudi berak usaia artzen zidala.

— Egia, gaiñera. Berak billatu zaitu. Au ez balitz onera etortzen asi, etxe batean biziagatik etziñan sekulan konturatuko.

— Orra Jainkoak gauzak nola antolatzen dituen.

Bazirudien nagusia neskaren atzetik zebillela, eta berri orrekin zorionsu geratu zan. Laster ixildu eraziko zituen amagiarrebaren zirikaldiak.

— Len ere kontatu dizut, batek baiño geiagok esan didate, au nerekin ikustean: “Semea al dezu?” “Ez; nagusiarena da”. “Zure antz aundia dauka, bada, orrek”. Baiña nik zer pentsatu bear nuen?

— Nik au erosi ta semetzat artua daukat. Orain, berriz, garbi agertu da zu zerala bere ama. Alargun bizi naizen ezkerro, gu bion biziak bat egiteko ezeren eragozpenik bai al dago?

— Zu nagusia zerala, ta ni zure langille arlotea. Nere aldetik ez dago besterik.

— Arrazoi ximplea da ori, Martina.

— Garbi aitortuko dizut: zu onera etortzen asi ziñanean, norabait iges egiteko asmoak artu nituen, alargundu ziñan arte. Orduantxe nere larriak pasa ziran, orren eskarmentua baneukan eta.

— Bear diran konponketak egin ta laster ezkonduko gera.

— Ez dizut dote aundirik emango.

— Eta zuk eta semeak ez dezute balio?

— Len ere ori zurea da. Torizu nere txartela ere, zurearen berdiña, aiei erakusteko. Ez dago noski zalantzarik.

— Ez, Martina, ez.

Nagusia zoriontsu etxera joan zan. Neskak, berriz, arritua, lanean jardun zuen, bere semetxoa ondoan jolasean zebillela.

Semea erosi ta eraman zioten; eta, munduari ia buelta osoa eman ondoren, berak arkitu zuen ama.

Nagusiak ere besteen zirikaldiak moztu nai zituen betiko. Etxean arrapatu zituen biak. Arpegian antz eman zioten alai zetorrela.

— Berri onen batzuk badituzu. Kontentu zatoz.

— Arri egiña nator, gure Martin txikia pakete egillearen semea dala jakinta. Txunditua utzi nau.

— Nola liteke ori, ezkondu gabea da ta? Ez dizu nolanaiko ziria sartu.

— Guk artu gendueneko agiri guziak emen dauzkat; eta, paperik ikusi gabe, dena asmatu dit. Aurak amaren izen-abizenak daramazki: Martin Etxebeste. Ama-semeei arpegira begiratzen badiozute, elkarren antz aundia daukate. Ni ez naiz, amari semea kenduta, beste batekin ezkonduko.

— Eta nongoa da bera?

— Euskaldun garbia, aurra andik ekarri genduen ta.

— Oraindik ogei urte ez ditu izango, ta nork sinistu bear dio ori?

— Jostundegitik etxera zetorrela, amalau urte bete berriekin, beartuta etorritako semea. Amak madarikatu egin omen zuen orduan. Aurra Fraisoron utzita, geroztik iges ibilia da. Ona aren eta nere

itunak emen. Biak berdin-berdiñak dira. Txunditua nago, baiña zoriontsua naiz.

Besteak kopetillun geratu ziran. Baiña, txartel aiek ikusitakoan, sinistu zuten.

Nolako asmoak zituen gurasoei adierazi zien nagusiak. Aien berri ta aolkurik entzun gabe etzuen ezer egin nai. Ezkontzeko asmoak zituela adierazi zienean, ala galdetu zioten:

— Eta nor dek andregai ori?

— Zuek ekarri zenduten Martina, neskatxa eder ura.

— Kontuz, seme! Ondo ezagutu al dek?

— Bai; ondo alare, bi urte auetan. Martin txikiaren ama ere bera da.

— Nola, oraindik gaztetxo bat dek ura ta?

Kontatu zizkien aren ixtilluak, eta bien txartelak erakutsi.

— Etzegok zalantzarik. Ango estuasun artatik alaba atera genduen orduan.

Senar-emazte zaarrak, biak lantegira joan ziran. Zorionak eman zizkioten Martinari.

— Alaba zaitugu orduan.

— Bai, jaun-andreak, bai. Beti igesi ibili naiz, baiña uste det oraingoan asmatu detala.

## Bereak gogoan

**I**XKANBIL eta ospe aundi gabe ezkondu ziran, oraindik bi eriotz aien naigabea etzitzaion senarrari biotzetik ondo atera ta.

Eztai ondoko txangoa nora egin, etzuten eztabaida aundirik eduki. Biak bat etorri ziran ortan.

— Zure erri alde oiek ikustera joan bear degu —eskatu zion senarrak.

— Bejondaizula! Nere naia erdiz-erdi asmatu dezu. Asmo orixe ber-bera nerabilkien buruan, kastu geiegia ez bada beiñepein.

— Etzaitte kastu-beldurrak ibili. Zuk naigabetan utzitakoak poztea da lenengoa. Maitasun legea, alegia.

Senarrak esan zion bezela, Martinak triste utzi zituen aiek etzeuzkan aztuta. Aiei bixitatxo bat egitea ebanjelioko aolku eder bat zan. Ordurako, berak ere bazeukan txango ori egiteko aiñako modua. Baiña bakarrik, semea galduta iges egin zuenean baiño tristeago zeukan azaldu bearra. Etzitzaion lenago etortzea ondo iduritu.

Orain, ordea, esan liteke, galdua billatu, gizon aberats batekin ezkondu; baiña alare bere maiteen artean pozik aundiena emango zuena, galdutzat

zeukaten semearekin joatea izango zala, zalantzarik gabe. Bestela, amak dena irabazi zuela esango zuten. Baiña semea galdu. Non ote zebillen ura? Beti ere kezka, batez ere amon, aitajaun eta amandrearentzat.

Beren negozioa martxan utzita atera ziran, bada. Bi Euskal-Errikoak ziran. Irugarrenak ere bazuen kutsua, bere arbasoak ala ziran ta.

Urteetan erritik kanpora bizi dan batentzat, benetan erakorkorra da bere sortetxearen oroitza. Ezin ikusiak edertu egiten du. Maitasuna artzen zaio.

Ni ondo ikasia naiz orren berri. Lekarotz ta Ondarrabian joan dira nere prailletzako urterik geienak. Zoragarriak bi erriak ere. Baztan aldean urteak bota dituenak badaki leku atsegiña dala. Ondarrabi, berriz, etzaio atzetik geratzen. Biak baserri txuriz beteak. Ni ere olako batean sortu nintzan. Baiña ez diet nere baserri xaarrari bezelako eraspenik. Alako eraskor indarrrik ez diet billatzen beste baserriei.

— Zure maiteak an daudelako —esango didazute.

Bai. Ori ere ala da. Baiña ez da guzia. Ustua balego ere, alako biozkada bat emango lidake.

Etxera bidean eta aldapaxka batetik urrun samar, bakar, txuri, umeen jolas ta txakur-zaunkak entzunik, tximinitik kea dariola txokon batean ikus-teak, alako ezin esan dan poz atsegin bat nabaitzen det biotzean. Beraren barruan igarotako gazi-geza guziak datozkit batean nere burura. Supritu bearrak izango nituen, baiña atsegiñak geiago.

Ura baiño baserri obeak asko izango dira. Ez, ordea, neretzat. Angoa izaki.

Martinari ere zalantzarik gabe ala gertatuko zitzaiola. Arek beste egiteko bat ere bazekarren: naigabetan utzi zituenak poztu naia. Ortarako, berriz, denak galdutzat joa zeukaten semea berekin zekarren.

Bere erri ingurura urbildu ziranean, ala omen zion Martinak senarrari:

— Au da neretzat munduak daukan lekurik lilluragarriena.

— Zuretzat zalantzarik gabe, neretzat ere badu ta. Non-nai sakabanatuta dauden baserri txuri oiek oso begien alaigarri zaizkit. Bazekiten gure antziña-koak lur-muturrik geienak aprobetxatzen.

Ango ixtilluak gogoratuz, malkoak asi zitzaizkion Martinari, baiña atsegiñez noski, bukaera ona izan zuelako.

— Ortik eraman zenduten zuek semetxo au.

— Bai. Ori da orduan Fraisoso.

— Bai. Orrera biltzen dituzte, aitak ezagutu gabeko aurrak.

Aurreraxeagoa joan ziranean:

— Ikusten al dezu, intxaur aundi bat aurrean eta balkoia lore batzuekin dotoretua daukan baserri ura?

— Bai; gaintxo artan. Inguru guzia aldapak beera artzen duela, oso leku erosoan dago ura.

— Ori da ni jaio ta amalau urte arte bizi izan nintzan baserria. Orko gertakari on ta txar guzien oroipena bat-batera datorkit burura. Baiña kezka batzuk ere badarabilzkit nerekin. Bost urte auetan ez det orko berririk. Ama bizi ote zait?

— Madarikatu ziñuen ama ikusteko zoratzen al zaude?

— Bai orixe. Ama beti ama da. Baiña beldurrak nator, bizi bada berriro ere ez ote naun madarikatuko.

— Zaude ixilik. Olako amarik ez da mundu ontan jaio.

Izketan-izketan iritxi ziran etxe ondoraiño. Bio-tzeko taupadak ugaritzen ari zitzaizkion Martinari. Aurreko udare batzuen ondoan ikusi zituen anaia



ta koiñata; baiña illobarik ez. Aiek eskolan izango ziran. Koiñatak burua jaso zuen batean, baita ikusi ere nola berengana zetozen.

— Begira, begira! Aizu, Joan Joxe: nor dira or datozen oiek? Ez ote da gero bat Martina?

— Zaude ixilik. Alare, bizi bada, azalduko dan itxaropenik ez det galdu.

— Oraintxe dator, bada. Ori ez da zure arreba Martina besterik.

— Alajainkia! Arrazoi dezu. Uraxe da noski.

Parrez-parrez, itzik egiteko betarik gabe, besar-kada batean lotu ziran anai-arrebak, atsegiñezko malkoak zerizkiela. Ondoren, bi koiñatak.

— Ongi etorria, Martina! Orren ederra nondik zatoz: illargitik?

— Ongi arkituak! Bizi dana andik edo emendik azaldu egiten dala. Ez nator alde-aldetik, baiña ain urrutitik ere ez.

— Bost urte auetan zure berririk gabe bizi giñan, ta auxe uste gabeko poza! Alare, emazteak badaki ez degula beñere itxaropenik galdu. Beste oiek nor dituzu?

— Bat nere gizona; ta bestea semea.

— Ezkondua zatoz, beraz?

— Bai. Oraintxe bi illebete.

— Eta aurtxo au zure semea dala esan ez diguzu?

— Bai; benetan nere semea da.

— Etzaiguzula, Martina, adarrrik jo, Orrek gutxieneko bost urte baditu, eta nola liteke?

Amak zoriontsu par egin zuen. Bai-baizekien benetan poztuko zituen berria emango ziela.

— Au zuen besoetakoa da.

— Martin? Ez gera gu orren sinisberak.

— Uraxe berbera da, bada. Gizon au da bat eramán zutenetakoa. Onen negozióan lan egiten nuen. Aurtxo au, berriz, utzia zeukaten noski, etsi ta gero seme bat izan zutelako noski. Baiña ia arratsaldero etortzen zitzaidan nere lantokira. An ibiltzen zan jolasean. Ni seguru nengoen nagusia-rena zala. Onen emaztea ta seme jaio berria ilda, alargun geratu zan au. Eta, nerekin ezkontzeko asmoan Martintxóren txéetasunak argitzen asi giñanean, arrituta geratu nintzan, musuka erabiltzen nuen umetxo ura nereá zala eta ez nuela ezagutu.

— Ipui kontari ari zeratela dirudi. Baiña aurrak zure antza aundia dauka.

— Egi-egia da, bada. Auxe da Martin Etxebeste, zuen besoetakoa.

— Gu biok benetan pozten gera, bada. Zu, Martina, eta zure semea arkituarekin, arantza zorrotz bat ateratzen diguzu: besoetako aurra izaki ta ez ote genduen ondo zaindu.

— Bai. Badakit saiatu ziñatela. Baiña amaren egosgorkeria. Bizi al da?

— Bai; ta osasun ona dauka oraindik. Ezin dala ibili. Ordu asko oatzean pasatzen ditu. Alare, egu-nero jeiki erazten degu. Baiña ez da alperkerian egongo. Guk austen ditugun erropa guziak berak josten dizkigu.

— Nik aldegiterrako ere etzebillen oiñetatik ondo. Artuko ote nau?

— Orixe zure zalantza gaiztoa! Orrela pentsatzea gaizki egiten dezu. Libre dagoen guzietan, errosarioa eskuetan darabilki. Bikarioa ere noiznai bada-torkio. Bere xox pixarrak, mezak enkargatzen, onuzkero aitu xamarrak izango ditu. Zutzaz oroitze-an, beti ala dio: "Bizi bada beiñepein, nola ote dabil gure alaba Martina?"

— Pekataria ta bere frutua batera gatoz; eta banekarren beldur pixar bat, oraindik ere lengo iritzi aiek ez ote zituen utzi.

— Dantza lotuaren aurka ikaragarriak esango ditu gaur ere. Baiña zuk semea utzi ta aldegiñaren errua oso-osorik berea dala, amaika aldiz esan digu ori.

— Uraxe agurtu gabe ez nuke, bada, utzi nai.

— Ori egingo ez bazenu, eta amak ikasi, naigabez ilko litzake.

— Joan Joxe, ez olakorik! Beti biotzbera izan naiz, eta orain da geiago. Zuk abixatuko diozu noski?

— Ez. Amaren gora-beera guzia nere andreak darabilki. Ni joango banintz, oni zer gertatu zaion galdetuko lidake.

Arrebaren gizonari esku eman ez, onela zion Joan Joxek:

— Ongi etorria, kuiñaro!

Onek Martinari galdetu zion zer esan nai zuen itz aiekin. Arek ingelesez azaldu zion. Poztu zan, eta esku eman ez:

— *Yes, yes* —edo olakoren bat esan zion.

Txuxenean sartu zan, bada, koiñata etxera.

— Egun on, ama —esan zion erraiñak.

— Baita zuri ere.

— Norbaiten bisita artzeko moduan al zaude?

— Atzo bi artu nizkiñan, eta ez negon okerrera-ko. Alare, batzuk aspergarriak ditun. Beren buruaz bestetzaz ez ditzen-itzegiten.

— Onek ere baliteke ala itzegitea. Zedorrek eskatuko baidiozu.

— Olako bisitatzaille ori nor izan liteke, bada?

— Bego ixillean. Uste gabeko ohea emango dizu.

Atean zegoen zai Martina, koiñatak kanpora atera ta sartzeko esan zionean. Ama ere urduri, nor izan ote ziteken zai zeukana.

Bitartean, Joan Joxek botilla bat sagardo eskeiñi zien aita-seei. Atean geratu baiziran, barrutik deitu zai. Keiñuka bederenik elkar ulertzen zuten. Bai arrotzak esker onez artu ere sagardoa. Bero xamarra zegoen, baiña lengo etorri aldian ikasi zuen emengo edari orren berri, eta benetan atsegin zitzaion.

Kanpoan, denak elkarrekin pozik itzegingo zutenak, ixilik zeuden, elkar ulertu eziñez. Bitartean, etxe barruan etzan galderaren paltarik.

Martina sartu zaneko, ama jeiki nairik asi zan. Arritu ta bi eskuekin arpegia astinduz, txorabioren bat zetorkiola iruditu zitzaion.

Alaba ere zerbait beldurtu zan, uste gabekoak ez ote zion onik egin.

— Zer dezu, ama? —galdetu zion erraiñak.

— Etzekiñat garbi. Nere alaba Martina uste diñat ikusten detala aurrean, eta txorabioren bat ote dan beldurrak negon.

— Ez larritu, ama. Ez da iruzurra. Zuk ikusten dezun ori zure alaba Martina da. Uraxe berbera, zu ikustera Amerika alde ortatik etorria.

— Orduan, benetan nere alaba Martina aunat aurrean?

— Bere gorputz ta anima, uraxe berbera.

Ama berriro zutitu nairik asi zan, alaba besarkatzeko. Baiña au aurreratu zitzaion, eta besarkada batean lotu ziran, bi arpegiak malkoz bustirik.

Gazteak “ama” beste itzik ezin zuen asmatu. Amak, berriz:

— Martina nere! Bizi aunat orduan!

— Bai, ama: osasunez eta zoriontsu. Alare, gorriak ikusi ta gero. Noizbait Jainkoak “Aski dezu, Martina” esan dit noski. Benetan seguru ta pakean bizi naiz.

— Bejondeiñela, Martina! Baiña nola ausartu aiz, madarikatuz emendik aurrean artuta biali iñun ama egoskor ura ikustera etortzea?

— Neretzat ama beti ama da, eta mundu ontan ez dago besterik. Bizi zerala esan didatenean, alako ezin esan dan atsegin bat nabaitu det nere biotzean.

— Orduan, nere madarikapen guziak barkatzen dizkidan?

— Ama, min ematen didazu orrela itzeginda. Ez nintzan bestela etorriko. Nere amets guzia ez da besterik: zu ikusi, zu besarkatu, igarotako urte triste aiek aztu ta zurekin pakeak egin. Aspaldian ikusi gabeko baserri ta inguruko mendi auek zoramenez ikusi ditut urrundik. Oroitz on ta gaiztoak zekarzkidaten gogora. Baiña zu palta izan baziña, asko sentituko nuen.

— Eskerrik asko, alaba. Nere aspaldiko kezkek ere oraintxe bukatu ditun. Beldurrak nenbillen. Illa ote intzanen zalantza, alde batera. Bestera, berriz, emengo erakutsiak aztu ta txakur bat bezela bizi ote intzanen, bizi bearrak begiak gorriak dizkin ta. Ez niñunan itzaz iruzurtu, ez. Nik banekiñan biotz goxo orren berri. Oraindik izutua natxion, nola itxutu nintzan ainbesteraíño. Jaunari eskerrak, dena ondo bukatu den. Nere azken urteak lasaitu ditun.

— Ori dana, bada, ama, aztua dago.

Eta betiko pakeak egin zituzten. Baita alabak bere ibilleren berri eman ere, amak eskatuta.

— Bakarrik etorri al aiz? —galdetu zion onek.

— Ez. Deitu zai kanpoan daude senarra eta semea.

— Bejondeiñela! Ezkondu intzanen orduan?

— Oraintxe bi illebeta; eta ori da noski dakardan berririk onena. Ez da sinist erreza, baiña egi biribilla.

Aurra ikusi zuenean, amonak, arrituta, ala zion:

— Bost urte baditun joan intzala, eta ume orrek ainbeste badizkin.

— Bai, ama. Egia diozu. Baiña nik Fraisoron utzitako Martintxo bera da au. Aurrik gabeko senar-emazte batzuek eraman zuten; eta ala bear ta etxe artan lan egiten nuen. Emaztea il zitzaion eta alarguna nerekin ezkondu zan. Onek Fraisorotik eraman zituen agiriak eta nik neuzkanak berdin-berdiñak ziran. Mojatxoak ere laster ezagutuko dute eraman zuen gizona.

Amonak musu maitekor bat eman zion bere billobari:

— Au den ume zoragarria! Eskerrik asko, alaba maitea. Semerik gabe etorri baintzanen, alako urduritasun bat utziko unan nere biotzean, Martintxo non galdu ote zan oroitzuz.

Etxekoak alaitu ondoren agurtuta, joan ziran andik banaka-banaka anai-arreba, lagun ta adiskideak agurtzera. Etzan Martina Joakinatzaz ere aztu. Denak poztu ondoren, Euskal-Erriari ikertxo bat egitera joan ziran.

Berri ori errian zabaldu zanean, batzuek sinistuko zuten, beste batzuek ez; baiña geienak zalantzan geratuko ziran.

# Arkibidea


Jostunak .....	7
Sarea .....	17
Atsekabetan .....	23
Errukia noizko? .....	29
Amaren arrokeria .....	33
Purrustadak .....	37
Anaiaren lasterkadak .....	40
Doña Joana .....	44
Igesa .....	53
Aurra norentzat? .....	57
Amonaren aitzakiak .....	61
Jendearen berriketak .....	66
Amerikar batzuk .....	70
Mutil zaarra .....	73
Martina .....	78
Lurdesa .....	81
Ezagunen iges .....	85
Osaba-izeben etxean .....	91
Auzia .....	101
Joakina .....	105

Amona .....	110
Alaba .....	113
Australian .....	119
Erasoa .....	126
Sorterrian .....	130
Iges berriro .....	135
Aurtxo bat .....	140
Etxeko negarra .....	144
Jainkoak estutzen gaitu .....	150
Bereak gogoan .....	158





1051067  
G-128/82



## Salvador Zapiain “Ataño”

*Ataño*-ren *Lotsaren iges* izeneko nobela berri onek neska gaztetxo baten guruzbidea jartzen digu begien aurrean: beartu, aurdun gelditu, amak etxetik bialdu...

Orrelakoak gure artean bein baiño geiagotan gertatu izan dira, zoritxarrez, Orregatik, egileak ori aitortzen ez badu ere, kontraera au egiazko gertaeretan sustraituta dagoala dudarik ez da.

Ala, liburu onek, batetik, errukirik gabeko portaera ori gizalegeak eta kristautasunak eskatzen dutena ote dan pentsa arazten du. Eta, bestetik, errenteriar idazle oparo onen euskera jator, bizi, dotore eta gozoa bein eta berriro miazkatzeko egokiera ematen digu.

ISBN 84-89080-16-X



9 788489 080164

G-1